ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-11-11
ASTELEHENA
329. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET

TOKIKOM

"Gezurra da Espainian diru mordoa gastatzen dela pentsioetan"

Pedro Etxebarria | Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen idazkaria | 8

Kantariren bigarren emanaldiak 160 gaztetxo batu ditu Bergaran | 30

Bergaran IKT-en astea gaur hasita, enpresei zuzendua | 36

Haizeak gogortutako Behobian, Yerai Varela gureko onena | 22

Lagun onenaren tirakadaz

Zapatuan eta domekan txakurrez lagundutako lasterketak egin dituzte Gorlan; atzo, canicross proban 60 txakurrek hartu zuten parte

Lasterketa hasi eta lehenengo metroetan atletak eta txakurrak pilatuta, Gorlako kantina ondoan.

JAGOBA DOMINGO

4.843 boto jaso dituzte galdeketan

Hondakinen gaineko galdeketak izan duen harreraz pozik azaldu dira Bergara Garbia plataformakoak | 4

"Galdu ditugun lanpostuak bizpahiru urtean errekuperatuko ditugu"

Txema Gisasola | Mondragon taldeko presidentea | 5

Harremanek 20 urteak lagun artean ospatu ditu | 12

Jokin Zaitegiren lana batzen duen liburua aurkeztu dute Arrasaten | 14

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 8 | IRITZIA 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

12 liztor beltz harrapatu dituzte Eskoriatzako motorzaleek

- Motorzale talde batek liztorrarekin topo egin zuen
- Bati ziztada egin zion eta tranpak ipini zituzten

LEIRE KORTABARRIA | ESKORIATZA

Liztor beltza (*Vespa velutina*) Euskal Herriko ekosisteman sartu da eta urtero-urtero dago hark sortutako arazoen berri. Aurten, Gipuzkoan iaz baino askoz gutxiago igarri dute liztor hori; Gipuzkoako Erlezainen Elkartearen datuen arabera, udaberriko euriteek eta tenperatura freskoek liztor inbaditzaile horren populazioa txikitu zuten lurraldeko leku askotan: iaz baino % 90 gutxiago zebiltzala esan zuten elkarteko kideek. Baina Debagoiena salbuespena izan da; hala, batez ere bailarako herri batzuetan, izurrite antzekoa izan dira aurten liztor beltzak.

Hori lehen pertsonan bizi izan zuten Eskoriatzako lagun batzuek. GOIENAri kontatu diote euren abentura liztor beltzaren harira.

Eskoriatzako lagun motorzale batzuk, harrapatu

Beso bat lokartuta

Enduro motorrean ibiltzea gustatzen zaien lagun batzuk dira. Honela kontatu digute: "Orain dela hilabete-edo, zuhaizti batzuk zeuden inguru baten genbiltzala, gutariko bati lepotik zomorro bat sartu zitzaion eta bularraldera joan zitzaion. Beldurtu egin zen eta ezkerreko eskua jaregin zuen zomorroa harrapatzeko. Orduan, bularraren eskuinaldean ziztada handi bat igarri zuen".

Erlezainek diotenez, liztor beltzaren ziztada "ehun erlerena modukoa" da, eta eskoriatzar horrek igarri zuen hala zela; izan ere, "segundo gutxi barru besoa lokartu zitzaion, leporaino". Orduan, motorretik jaitsi eta zomorroa harrapatzeko ahaleginetan hasi zen.

Halako baten harrapatu zuen, eta hara zer, eta liztor bat atera zuen. Eurek orduan ez zekiten zehazki ze zomorro zen hura, baina begi bistan zen handia zela, euro bateko txanpona baino handiagoa (ikus argazkia).

Zomorroa harrapatuta, medikuarengana joan zen erasotutako gaztea, eta medikuak ez zuen zalantzarik izan: "Asiako liztorraren beste ziztada bat!"

Erasotutako gazte hori "zorionez ez zen alergikoa", diosku taldeko kide batek, eta pomada batekin, bi egunetan bere onera etorri zen. Baina kontua ez zen hor bukatu.

Ustekabe handia

"Mendizaleak gara, ingurumena zaindu gura dugu, eta horregatik, liztor horren gainean informatu ginen, eta jakin genuen bertako erleak akabatzen dituela bere kumeei jaten emateko. Udan izurritea izan zuen herri bateko udalera deitu genuen eta han konfirmatu ziguten liztor beltza, asiatikoa zela hura.



"Ospe txarra ipini digute motorzaleoi"

Dozena bat liztor beltz harrapatu duen Eskoriatzako lagun talde horrek bi mezu bidali nahi ditu: batetik, liztor horren gaineko kezka eta ardura zabaltzea; eta, bestetik, mendian ibiltzen diren motorzaleen irudia errebindikatzea: "Guri ospe txarra emateko-edo, komunikabideetan motorzaleon gaineko artikulu txarrak kaleratzen dituzte, mendia apurtzen dugula-eta esaten. Hori ez da egia. Bai, gu ibiltzeak eragin eta inpaktu bat dauka, baina gure gaineko hain ikuspuntu negatiboak zabaltzea ez zaigu ondo iruditzen", esaten dute. Gaineratzen dutenez, "ondo dago gauzak esatea, baina behar den bezala, eta ez guri izen txarra emanez".

"Ondo dago gauzak esatea, baina behar den bezala", diote motorzaleek

Zale horiek gogorarazten dute mendian motorrean ibiltzea ez dela gutxi batzuen kontua: "Debagoienean eta Debabarrenean, 200 eta 300 zale inguru izango gara. Tartean, oso kirolari onak, Euskadiko txapelketetan eta beste batzuetan nabarmendu direnak: adibidez, Xabi Abasolo", esaten dute Eskoriatzako motorzaleek.

Ez hori bakarrik; orain urte batzuk, Endurozaleek eta mendiko motorzaleek ez zutela inongo ospe txarrik esaten dute eskoriatzarrek: "Motorzale beteranoekin ibiltzen gara eta, haiek esaten digutenez, lehen kontua ez zen horrelakoa, mendian motorrez ibiltzea ez zegoen hain zakar ikusita; alderantziz, lehen, mendizaleren batek min hartzen bazuen mendian edo antzeko zerbait gertatzen bazen, mendizaleek motorreroei laguntza eskatzen zieten, haren bila joateko, botikak eroateko... Orain ez dakigu zer dabilen pasatzen", esaten digute, penatuta.

zituzten liztor aleak erakusten. | GOIENA

Eskoriatzako motorzaleek egindako tranpak, liztorrak barruan dituztela. | GOIENA

Eskoriatzar bati heldu zion liztorra handia zela ikus daiteke. | GOIENA

Orduan, ale gehiago harrapatzeko zer egin behar genuen enteratu ginen", kontatzen du motorzale taldeko batek.

Pentsatu eta egin. Informazioa eskuan, lau tranpa egin zituzten eta ziztada gertatu zen leku berean ipini zituzten. Astebetera, berriz hara joan ziren... "Eta hara non ustekabea! Beste 12 zeuden tranpetan harrapatuta!". Orduan, talde-argazkia atera zuten: "Endurozale eta mendizale izateaz harro gaudelako".

"Oraindik boladan gaude"

Debagoieneko beste herri batzuetan ondo dakite zer den liztor beltzari aurre egitea. Arrasateko Udaltzaingoak joan den astean kendu zuen aurtengo 19. habia, eta denetara 29 liztor habia kendu dituzte. Udaltzainburuak, Jose Luis Etxeberriak, dioenez, "iaz baino gehiago" izan dira, baina horrek badauka bere irakurketa ona ere: "Kontzientziazio kanpaina egon da eta jendeak gehiago deitu du".

Habia basoan baldin badago, Arrasateko udaltzainek utzi egiten dute, eta etxebizitzaren baten teilatupean, balkoian...baldin badago kentzen dute. Inoiz, eurek ezin kendu eta suhiltzaileen laguntza eskatu behar izan dute, baina, hala ere, habia batzuk ez dira kentzen errazak: "Deia jasotzen dugunean, bertara joan eta baloratu egiten dugu ea geuk egin dezakegun edo ez. Musakolan, urriaren 16an, eskailerekin ahalegindu ondoren, lau ehiztarik eskopetaz tiro eginez apurtu genuen habia", esaten du Jose Luis Etxeberriak.

Baina, behintzat, liztorrek ez diote jende askori heldu aurten. Abuztuan, alergia zeukan emakume bati heldu zioten, baina alergikoek edo umeek ez dute liztor horrekin topo egin, udaltzainek dakitenez.

Udaltzainburuak ohar hau egiten du: "Oraindik liztor beltzaren boladan gaude. Izotza eta euri handia etorri arte, jendea adi egon dadila eta, ikusiz gero, dei diezagula".

Aramaion, Arabako lehena

Aramaion ere jaso dute, aurten ere, liztor beltz beldurgarriaren bisita. Are gehiago, Aramaion antzeman zuten aurten liztor horren Arabako lehenengo habia. "Aurten, lau habia kendu ditugu. Foru Aldunditik liztorrendako tranpak bidali dizkigute eta horretan ibili gara", esan digu Aramaioko Uribarri auzoko erlezain Juan Mari Arriolabengoak. Habia gehienak basoan eta lahar artean agertu dira; bat izan ezik, hori Untzillako etxe baten teilatupean agertu zelako". Aldundiak emandako tranpez gain, Azti-Tecnaliako kideak ibili ziren inguruak fumigatzen, beste herrialde batzuetan erabiltzen diren produktuekin. Dena dela, habiak kentzeko zailak dira: "Normalean, nahiko gordeta egoten dira, zuhaitz edo lahar artean", dio. Horregatik, bereziki kontuz ibiltzeko eskatzen die nekazariei eta baso-lanak egiten dabiltzanei: "Traktorearekin sasiak kentzen zebilen gizon batek habia bat harrapatu zuen, konturatu gabe, eta liztorrak heldu zion; konorte barik eroan zuten Arrasatera, ospitalera".

Arriolabengoak dioenez, Aramaioko eztigileek ez dute aurten ezti edo erlauntza askorik galdu, baina "datorren urtean ikusi egin behar", izan ere, liztor beltz populazioa "nahiko azkar handitzen" da: bere esanetan, "sasoi bakoitzean, kilometro bat zabaltzen da liztorraren eragina".

Espainiako legebiltzarrean

Urte batean edo bestean egon daitezkeen gorabeherak baino garrantzitsuagoa eta larriagoa da beste hau: liztor beltza gure artean geratzeko etorri dela. Hala dio Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko presidenteak, Julian Urkiolak: "Liztor horrek hemen jarraituko du eta ezin dugu horren aurrean ezer egin".

Aurkitzen dituzten neurrian habiak kentzeaz edo apurtzeaz gain, ezer gutxi egin dezakete, eta erlezainek ikerkuntza egitea eskatzen dute, oraingoz erantzunik gabe: "Ikerkuntzan inbertitzeko eskatzen gabiltza lau urte, baina ez dago orain horretarako dirurik, ez eta gogorik ere", dio Urkiolak.

Aurrerapauso gisa aipatzen du Espainiako Diputatuen Kongresuak, Ingurumen Batzordearen bidez, Gobernuari eskatu izana erle eztigilea liztor beltzaren erasoen aurka babes dezan. Kongresuko talde guztiek alde bozkatu zuten. Baina, Urkiolaren esanetan, "Europako arazoa da, herrialde askotan dagoelako. Zoritxarrez, arazo baten aurrean ez da ezer egiten oso larria den arte".

JULIAN URKIOLA | GIPUZKOAKO ERLEZAINAK

"I+G-tik aurre egin beharko litzaioke liztorrari, baina ez da inbertitzen"

Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko presidentea da Julian Urkiola. Bere esanetan, Gipuzkoako erlezainek aurten eztiaren laurdena bakarrik jasoko dute, liztor beltzaren erasoa dela eta.

Irailean esan zenuen aurten gutxiago dabilela liztorra Gipuzkoan, baina lurralde osoan ez da hala izan, ezta?

Ez, zonalde batzuetan beste batzuetan baino gehiago ibili da. Udaberrian oso eguraldi txarra egin zuenez, liztor asko hil egin ziren. Orain, badirudi berriz hasi direla. Hotza etortzen bada, baretuko da kontua.

JOKIN BEREZIARTUA

Ze galera izan duzue erlezainok?

Aurreikusten genuen eztiaren laurdena, batez beste, bakarrik jasoko dugu. Erleak neguan oso ahul izan ziren eta jaten ematen ibili ginen. Erle gutxiago ditugu orain.

Erakundeen aldetik laguntzarik, baliabiderik... jaso duzue?

Gipuzkoako Foru Aldundiak badauka protokolo bat. Horrez gain, aurten pertika batzuk eman dizkigu, hauts eta likido berezi batzuk aplikatzeko. Dena dela, bidea ez da hori, ez da eragingarria. Ikerkuntza eta garapenaren aldetik ikusten dugu bidea. Ikerketa gehiago egin beharko lirateke; baina ez da horretan inbertitzen; ez dago dirurik ez eta gogorik ere.

UROLOGIAKO ZERBITZU BERRIA

Tratamenduak:

- Onkologia urologikoa (prostata, giltzurrun, maskuri eta barrabil minbiziak)
- Gernu-obstrukzioa, prostataren hiperplasia onberaren eraginez
- Bagina-prolapsoen eta emakumezkoen zein gizonezkoen gernu-inkontinentziaren diagnostikoa eta tratamendua
- Urologia pediatrikoa
- Gernu-traktuaren patologia infekziosoa
- Zutitzearen disfuntzioa

QUIRÓN OSPITALEA Gasteiz

ESKA EZAZU ORDUA:

QUIRÓN GASTEIZ OSPITALEA Tel.: 945 25 25 00 | UDALAITZ ZENTRO MEDIKOAN Tel.: 943 79 44 22

MEDIKUAK
Alberto Martin-Marquina · Anibal Rincon · Abel Saiz.

RPS: 136/12

www.quiron.es

4.843 boto jaso dituzte hondakinen bilketaren gaineko galdeketan

- Antolatzaileak gustura agertu dira herri galdeketak izan duen erantzunarekin
- Bosgarren edukiontziaren alde izan ziren botoen %98, 5; atez atekoaren alde, %1,5

TXOMIN MADINA | BERGARA

Bergara Garbia plataformakoek emandako behin betiko datuen arabera, 4.843 boto jaso dituzte asteburu honetan hondakinen bilketa sistemaren inguruan Bergaran egindako herri galdeketan. Antolatzaileek Gipuzkoako plataformek landutako 11.608 pertsonako errolda hartu dute aintzat. "Horren arabera, %41.7k eman du botoa Bergaran" azaldu zuten plataformako kideek.

Emaitzei dagokienez, galdeketan jasotako 4.771 boto bosgarren edukiontziaren alde izan dira (%98,5); atez ateko sistemaren alde 51 boto jaso zituzten(%1,05) eta 21 izan ziren balio gabeko botoak (%0,4).

Notario batek kontrolatuta egin zuten atzo galderketako botoen kontaketa. | ARGAZKILARIAXXX

"Datuak oso onak dira eta oso pozik gaude"

"Udaleko agintariek izango dute zer hausnartu"

Bergara Garbiakoak "oso pozik"

Oraindik ere behin-behineko datuak eskuetan hartuta, Bergara Garbia plataformako kideak gustura agertu ziren datuekin. "Orain arte lortu ditugun datuak oso onak izan dira, eta oso pozik gaude" azaldu zuen plataformako kide Jose Antonio Aperribaik.

Bere esanetan zapatuan eman zuen jende gehienak botoa. Eguraldiak gehiegi ez zuela lagundu zehaztu zuen, eta Bergara Zero Zaborreko kideei erreferentzia eginaz hainbat jende galdeketa oztopatzen saiatu zirela gaineratu: "Hori dela eta giro arraro samarra sortu zen, eta gure beldurra zen horrek jendea beldurtzea. Baina erantzun ona eman dute, eta pozik gaude. Eskerrak eman dizkiegu bergararrei arazo guztien gainetik botoa ematera etorri direlako".

Behin herri galdeketa burututa, herritarrei datuak helarazi eta horren inguruko balorazio egingo dutela iragarri zuen Aperribaik. "Udaleko agintariek izango dute zer hausnartu" gaineratu zuen.

Galdeketa, bi egunetan

Aurreikusita zegoen moduan, zapatuan 10:00etan hasi zen hondakinen bilketa sistemaren inguruan antolatutako herri galdeketa. Parte hartzaileek bi aukeraren artean eman behar izan dute botoa: organiakoa bosgarren edukiontziaren bidez jasotzearen aldekoa bata, eta organikoa eta errefusa atez ateko sistemaren bidez jasotzearen aldekoa bestea. Bost hautesleku eta hamar hautesmahai izan dira denera jarri dituztenak eta Udal Pilotalekuan jarritako hautesmahaietan, esaterako, lehenengo minutuetatik hasi ziren sortzen jende ilarak.

Zapatuan, 13:00ak inguruan botoa emateko zain zeuden pertsonen ilarek jarraitzen zuten Udal Pilotalekuan. Botoa eman berri zuen Ana Marik argi zeukan galdeketan parte hartzearen arrazoia: "Bosgarren edukiontziaren alde nagoelako etorri naiz botoa ematera. Ez zait inposizioa gustatzen, eta Udalari eskatuko nioke gaurko emaitza onartzea. Nik neuk dena birziklatzen dut. Gainera, zergatik Bergaran kutsatzen du, baina ez Arrasaten edo Donostian?". Maria Isabel ere gustura agertu zen herri galdeketarekin: "Ondo dago galdeketa egitea; orain arte ez dute kasu gehiegi egin, eta nik nahi nuen nire botoa ematea. Herrian zeinek zer pentsatzen duen argitzeko modua dela uste dut".

"Nire herria garbi egotea nahi dudalako emango dut botoa; ezarri nahi duten sistema ez zait estetikoa iruditzen eta ez dut nahi inork agintzea zein egunetan zer atera behar dudan. Hondakinekin gero zer egiten den? Ez dakit, eta uste dut hori ez dagokigula guri" esan zigun, bere aldetik, Marilik.

Bergara Zero Zabor

Zapatu goizean Bergara Zero Zaborreko kideak hauteslekuetara joan ziren ikuskatzaile lanak egiteko asmoarekin, baina Udal Pilotalekuan bakarrik sartu ahal izan zuten. "Ezin garela mahaietan egon esan digute, abstentzioa eskatu dugula argudiatuz; baina pilotalekua eremu pubikoa denez, ezin digute hemen egotea ukatu", azaldu zuen plataformako kide Unai Arantzabalek, eta gaineratu zuen euren nahia zela baldintza batzuk betetzen zirela bermatzea.

Bergara Garbiko kide batek honela azaldu zuen erabakia: "Euren helburua da zein datorren eta zein ez datorren kontrolatzea; jendea beldurtzea botoa ematera ez etortzeko".

Ertzainak ere gerturatu ziren Udal Pilotalekura. " Esan digute mahai ondoan jarraituz gero identifikatuko gintuztela. Gure helburua ez da konfrontaziorik sortzea; ondorioz aulkietan eseri gara gure lana egiteko" azaldu zuten Bergara Zero Zaborreko kideek.

Bergara Zero Zaborren balorazioa

"Bergara Zero Zaborrekook genituen aurreikuspen txarrenak bete dira. Herri galdeketa honek araudi oso eztabaidagarria zuen. (...) Zero Zaborren dozenaka begiraleek ez dute mahaietan egoteko aukerarik izan, dena den gertutik begirale lanak egin eta dozenaka arau hauste larri ikusi ditugu (...) Bozkatzera joan diren bergarar guztiekiko errespetua adierazi nahi dugu. Baina, asteburuan Bergaran gertatu dena oso larria izan da, ez delako galdeketa demokratikoa izan, ez delako 'bergarar bat, bozka bat' printzipioa errespetatu eta beraien araudia ere behin eta berriz hautsi dutelako. Argi dago beraz sasi galdeketa hau putxerazo hutsa izan dela. EAJ eta Bergara Garbiaren joko zikina agerian gelditu da. Beraz, Bergara zero zabor herria izateko bideari eutsi eta birziklapena bermatzen duen sistema mistoa abian jartzeko deia egiten dugu".

Udal gobernua: "Gaizki planteatutako galdeketa"

Bergarako udal gobernuak galdeketaren harira balorazioa egin du eta jarraian puntu garrantzitsuenak: "Udal gobernu taldeak errespetu osoa erakutsi nahi die kontsulta honen bidez hondakin sistemari buruzko desadostasuna erakutsi duten herritarrei (...) Oraingoan ere 'sinadura' bilketan bezala galdeketaren planteamendu okerrak aukera ematen du zilegizko aurkakotasuna erakusten duten herritarren iritzia desitxuratzeko. (...) Galdeketa ez da egin erroldaren arabera, ondorioz, galdeketa honetan botoa zenbatek eman izan zuen jakitea ezinezkoa da. Bergaran bizi, baina erroldatu gabeko pertsonek bozkatu ahal izan dute ordainagiri bat aurkeztuz. (...) Boto delegatuari dagokionez ez diogu inolako zilegitasunik ematen, praktika honek iruzurrari ateak zabaltzen dizkiolako. (...) Galdeketa ez da izan gardena. Bozketa *pribatua* zela eta Zero Zabor taldeko kideei galdeketan begiraleei parte hartzea galarazi zaie. Zer izkutatu nahi izan dute jarrera honen atzean? Honi lotuta zera adierazi nahi du Udal honek: arbuiatzen dugula ertzaintzak izan duen jarrera eta hiru lagun identifikatu izana (...) Gaizki planteatutako galdeketa honegatik ez dugu kopuru fidagarririk espero, baina argi ikusten dugu herrian zatiketa handia dagoela. Egoera honetan beste behin lasaitasun mezua igorri nahi diegu herritarrei (...) posible da egoera berezietan egokitzapenak egitea eta malgutzea. Eman diezaiogun aukera bat sistema berriari."

Udaletxera bertaratutakoak Aristegiren hitzaldia entzuten. | IMANOL SORIANO

Aristegik UNEDen garrantzia azpimarratu zuen ikasturte hasieran

Egubakoitzean eman zion ofizialki Bergarako unibertsitateak hasiera ikasturte berriari

Z.V.D.M. | BERGARA

Egubakoitzean egin zuten UNEDekoek ikasturte berriaren hasiera ekitaldia; aurten Maite Aristegi bergararrak eman zuen ekitaldiko hitzaldia. Aristegirekin batera ekitaldian izan ziren, Iñaki Esparza UNED-Bergarako zuzendaria, Jaione Isazelaia Bergarako alkatea, Itziar Alkorta Unibertsitate sailburuordea eta Ikerne Badiola Gipuzkoako Kultura diputatua.

Berbaldiaren ostean iaz karrera amaitu zutenak izan ziren protagonista; hain zuzen ere, osoko bilkuren aretoa diploma banaketen testigu izan zen.

Ateak irekitzeko gakoa

UNED-Bergara: bizitzako ezinbesteko lagunkide izeneko hitzaldia egin zuen Maite Aristegik. "Niretzako UNED oso garrantzitsua izan da, nire bizitzan izan naizena izateko erreminta asko eman dizkit-eta. Eta horiekin egoera ezberdinetara moldatzeko aukera edukitzeaz gain, ate ugari ireki dizkit".

Eta UNED bezalako unibertsitate bat bertan edukitzearen garrantziaz ere egin zuen berba: "Nahiz eta Madrilgo izena eduki, hemen daukagun unibertsitate hau oso hurbilekoa da, eta zalantza barik, luxu bat da. Izugarrizko aukera, esaterako, bere egunean ikasi ezin izan zutenentzat, edo ikasteko gogoa berandu etorri zaienentzat...".

UNEDek urte luzeetan egindako lan guztia ere ekarri zuen gogora. "Gure gizartean oso txertatuta dago eta jendeak geroz eta tresna gehiago eduki indartzeko, hobeto". Unibertsitateari bizitza luzea opatu zion, eta UNEDek aurrera egin dezan diruz lagundu behar dutenei mezua helarazi zien: aukera hori eman diezaiotela.

Egubakoitza ezkero libre dago Luis Mari Azkargorta, 'Kanto'

Egubakoitzean irten zen espetxetik Lus Mari Azkargorta preso aramaioarra. Hain zuzen ere, Espainiako Auzitegi Gorenak Estrasburgoko epaia noiz aplikatu zain zeuden bederatzi preso, eta egubakoitzean Auzitegi Nazionalak Gorenaren zain ibili barik bederatziak aske uztea erabaki zuen. *Kanto*-rekin batera, Txomin Troitiño, Jokin Sancho, Isidro Garaide, Iñaki Urdiain, Jon Aginagalde, Joseba Artola, Elias Fernandez eta Patxi Gomez geratu ziren libre. 1998an atxilotu zuten eta Zaragozako Zuerako espetxean egon da aske geratu den arte.

Laboral Kutxa estatuko finantza-entitate onenen artean

Fitch agentziak Laboral Kutxaren kaudimen eta likidezia ratioak berretsi ditu eta baita arriskuen kudeaketa egokia ere, besteak beste. Eta Fitch agentziaren balorazioan hobekuntzaz gain, urriaren 15ean Moody´s agentziak epe luzeko (Ba1) eta finantza-sendotasun rating-ak mantentzea erabaki zuen. Hori horrela, kalifikazioak estatu mailako finantza-entitate onenen artean kokatzen dute Laboral Kutxa, aditzera eman dutenez. Fitchekoek, bestalde, Laboral Kutxaren etorkizuna hobetu egingo dela aurreikusi dute eta etorkizun hori egonkortzat eman dute.

Azken urtean etxe kaleratzeen auziak okerrera egin duela salatu dute

Agerraldia egin zuen Euskadiko Stop Kaleratzeak plataformak Arrasaten

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

"Gaur urte bat bete da Amaia Egañak Barakaldon, kaleratze jakinarazpena jaso eta gero bere buruaz beste egin zuenetik. Amaia ez zen lehenengoa ezta bakarra izan eta espero duguna genozidio finantzarioaren biktima gehiago ez egotea da". Hala hasi zen zapatuan Arrasaten Euskadiko Stop Kaleratzeak eta Hipotekarengatik Kalteturikoen plataformek deitutako prentsaurrekoa.

Fagorren krisia dela agerraldia egiteko "toki aproposena" zela iritzita hautatu zuten Arrasaten elkartea. Kulturaten bildu ziren eta azken urtearen balantzea egin ondoren, "borrokarekin jarraitzea eta borroka bera areagotzea" inoiz baino garrantzitsuagoa dela esan zuten.

Merino, Soto, Gonzalez eta Barrutia prentsaurrekoan. | IMANOL SORIANO

Drama sozialak aurrera

Udalerri eta bailara ezberdinetako plataformetako kideak elkartu ziren zapatuan. Debagoieneko plataformako Salva Gonzalezek aditzera eman zuenez, azken urtean "etxe kaleratzeen drama soziala" indarrean dagoela esan zuten, langabeen kopuruak gora egin baitute. Eta egoera dramatikoaren azken erakusle Fagorren krisia dela azpimarratu zuten.

Kasu berriak agertzen dira

Bestalde, Debagoienean asteon euren hipoteka ezin ordaindu duten beste 5 kasu berri ezagutu dituztela esan zuten. "Urte honetan zehar hipoteka-exekuzio prozedurak ez dira gutxitu, gora egin dute". Gaineratu dutenez Gipuzkoako epaitegietan gehiegizko klausulei buruzko ahozko 21 epaiketa salatu dituzte, "horietariko 11 Kutxabanekoak".

Bestalde, etxerik gabeko jendea eta jenderik gabeko etxeen bidegabeko egoera kontraesankorra areagotu dela gaineratu dute. Horregatik, Maileguengatik kalteturiko plataformetako kide eta herritarrek etxebizitza hutsen berreskurapenean egiten ari diren lanaren baitan, bi aldarri azaldu dituzte: etxebizitza ordainean ematea eta alokairu sozialena.

Laboral Kutxari deia

Bestalde, Fagorreko auziaren harira Stop Kaleratzeak plataformako kide Juan Luis Merinok, Laboral Kutxako arduradunei dei egin zien hipotekei aurre egiteko zailtasunak dituzten edo izango dituzten herritarrekin bildu eta arazoari irtenbidea bilatze aldera mekanismo guztiak martxan ipini ditzaten.

Abokatuei laguntza eske

Zapatuko agerraldian, gainera, enkanteek eta kaleratzeek aurrera jarraitzen dutela ekarri zuten gogora. "Hauek gauzatzen ez badira ez da bankuen borondateagatik, epaitegietan jartzen ditugun traba legal eta herritarron mobilizazio eta salaketengatik baizik".

Bide horretatik jarraitu ahal izateko, abokatuak direnei zein zuzenbide ikasketak egiten ari direnei eskaera berezia luzatu zieten plataformetako kideek Arrasaten. "Lan asko eta asko dugu eta guztien laguntza funtsezkoa izango genuke", gaineratu zuten.

Programazio aurkezpena gaztetxean egin zuten. | IMANOL SORIANO

Webgune berrituaz hasi du ikasturtea Txapa Irratiak

23 irratsaio propio ekoiztuko dituzte 2013-2014 denboraldian Bergarako irrati libreko kideek

Z.V.D.M. | BERGARA

Txapa Irratiak bere 29. denboraldiari egingo dio aurre. Osasuntsu dago Bergarako irrati librea; 23 saio propio ekoiztuko dituzte eta 2013-2014 ikasturtean. "Urtetik urtera komunikazio modu hau posible eta beharrezkoa dela erakusten dugu. Oso medio gutxirekin zerbait txukuna egiteko gai gara, autogestioaren bidez eta bileretan erabakiak hartuz". Hala eman zuen aditzera Lander Juaristi Txapa Irratiko kideak.

Bergarako gaztetxean aurkeztu zuten denboraldi berria; txotxongiloek gidatuta egon zen saioa eta ez zen umorerik falta izan, ezta musika ere; azken hori, Elvis Caino DJren eskutik egon zen.

Saio berriak

Askotariko saioek hartuko dituzte FMko 97.20ko uhinak; batzuk berriak: teknologia berriak ardatz izango dituen *Eskuliburu ilustratua* –astelehenetan (21:30-22:30); izaki bizidunen bitxikeriaz berba egingo da *Hau mundu bitxia* saioan –martitzenetan (20:00-21:00); sorgin izatearen definizio guztiak landuko dituen *Zapuak kazuelara* –hamabostean behin, eguenetan (15:30-16:30); edo testuak oinarri izango dituen *Letretan murgilduta* –hamabostean behin, domeketan (19:00-20:00).

Webgune berria, dinamikoa

Webgunea berritu dute, gainera. Jokin Guridi aritu da berritze lan horretan: "Webgune dinamikoa da; irratsaioak zuzenean entzun ahal izango dira, baina saio bakoitza *podcast* bidez entzuteko moduan egongo da. Horrela entzuleak ez dira ordutegira mugatu behar".

Javier Goienetxea, Konfekoopeko presidentea. | GOIENA

Javier Goienetxea | Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko presidentea (Konfekoop)

"Buru-belarri lanean gabiltza gaia argituta eta ziurtatuta gelditzeko"

- Kooperatibismoak aurrera egingo duela uste du Goienetxeak
- Kalteak ahalik eta txikienak izateko neurriak hartzea beharrezkoa dela dio

ANE ETXEBERRIA | DEBAGOIENA

Javier Goienetxea Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko presidentea da eta haren iritzia jaso dugu Fagorren inguruan gertatzen ari den guztiaz.

Fagor likidatu egingo dute... eta orain zer gertatuko da?

Uste dut gaia zehatzago adierazten duela "Fagor likidatu egingo da" esanak. Orain zer? Zaila da erantzutea, Mondragon barruan ez dago horrelako esperientziarik, lehenengo aldiz gertatzen den egoera bat da. Orain, lan egitea dagokie Fagor Etxetresnetako langileei eta Korporazioko entitateei, Lagun Arori eta Mondragoni. Aukerak bilatzen, aukerak harrapatzen, denok prest egotea komeni da ahal den neurrian kaltea txikiena izateko.

Egungo egoeran, non geratzen dira bazkideen ekarpenak?

Konkurtsoaren arabera izango da hori. Itxaron egin behar, hortaz. Bazkideen eta kooperatibaren gai bat dela uste dut, hor Korporazioak ez daukala joko handirik ematen du. Ez dugu ahaztu behar Mondragon Taldea osatzen dutenak kooperatiba bakarrak direla, bakoitza beren ardurekin, nahiz eta dibisioka antolatuta egon. Eta kooperatibak pertsonek osatzen dituzte; hortaz, bakoitzaren kooperatiban bazkideak jarritako ekarpenak jasotzeko aukerarik ez egotea gertatuz gero, nori eskatu diru hori? Beste kooperatiba batzuei eta bertako bazkideei? Eta ez dut uste Korporazioak tresnarik duenik eta horretarako antolatuta daudenik; gaur egun, behintzat, ez.

Ekarpenez gain ondasunak arriskuan daude? Konfirmatzerik baduzu?

Gure ustez ez, argi daukagu lan bazkideen ardurak jarritako ekarpenei mugatuta daudela. Gai juridikoetan ziurtatzea zaila izaten da, baina Korporazioa eta Konfederazioa buru-belarri lanean gabiltza gaia argituta eta ziurtatuta gelditzeko.

Erantzukizuna eskatzeko aldarrikapenak entzuten dira; hori tokatzen da kooperatiba bat izan arren?

Garrantzitsua da erantzukizunak ezagutzea. Hobe, hala eta guztiz, arduratasunari erreparatzea. Zein da arduraduna? Entzuten diren iritzietan ematen du errudunak kooperatiba kanpoan daudela, eta hori, nire iritziz, ez da horrela, kooperatiban nork bere ardurak dauzka. Hemen gertatu denak merkatuarekin dauka zerikusi handia. Fagor Etxetresnek gauza asko egin dituzte ondo egoerari aurre egiteko: lanpostu murrizketak, soldata jaitsierak... baina ez da, tamalez, nahikoa izan. Hortik aurrera, lehenengo, etxe barrura begiratzea komeni da, biktima paperetik ardurara pasatuz. Gero, behar bada, albora eta kanpora begiratu beharko da, ikusiz eta galdetuz lehenengo, kritikatu eta exijituz gero. Benetako onura ekarriko duena, errudunak aurkitzen ibiltzeak baino gehiago, denok konponbideak bilatzen jartzea izango da.

Kooperatibismoak indarrean jarraitzen duela berresten duzu?

Duda barik. Ezagutzen dudan eredu sozio-enpresarial aurreratuena da, bere "inperfekzioekin". Bestela, zer daukagu, kapitalismoa? Egin beharko genukeena da geurea defendatu, gure alde borrokatu. Entzuten diren ahotsek haserrea eta amorrua erakusten dute, eta gaurko egoeran ulertzekoak izan daitezke, baina seguru nago pertsona asko daudela gertatutakoaz hausnarketak egiten eta ereduaren balioarekin ados daudenak.

> "Egin beharko genukeena da gurea defendatu, gure alde borrokatu"

> "Indartuta aterako gara egoera honetatik, nahiz eta zaila dirudien"

Inpaktuaren arabera ere egon dira hitzaldi "katastrofistak", asko interesatuak, zalantzarik gabe. Zer esanik ez Arrasaten eta bailara osoan kaltea nabarmena dela. Basaurin eta Azpeitian ere berdin. Urruntzen joan ahala gutxiago. Mondragon talde barruan Fagor Etxetresnen salmentak %8 edo %9 dira. Eta Konfederazioari buruz esan behar da beste kooperatiba asko daudela Mondragonetik kanpo, nekazaritzarekin eta elikagaiekin zerikusia dutenak, hezkuntzakoak (ikastolak...), garraiolarienak, eta abar. Hortaz, orokorrean ikusita, Fagor Etxetresnak osoko zati bat da, handia bakarrik ikusita, baina zati bat da. Beste gai bat da irudiari egin diezaiokeen kaltea. Ni ziur nago onik aterako garela egoera honetatik, denok lanean jartzen bagara irteerak bilatzen. Indartuta irtengo gara egoeratik, nahiz eta gaur zaila egin horrela ikustea.

Herritar eta kaltetuei mezuren bat bidali nahi?

Federazioaren, Konfederazioaren eta Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenaren animoa eta solidaritatea transmititu. Fagor Etxetresnetako bazkideei eta familiei, lehenik eta behin, baina baita beste kooperatibetakoei ere. Denok gara eredu kooperatiboaren atal bat, eta denok beharrezkoak. Ea egoera honetatik ikasten dugun berriz gerta ez dadin.

Gisasola: "Bizpahiru hilabetetan mila langile baino gehiagori irtenbidea bilatuko diegu"

Oraindik ere zehazteke dago noiz sartuko den Fagor Etxetresnak hartzekodunen konkurtsoan

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Fagor Etxetresnei buruzko hainbat azalpen eman ditu Txema Gisasolak, Mondragon Korporazioko presidenteak, Vocento eta Grupo Noticias taldeek atzo egin zioten elkarrizketetan.

Hala, onartzen du hartu behar izan dituzten erabakien ondorioz ez direla egun errazak izan. Azaltzen du negozioa mantentzeko kooperatibak 50 milioi euro eskatu zizkiola Korporazioari, baina Kontseilu Orokorrak ez zuela bideragarria ikusten aurkeztutako proiektua eta ordura arte kooperatibarekin egindako esfortzuak (300 milioi krisi garaian, horietatik 145 azken hamalau hilabeteetan) bide horretatik jarraitzea eragozten zuela.

Txema Gisasola. | TULANKIDE

Hartzekodunen konkurtsoa

Hartzekodunen konkurtsoaren inguruan, Txema Gisasolak dio oraindik ere aztertu egin behar dutela zein izango den Korporazioaren jokabidea, baina azpimarratzen du konkurtsoaren bilakaeraren inguruan Fagorrek edo Mondragonek baino zeresan handiagoa dutela epaileek eta administratzaileek.

Enpleguaren berreskurapena

Enpleguari dagokionez, azaltzen du, 2013-2016 urteetarako plan korporatibo bat dagoela, eta bizpahiru urtetan Fagor Etxetresnen itxierak suntsituko duen enplegu garbia berreskuratuko dela uste du.

Fagor Etxetresnetako kooperatibisten egoerari buruz, dio bizpahiru hilabetetan 1.000-1.200 langileri irtenbidea bilatzea aurreikusten dutela: "Beste kooperatibetan 700 pertsona birkokatzeko lekua dago, eta beste 300 aurre-erretiroa hartzeko moduan daude. Horrek lehenengo txanda honi erantzun azkarra emateko aukera ematen digu". Korporazioan urtero 500 pertsonak erretiroa hartzen dutela gaineratzen du.

Bazkideak eta zorra

Bazkideek Fagorren zorraren aurrean zenbaterainoko ardura duten galdetuta, Gisasolak esaten duenaren arabera, egindako analisi juridikoek eta kontsultek diote bazkideen ardura enpresan duten kapitalera mugatzen dela: "Baina instituzioekin lanean dihardugu gai honen gainean egon daitezkeen zalantza guztiak uxatzeko".

Negozio errentagarriak

Fagor Etxetresnetan errentagarriak diren negozioen gainean zera dio Gisasolak: "Sakonean aztertu beharko dugun kontu bat da. Fagor Etxetresnak azterketa hori egiten dabil, eta guk Mondragon Taldetik lan horretan lagundu egingo diegu, izan ere, beti esan izan dugu etxetresna-txikiak, enkastre eta konfort lineak bideragarriak izan daitezkeela". Gai delikatua dela gaineratzen du, horrek espezializazioaren merkatura salto egitea esan gura duelako.

Azken ordukoak

Hartzekodunen konkurtsoan sartzeari dagokionez, oraindik ez dago data zehatzik, baina Arantza Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak zapatuan esan zuen "ordu gutxi barru" gertatuko zela hori. Sailburuak gainera, ekonomiaren eta lehiakortasunaren alde aritzen diren agente publiko eta pribatu guztiei Fagorren egoera liskarretarako ez erabiltzea ere eskatu zien.

Ordaindu kolektibokoak bestalde, Tapiarekin berarekin eta Juan Maria Aburto Enplegu eta Gizarte Politikako sailburuarekin elkartzekoak dira gaur laguntza eskatu eta kaltetuen "kinka larria" bertatik bertara azaltzeko. Ordaindukoek, era berean, kaltetuekin eguenerako (hilak 14) egin dute hitzordua egoera aztertzeko. Bi deialdi egin dituzte: 09:30etan eta 11:30etan.

Ekintzaileendako bi laguntza mota bideratuko ditu Garapen Agentziak

Eskaerak lehenbailehen egin behar dira, hilaren 15ean, egubakoitza, bukatzen delako epea

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Enpresa-ideiak dituztenendako eta aurrera irten daitezkeen jakin nahi dutenendako, edo aurrera eroatea erabaki dutenei eta horretarako baliabideak behar dituztenendako laguntza deialdiak egin ditu Mankomunitateko Garapen Agentziak, Eusko Jaurlaritzak ipini dituen finantzazio-programen eskutik. Bietarako izen-ematea zabalik dago azaroaren 15era arte eta eskaerak Debagoieneko Mankomunitatean egin behar dira, 08:00etatik 14:00etara bitartean.

Deialdi bat enpresa-ideia berriak dituztenei zuzenduta dago, eta tutorizazio, aholkularitza eta laguntza emateko da, ideia hori bideragarria den azter dezaten. Laguntzak irauten duen bitartean, hileko 1.500 euroko dirulaguntza jasoko du onuradun bakoitzak.

Beste deialdia enpresa-proiektua eginda daukaten eta hori martxan jarri nahi dutenendako da. Haiek 750 euro jasoko dituzte lehenengo hiru hilabeteetan enpresa martxan jartzeko, eta beste 750, enpresari alta ematen diotenean.

Baldintzen artean hauek daude: Debagoienean erroldatuta izatea; langabea eta enplegu-eskatzaile gisa Lanbiden izena emanda egotea; negozio-ideia titulartasun eskualdatze hutsa ez izatea; bezero bakar batendako lanik ez egitea; eta aurretik autonomo gisa izena emanda ez egotea.

DATUAK

4
EGUN
Hemendik lau egunera –azaroak 15– bukatzen da eskaerak aurkezteko epea, Debagoieneko Mankomunitatean.

1.500
EURO
Enpresa-ideiaren bideragarritasun proiektua egiteko, hileko 1.500 euro jasoko dituzte onuradunek.

2014an, enpresak martxan

Debagoieneko Mankomunitateko arduradunek eskaerak lehenbailehen aurkeztera animatzen dute. Dirulaguntza programa horiek zeudela jakinda, Mankomunitateak eskaera egitea erabaki zuen; eta orain, Eusko Jaurlaritzak ebatzi egin behar du zenbateko dirulaguntza ipiniko duen Mankomunitateak bideratu dezan. Ebazpen hori jasotzen denean jakingo dute arduradunek zenbat proiekturako laguntza dagoen. Mankomunitateak aurkeztutako eskaera guztien artean hautaketa egingo du, esandako baldintzak kontuan hartuta, eta gero, hautatutakoek egin beharko diote dirulaguntza eskaera Eusko Jaurlaritzari. Behin betiko onespenak ekintzaile berriei abenduan jakinarazteko moduan egotea espero du Mankomunitateak. Proiektuak abian jarri beharko lirateke 2014ko lehenengo hiruhilekoan.

Laguntza eske joaten diren guztiei erantzuteko moduan egoteko nahia agertu dute Mankomunitateko arduradunek, joaten direnean joaten direla, baina dirulaguntza programa zegoela jakinda, hura bideratzea eta baldintzetara egokitzea erabaki zuten.

Jose Luis Azkarate | LKSko kidea

"Etxebizitzetako bizilagun komunitateak bezala izan behar dira industrialdeak"

Industrialdeak gaizki zainduta daudela ohartarazten du LKSko Jose Luis Azkaratek

L.K. | ARRASATE

LKSko arkitekto urbanista da Jose Luis Azkarate. Industrialdeek bizi irauteko, lehenengo pausoa enpresek eman behar dutela defenditzen du.

Jose Luis Azkarate. | TU LANKIDE

Industrialdeak ez daude egoera onenean. Zergatik?

Krisiak askotan egon izan dira, larriak, baina ez daukagu industrialdeak zaintzeko kultura egokirik, dakigu hazten eta hazten, eta industrialde berri ugari egiten dakigu, baina ez gara konturatzen sintoma larri batzuk daudela, zahartu egiten direla.

Zergatik gertatzen da hori?

Fabrika baten makina batek lan egiten duen moduan, industrialdea lan handia egiten duen infraestruktura bat da; eta bizi -zikloa oso bizkorra dauka, ez baldin bazaio behar den mantenua egiten ez du hainbeste irauten. Industrialdeek duten adina baino zaharragoak ematen dute, oso zahartuta daude. Iparraldean haiek zaintzeko kultura handiagoa dago, eta hemen, berriz, mantenu kulturarik apenas daukagu. Mantenu falta horregatik gauza piloa galdu egiten dira. Bi ikuspegitatik ikasi behar da: ikuspegi publiko bat dago, interes publikoa, herri moduan, eta bestetik, interes pribatua, enpresena, eta biendako erronkak daude.

Zein izango litzateke jarraitu beharreko eredua?

Lehenengo pausoa enpresak eman behar du. Industrialdea komunitate bat da, etxean moduan: denok dakigu teilatua, igogailua, aurrealdea... garbitu egin behar direla, eta antolatu egiten gara, eta legea ere badago horretarako, baina industrialdeetan ez dago halako kontzientziarik. Kontzientzia hori hartzea eta antolatzea behar da, gobernantza pixka bat egotea industrialdeetan, eta jakitea aldameneko arazoa askotan norberaren arazoa izaten dela, eta aldameneko aukerak denonak direla. Hori oso inportantea da.

GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

Euskadi, Kubako merkatuaren bila

Gipuzkoako Bazkundea buru izanik, Eusko Ganberak Kubara itzuli ziren joan den astean, euskal enpresak hango merkatura gerturatzeko asmoz. 34 euskal enpresa izan dira Habanako 31. FIHAV azokan. Gipuzkoako Bazkundearen esanetan, Kubako antolaketa ekonomikoan "pixkanaka aldaketak ikusten hasten dira". Horren adibide, uztailean martxan jarri zen nekazaritza eta abeltzaintza produktuen lehen merkatu handizkaria.

IRPH ordezka dezaten eskatu dute Batzar Nagusiek

L.K. | ARRASATE

EAJren, PSEren eta PPren botoekin onartu zuten Batzar Nagusiek joan den eguazteneko osoko bilkuran EAJk eta PSEk adostutako proposamen bat, kreditu-erakundeei eskatzea bezeroen "kalteberatasun egoerei" kasu egin, eta, IRPH eta CECA hipoteka-indizeak dituzten kasuetan, haiek ordezka ditzaten. Aralarrek eta Bilduk aurkeztutako proposamena ez zen onartu; bertan, Gipuzkoako entitateei eskatzen zieten "berehala" alda zitzaten indizeok.

Azaroaren 1ean bukatu zen Espainiako Bankuak indizeak aldatzeko eman zuen sei hilabeteko luzapena. IRPH Stop elkartekoek salatu dute Kutxak eta Kutxabankek "bere horretan" segitzen dutela.

Inoizko esportazio-marka onenarekin buka dezake Euskadik 2013. urtea, joerari eusten badio

EAEko produktuen atzerriko salmentako urte arteko aldakuntza %26,6 izan zen abuztuan, azken bi urteetako emaitzarik biziena. Aurtengo lehen zortzi hilabeteetako kopuru metatua (13.843 milioi euro) serie historiko osoko bigarren handiena da. 2013ko azken hilabeteetan salmenten susperraldia indartzen bada, aurtengo urteak euskal esportazio kopuru handiena izango luke.

BEZaren igoeraren eragina desagertu ondoren, % 0,7ko inflazioarekin bukatu zen iraila

KPIaren urte arteko tasa %0,7an kokatu zen irailean, aurreko emaitza baino puntu oso bat beherago. Kontsumoko salneurrien urte arteko igoeraren zati handi bat 2012ko irailean indarrean sartu zen BEZaren igoerak eragin zuen, gerora apalduz joan den eragina. Horrez gain, KPIaren atal gorabeheratsuenek ere, hain zuzen energiako ekoizkinek eta elikagai freskoek, lagundu dute inflazioa apaltzen.

Garapen bidean dauden ekonomiek bizitasuna galdu dute eta Europak, aldiz, berreskuratu egin du hura

Txina izan ezik, garapen bidean dauden herrialdeetako ekonomiak bizitasuna galdu du, eta, aldiz, abantaila berreskuratu dute Europak, Japoniak eta AEBek. Europan, ekonomia indartsuena Erresuma Batuak du: haren BPG %0,8 handitu zen aurreko hiruhilekoa ezkero eta %1,5eko gehikuntza du urte artekoan. Espainiaren BPG %0,1 handitu zen, atzeraldi teknikotik irteera markatzen duen datua.

Pedro Etxebarria | Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteko idazkaria eta Basotxoko bazkidea

"Beti esan izan da Espainian diru mordoa gastatzen dela pentsioetan, baina gezurra da"

- Erretiratuek berriz kalera aterako dute pentsio-erreformaren aurkako protesta, azaroan
- Erreformarekin, bost urtean behin pentsioak jaitsi egingo direla azaltzen du Etxebarriak

LEIRE KORTABARRIA | ARETXABALETA

Basotxo elkarteko bazkidea eta Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteko idazkari orokorra da Pedro Etxebarria. Azkenaldian, pentsio sistemaren eta erreformaren gaineko hitzaldiak egiten dabil han eta hemen. Irailean egin zituzten kale-bilkurekin pozik azaldu da, eta azaroan beste bat egingo dutela esan du.

Lehenengo aldiz, Gipuzkoa osoko erretiratuak kalera irten zineten protesta egitera.

Bai. Pentsioek erretiratu guztiok batzen gaituzte, denoi eragiten digu, eta baita gure seme-alaba eta ilobei. 5.000 lagun irten ginen, eta hori asko da, baina garrantzitsuena izan zen 40 herritan baino gehiagotan kalera irten ginela. Eta azaroaren 28an berriz batuko gara udaletxeen aurrean, ez udalen aurka gaudelako, baizik eta politikariak udaletxean daudelako.

Erreforma badoa aurrera.

Desastre hutsa da. Kongresuaren azken osoko bilkuran, betiko gehiengoarekin, emendakin guztiak baztertu zituzten. UPNk eta Foro de Asturiasek ere ez dute bat egin Gobernuarekin. Bañez ministroak esan du ezin duela inorekin negoziatu, Europarekin betebeharrak dituztenez, abenduaren 31 baino lehen nola edo hala onartu behar dutelako erreforma.

Erosketa-ahalmen handiagoa galduko duzue...

Oraingoa sinestezina da, jakintsuen batzorde horrek gobernuari hark eskatu ziona eman diolako: irteerak, eta ez sarrerak ukitzen diren sistema bat. Goimatematikako formula batzuetan oinarritzen da. Batetik, KPIa formulan ipintzen dute, baina, benetan, emaitza ez da inoiz KPIra ailegatzen; KPIa aparkatuta geratzen da pentsioen balio-handitze indize gisa. Urteko balio -handitze koefiziente berriak denoi eragiten digu.

Balio-handitze faktorearekin batera, belaunaldi-arteko ekitate faktorea dago. Bizi-itxaropena gero eta handiagoa izatearekin du zerikusia. Erreformak esan duenez, gero eta gutxiago behar izango dugu, eta tokatzen zaigun pentsioa denbora luzeagoan banatuko digute. Bost urtean behin aplikatuko dute formula, eta, horren ondorioz, bost urtean behin pentsioak txikitu egingo dira, batez beste. Horregatik, gure seme-alabek guk baino gutxiago jasoko dute eta gure ilobek, are gutxiago.

Pedro Etxebarria, Basotxoren egoitza aurrean.

Formula konplexua da.

Ekitate-faktoreak eta balio-handitze faktoreak, biek, pentsioen iraunkortasuna bermatzen ei dute. Baina sistema iraunkorra izan dadin, ez lituzkete diru-irteerak murriztu behar, diru-sarrerak handitu baizik.

Horrekin lotuta, Espainian pentsioetan mordoa gastatzen dela esaten da beti, eta gezur hutsa da hori. Hara: 2007an, Espainiaren Barne Produktu Gordinaren %9,01 gastatu zen pentsioetan; Eurogunean, %12,2. Eta 2010. urtean, Espainian, %10,7; Eurogunean, %13,4. Adituek diote 2030ean Espainian %10,6 gastatuko dela eta Eurogunean, %12,2. Azken urteetan, Estatuko Aurrekontu Orokorretan desbideraketa txikiena izan duen diru -partida Gizarte Segurantzarena izan da.

Ordea, denok gaude sinistuta Espainian diru piloa xahutzen dela pentsioetan.

1995era arte, ez zegoen pentsio-fondorik; kotizazioen bidez jasotzen zenarekin ordaintzen ziren pentsioak. 1995ean, Toledoko Itunean, inork ukitu ezingo zuen fondo bat sortu zuten. Baina 1995aren eta 2010aren artean, 40.000 milioi euro desagertu ziren fondotik, eta ez dira berriz agertu. 2011n, PP berriz gobernura ailegatu zen, eta 7.000 milioi hartu zituen fondotik, bueltatzeko aginduarekin; baina 3.000 edo 4.000 itzuli ditu, eta gainerakoa ez da agertu.

Baina kontua ez da hor bukatzen: fondo horrek inbertituta egon behar du, modu dibertsifikatuan eta likideziarekin. Bada, fondoaren %95 Espainiako zorrean dago inbertituta. Espainiako zorrak hotza harrapatzen badu, kobratuko ez duen lehenengoa pentsio-fondoa izango da.

Erreforma horrekin, saldu dutena da beti handituko dela pentsioen balioa.

Nik Bañez ministroari entzun nion esaten pentsiodunak gero eta hobeto egongo ginela, beti jakingo genuelako zenbat kobratu behar genuen. Lotsa eman zidan hori entzuteak. Izan ere, beti kobratuko dugu KPIa baino gutxiago. Eta erreforma honen benetako helburua pentsio-fondo pribatuak sustatzea da: badakigunez gutxi kobratuko dugula, sar ditzagun sos horiek pentsio -fondo pribatu baten. Hori jendea beldurtzea da.

Beldurgarria da, benetan.

Eta Konstituzioaren aurkakoa ere bai. Oposizioak esan zuen, eta elkartekook ados gaude, Konstituzioaren 50. artikuluaren kontra doala. Honela dio artikulu horrek: *Botere publikoek pentsio egoki eta aldian behin eguneratutakoen bidez bermatuko dute herritarren burujabetza ekonomikoa hirugarren adinean.*

Behin eta berriro esaten digute pentsioak ordaintzeko adina ez dagoela.

1977an, gaur egungo erdia produzitzen zen, gaur egun baino askoz langile gutxiagorekin. Krisia alde batera utzita, Espainiako ekonomiaren produktibitateak ekarri du askoz gehiago ekoiztea askoz jende gutxiagorekin. Orain langile gutxiago badago, kotizazio gutxiago dago. Baina 77an bere ekarpena egin zuen jendea orain erretiratuta dago, eta orain esaten digute ez dagoela guretako adina diru. Baina nola ez da egongo, aberastasun piloa sortu bagenuen eta orain horren bi halako produzitzen ari badira?

Kapitalizazio sistema solidario baten alde zaudela esan izan duzu.

Lagun Arorena, adibidez, kapitalizazio-sistema bat da: hainbeste ipintzen duzu, hainbeste tokatzen zaizu. Gu sistema solidario baten alde gaude, denek ezin dutelako hainbeste diru pilatu. Edozelan ere, Europako herrialde batzuetan, pentsioak ez dira kotizazio bidez ordaintzen, zergetatik baizik; beste batzuetan, sistema mistoak daude, kotizazio eta zerga bidezkoak. Espainian, sarreretan sartu beharko lukete eskua. Erretiratuon produktibitatearekin, piloa ekoiztu izan da; bada, har dezatela hortik pixka bat eta sarrerak elika ditzatela, zerga bidez.

Zuen mezua argia da: pentsioak ukitzen dituenak ez du zuen botoa jasoko. Kontzientzia hori erretiratu guztiek izango ote dute?

Gaur egun, PPk bakarrik defendatzen du erreforma hori, baina bozketan abstenitzen dena ere gure aurkako boto gisa hartuko dugu. Mobilizazioekin, gure helburua da erretiratuari gogoraraztea oraindik protagonista dela eta botoa duela. Pentsiodun asko prekarietatean bizi dira; gaur egun, erretiratu asko bizi dira 700 euro baino gutxiagoko pentsio batekin.

Beste gehiengo politiko batzuekin legea bertan behera geratuko dela uste duzu?

Nik ziurtzat joko nuke legea aldatu egingo dela. Baina erretiratuon aurkako erasoa ez da oraingoa; Zapaterok izoztu zituen pentsioak, eta Toledoko mahaian esan zuen noizbait kontuan hartu beharko zela bizi-itxaropena. Orain PSOE PPren aurka dago, baina Zapaterok ere kapitalari men egin zion.

"Gure seme-alabek, ilobek... guk baino askoz gutxiago kobratuko dute"

"Diru-irteerak ukitu beharrean, sarrerak handitu beharko lituzkete"

"Azaroaren 28an berriz irtengo gara kalera protesta egitera"

"Orain PSOE PPren aurka dago, baina Zapaterok izoztu zituen pentsioak"

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA
TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

NAGUSIENTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

SAROAN
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 19 – 8. bulegoa
Tel.: 943 10 90 80 - www.saroan.com

NUTRIZIOA

LOREA ARANBURU (MEDIKU NUTRIZIONISTA)
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 72 16
Bergara / Ramon M. Lili 2, behea / 943 76 59 39

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA
Bergara / 646 06 28 18
arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE
Arrasate / Uarkape kalea 14, behea / 657720049

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

ZABALIK

ROSA MONDRAGON
http://goiena.net/iritzia/

Denda zabalik, herria bizirik!

Pasa den astean estreinatu zuten Kintelena denda berritua. Aramaion notizia handia izan da, guztion ahotan ibili dena. Bi hilabete izan dira denda barik, zain geunden!

Tarte honetan, batek baino gehiagok faltan bota du goiz partean egiten zuen bueltatxoa, dendan eguneko erosketak egitearekin batera, batekin eta bestearekin hitz egiteko aprobetxatzen zuen unea.

Beraz, bizitza sozialean ere izan du eragina!

Hilabete hauetan ez dugu aukerarik izan erosketak herrian bertan egiteko, nahiz eta ekonomatoa irekita izan den bertako barazki eta fruituekin eta okindegian ere, ogiaz aparte, beste produktu batzuk izan ditugun salgai.

"Ezinbestekoa da bertakoek iniziatiba izatea, negozioak irekitzea..."

Hala ere, kasu askotan inguruko herrietara joateko beharrean izan gara.

Atzean geratu da herrian hiru denda edota gehiago zeudeneko argazkia!

Gutxik gogoratzen dute Rodero, Txatxur, Padilla harategia, Mendialdua denda, Poliko taberna, La Riojana taberna, Elixoste ostatua, estankoa... eta seguruenik laster gutxik gogoratuko dute Kuku denda, Goiko taberna... orain dela urte gutxi itxi direnak.

Atzerago begiratuta, negozio ugari izan da herrian azken ehun urteotan: Jauregi autobus konpainia, Manzano esne saltzailea, Danielen oinetako konponketa, Arana jostunak, Garaiku gizonezkoen bizargilea... (seguru norbait kanpo utzi dudala) guztiek herriko historia idatzi dute, urtetik urtera, bakoitzak bere ekarpena egin du/digu.

Herria bizirik mantentzeko ezinbestekoa da bertakoek iniziatiba izatea, ekintzaileak izatea... negozioak irekitzea, berritzea... herrian bertan zein auzoetan...

Horregatik, eskerrik asko Kinteleneko Arantxari (eta bere familiari) urte askotan eman digun zerbitzuagatik eta eskerrik asko orain denda hartu duten Agirreurretakoei ere!

USTEAK USTE

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL | zvelez@goiena.com

Batera eta inkomunikatuta

Telefonora itsatsita bizi gara, horixe da Paris aldetik ekarri dudan sentsazioetariko bat. Lehen aparailua belarriari pega-pega edukitzen bagenuen, orain eskuek hartu dute erreleboa. Ohiko ikuspegi bati buruz ari naizela pentsatuko duzue, baina bi milioi biztanle baino gehiagoko hirian atentzioa ematen du egoerak: gazteak zein helduak, bata besteaen ondoan, elkarrekin, baina inkomunikatuta. Mezu positiboak bidaltzen saiatzen direnak ere topatu ditugu, zorionez; horietariko bat, Montmatre auzoko ostatu batean: *Taberna honetan ez daukagu wifirik, hemen jendeak aurrez aurre egiten du berba.* Ea, ba, kasu egiten diogun horrelako egoerara ez iristeko!

KALE INKESTA

Parte hartu duzu noizbait boluntario talderen batean?

MARIA AZKARATE
ARRASATE

"Bai. San Juanetako txosnetan ibili izan nahiz lanean, herriko jaietan laguntzatxo bat emateko".

BITTOR ARRIARAN
ARRASATE

"Mondrako Futbol Taldeari laguntzen ibiltzen naiz. Asko disfrutatzen dut umeak kirola egiten ikusteaz".

ADELAIDA SANCHEZ
ARRASATE

"Ez. Hala ere, ingurugiroarekin harremana daukan lan boluntarioak gustora egingo nituzke".

ANDONI PEREZ
ARRASATE

"Bai. Arrasateko Atletismoko Taldean ibili naiz, haurrekin. Pertsona moduan asko betetzen nauen jarduera da".

HANDIK ETA HEMENDIK

Emanaldi bakarrarekin

Aritz Galarraga
berria.info/blogak/ekografiak/

Ez dakit zenbat emanaldiko tartea eman behar zaion telebista saio bati bere horretan berretsi edo etxera zuzen bidaltzeko.

Zalantzan nengoen bi emanaldi aski ote ziren ETB2k estreinatu berri duen *Implicada* saioa tentuz juzkatzeko.

Baina bi emanaldiak izan dira tumatxak –ei, lasai, saioaren aurretik jada erabiltzen genuela adjektiboa–:

Erakutsi digute gertuko errealitate ezezagunetan nola sartu den Ana Urrutia eguraldi aurkezlea, hemendik aurrera *La Tempi* edota *Chochete* ere deitu ahal izango duguna –oraintxe ulertuko duzue zergatik.

Ijitoen kulturari buruzkoa izan nahi zuen lehenak.

Ea, egin dezagun ariketa:

Ijitoez ari garela, zer erakuts dezakegu telebistan?

Ijito ezkontza bat; ondo.

Meza ebanjelari bat; primeran.

Azoka bat; bikain!

Zertarako burua gehiago estutu, ezta?

Gaizki diot, gai labainagoak ere hunkitu zituzten, adibidez politika.

Ijito batek:

"EAJkoa naiz, itsu-itsuan".

Urrutiak:

"Independentista?".

"Tira, hainbesteraino ez", ijitoak —ez al dizu esan EAJkoa dela?.

"Elkarrekin indartsuagoak gara".

Kazetaritza ikuspuntutik oro har zen saio kaskar xamarra, galdezka ea oraindik ezkontzetan emakumeei egiten zaien zapiaren froga.

Argi dago ez duela ikusten Cuatro kateko *Palabra de gitano*.

Kontuan hartzekoak, halaber, saioa editatzean tartean sartzen dituzten Urrutiaren oharrak.

Auzolotsaren mugan:

"Nik jarraitzen nuen nire gurutzada feministakin", egiteagatik galdera pare bat emakume ijitoen gainean.

Gurutzada feminista bat egin nahi bazuen aski zuen bigarren saioan emakumearen gorputzaren erabilera kritikoki aztertzea.

Baina horren ordez parte hartu zuen emakumeak objektu gisa erabiltzen dituen hainbat ekitalditan.

Erotismoaz omen zen saioa.

Estutu dezagun burua berriz:

Argazki erotikoen saio bat, barra amerikarreko klase bat, azpiko arropa erakusteko desfile bat.

Dena halako hausnarketekin:

"38 taila izateak ez du derrigor esan nahi erotikoa izatea".

Eta ipur-masail, izter, paparreko irudi dosi justuekin.

Pasa gabe, euskaldunak garela.

Irakaspen gisara, hauxe:

"Norberak bere gorputzarekin egin dezala nahi duena".

Eskerrik asko, Ana Urrutia, baimena emateagatik.

Zalantzan nengoen bi emanaldi aski ote ziren *Implicada* saioa tentuz juzkatzeko.

Baina uste dut badaudela emanaldi bakarrarekin etxerako bidea hartzea hobe luketen telebista programak.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Xabier Urzelai
Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

ARRASATE

Bedoñar nortasunaren mende erdia ospatu guran

- Lehen ekintzak Bedoñako inguruak ezagutzeko irteerak izango dira
- Elkarteak auzotarrekin ez ezik, ingurukoekin ere ospatzeko asmoa dauka

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

"Auzo baten bizitzak hiru hanka behar ditu: eliza, taberna eta elkartea". Argi dauka Tomas Garai kideak, duela 50 urte Loramendi Elkartea egiten hasi zirenean Bedoñak behar zuen hirugarren hanka hori eraikitzen hasi zirela. "Arrasatetik Kasino edo Udalpe bezalako elkarteen eredutik sortu genuen gurea" eta garai batean bedoñar izatea elkarteko kide izatearen sinonimoa zen. "Kontua da auzoan ez zegoela lagunekin ehiza osteko afariak egiteko, batzarrak egiteko... tokirik eta akaso horregatik, oso denbora gutxian auzoko bizitzaren erdigunea bihurtu zen", azpimarratzen digu Garaik.

Orain, 50 urteren ostean, kontu guzti horiek, eta etorriko direnak, ospatzeko garaia iritsi da. Mende erdian gertaera eta istorio mordoxkaren testigu izan da Loramendi. Auzoan gertatzen zen guztia bertan islatzen zen, baina Garaik hanbait kontu azpimarratu gura izan ditu: "Elkarteak bere sorreran izan zuen babesa, emakumeak kide moduan onartu izana eta 75eko amnistia".

Ospakizuna omenaldi bat izateaz gain, elkartea berriro ere maparen erdian kokatzeko aitzakia ere bada. "Egungo kideen ehuneko handi batek ez du auzoak gordetzen dituen altxor eta ondare zabala ezagutzen eta hori ere erakutsiko du", aipatu digu elkarteko presidentea den Andoni Iñarrak.

Bedoña ingurumen natural paregabean dago kokatuta. | AUZOTAR BATZORDEA

Gertuko historia ezagutu zuten

Euritarako prestatuta, 40 lagun elkartu ziren atzo goizean Kurtzetxiki ingurura igotzeko. Bi ordu eta erdiko ibilaldian tarteka geratzen joan zirela esan du Andoni Iñarrak: "Gerrako kontuak entzun ditugu, lubakiak non zeuden, esaterako. Gehienontzat kontu arrotzak ziren, eta ikasteko ere balio izan digu irteerak, beraz".

Harrobi ingurutik pasatuta, Bedoñarako bidea hartu zuten eta elkartean zain zuten salda eta haragiari esker, barruak berotu zituzten.

Lehenengo irteeran. | ANDONI IÑARRA

Lehen ospakizunak oinez

Mendiz inguratutako tokia izanda, lehen ekintzak inguruko maldetan egingo dituzte. Udazken eta udaberri partean auzoko lur nahiz bidexkek gordetzen dituzten altxorrak ezagutzera irtengo dira. Tomas Garairen gidaritzapean guztira lau egingo dituzte, "oso ibilbide errazak izango dira, familian egiteko modukoak".

Lehena atzo izan zen eta gainontzekoak eguraldiaren arabera "zehazten" joango dira. Data jakin ez arren, ibilbideak aipatu dituzte: "Galarrixa, Urkuluko urtegia eta Andramarizuri izango dira". Urtegiko ibilbidea ezagunena izango den arren, "goiko bidetik joango gara eta bertatik ikusten den parajea oso ederra da". Eta ziurrenik, esanguratsuena Andramarizurikoa izango da, "garai batean Bedoñatik baseliza horretara eskariak egitera joateko ohitura zegoen eta auzoko toki kuttun eta ezezagun horietako bat da".

Mendi irteera hauek, baina, ez dira negu partean egingo dituzten ekintza bakarrak izango. "Txokolate dastatzea, gaztaina jana, txarriboda, odoloste jana... ez ditugu ekintza guztiak finkatu baina negu garaian eta lagunartean egiteko ekintzak izango dira guztiak".

Egun handia udan

Urteurrena ospatzen hasi arren, jai egun potoloa uztailean ospatuko dute. "Uztailak 13 aukeratu dugu egun handi bezala", dio Iñarrak. Orduan auzotar guztiekin ospatzeko egitaraua antolatu dute: "Auzoa esnatzeko suziekin hasiko dugu eguna eta handi zein txikien jolasen ostean, meza eta dantzariak izango ditugu, goiza borobiltzeko, mokadutxo bat edo beste jango dugu". Egun handia iritsi bitartean, ziur, Bedoñan Loramendiren alde topa egiteko aukerarik ez dela faltako.

ANDONI IÑARRA
BEDOÑAKO LORAMENDI ELKARTEKO PRESIDENTEA

"Auzotarren laguntzarekin, Bedoña bizitza saiatzen gara"

JAGOBA DOMINGO

Noiz beteko ditu zehazki elkarteak 50 urte?
Zehazki San Ignazio egunean beteko ditu baina dagoeneko hasi gara urtemuga hori ospatzen.

Zergatik aurreratu duzue ospakizuna?
Bi arrazoigatik, batetik ospakizunak garaiz egin eta antolatu nahi ditugulako eta bestetik elkartea San Ignazio egunean ireki arren, aurreko udazkenean hasi zirelako hura eraikitzen.

Izena ere ez zen egun batetik bestera sortu.
Auzoan 1907an jaiotako olerkari baten omenez jarri zitzaion izena. Bera Juan Arana deitzen zen baina elkartea sortu zenean *Loramendi* ezizena erabiltzea erabaki zen.

Zenbat kide ditu elkarteak?
Egun 95 bat kidek osatzen dugu elkartea. Hasieratik gertatu zen bezala, auzoko bizitzaren gunea da elkartea. Egun, auzoko jaietan laguntzen dugu... elkartetik, nolabait esateko, auzoari biziberritzen saiatzen gara.

Txorbela Otxotekoak emanaldiko une batean, Harremaneko urteurrena girotzen. | IMANOL SORIANO

ARRASATE

Harremanen hogei urteak lagun artean

Urte hauetan kolaboratzen ibili direnak omendu zituzten Amaian

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Hogei urte hauetan bidelagun izan dituzten kolaboratzaileei eskerrak emateko festa egin zuen zapatuan Harreman Gobernuz Kanpoko Erakundeak. Amaia Antzokian izan zen ekitaldia, eta beste hogei urterako indarra hartu zuten.

Goikobalu Abesbatza, Arrasate Musikal eta Txorbela Otxotea izan ziren, besteak beste, Harremanen urteurrena girotzeko ardura hartu zuten taldeak. Antolatzaileak pozik zeuden antzokira gerturatu zen jende kopuruaz, Harremanen ibilbidea bertatik bertara ikusteko aukera izan zutelako. Festaren helburu nagusia, sortzaileei, kolaboratzaileei eta laguntzaileei eskerrak ematea zen, izan ere, Javi Ruiz de Muniainek onartu moduan, "Eurak gabe Harreman ez zelako posible izango".

Bideo proiekzioez lagunduta

Goikobalu Abesbatzak eman zion hasiera Vanesa Sanchez, ETB-ko aurkezleak, gidatutako saioari. Ondoren, 20 urtetan egindako proiektuen errepasoa egin zuten, gaztetxoen dantzek protagonismoa hartu aurretik. Ankur umezurztegiak eta Mozambiken egiten dabiltzan proiektuen bideoak ere proiektatu zituzten, eta Txorbela Otxotearen emanaldiaren ondoren, loreak banatu zizkieten laguntzaileei.

Ekitaldiak eman zuenaz oso pozik geratu ziren Harremanekoak, "Polita da ondoan izan ditugun laguntzaileak ikustea eta eskerrak eman ahal izatea. Gainera, gazte asko egon da ekitaldian, eta txikitatik ikasten dute zer den kooperazioa".

Gaztetxoen dantzek kolorea eman zioten ekitaldiari. | I.S.

Kolaboratzaileak omendu nahi izan zituen Harremanek. | I.S.

OÑATI

Libdub koloretsua, tratu onen alde

Zapatu eguerdian grabatu zuten libduba, *tratu onak kaleratzen dituen lerrora gehitu zaitez* lelopean. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako gaztetxo koadrila polita batu zen plazan, eta guraso batzuk ere animatu ziren. Grabazio aurrekoak izan zuen lana, behin jendea ondo kokatuta berehala egin zuten-eta grabazio koloretsua.

IMANOL SORIANO

IMANOL SORIANO

LEINTZ GATZAGA

Dorletako Amari eginiko opariak eta gaztain-jakiak nagusi San Milixan ferian

Baldintzatu bai, baina eguraldi txarrak ez zuen Gatzagako feria zapuztu; jendea ibili zen postuetan

ZURIÑE V.D.M. | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako frontoia euritik babesteko toki bikaina bilakatu zen atzo eta berogailuei esker jendeak gustura ikusi zituen San Milixan feriara bertaratutako artisauen lanak. Aurreneko begiratuan, batez ere jatekoak eduki zuen arrakasta; horien artean, Sorginek prestatutako taloek.

Eta kanpoaldean Alberto Altubek bitxikeriak kontatzen zizkien gaztaina protagonista zen postura bertaratzen zirenei: "Garai batetan biztanleen dietaren parte zen, eta ogia egiteko gaztain-irina erabiltzen zuten, baita galletak, pastak zein bizkotxoa egiteko" Eta entzun soilik ez, horiek dastatu ahal izan zituzten, gainera.

Txirrindularitzako bitxikeriak

Dorletako Ama txirrindulari taldeak, ostera, postua ipini eta urteetan zehar txirrindulariek Dorletako Amari opari moduan utzitakoak erakutsi zituzten. Ez zen bitxikeriarik falta izan, Joserra Agirreurretak azaldu zuenez: "Italiako Giroa 1975ean irabazi zuen Francisco Galdosen mailota, Ramon Mendiburu Fagorreko txirrindulariarena zein Olano eta Lejarretarenak...".

Sorginak taloak egiten. | Z.V.D.M.

Gaztainen postua eta atzean txirrindularitzarena. | Z.V.D.M.

Jendea artisauen postuak kuxkuxeatzen. | Z.V.D.M.

IKER DIEZ ITURRALDE
ZEANURI

"Musika instrumentuak egiten ditugu eta lehenengo aldiz etorri gara San Milixan feriara gonbidatuta. Oso herri polita eta azokako giroa ere bikaina. Tresna berriak eta antzinako beste batzuk ere ekarri ditugu".

BLANKI ARANA
LEINTZ GATZAGA

"Urtero moduan, Sorginak lan eta lan ibili gara. Feria gauza bat da, baina talo barik ez da giro, eta uste dut oso garrantzitsuak direla. Guk ahal dugun bezala animatzen dugu festa, eta oso gustura aritzen gara egiteko horretan".

SAIOA URIBE
ESKORIATZA

"Lehenengo aldiz etorri naiz feriara eta gehien gustatu zaidana musika tresnen postua izan da, batzuk jotzeko aukera izan dut eta. Talo apur bat jan eta gustura ibili gara, eta nahiz eta euria egin, jendea berdin-berdin etorri da".

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

ARRASATE

Katuei laguntzeko azoka

Kaonbi elkartea Arrasateko kaleko katuez arduratzen da –albaitari kontuak eginez zein adopzioak kudeatuz– eta zapatuan bigarren eskuko azoka egin zuen elkartearentzat dirua batzeko. Biteri plazatik igarotakoek poltsak, jostailuak, bitxiak eta beste erosteko aukera izan zuten eta bildutako diru guztia katuentzako izango da.

ARRASATE

Musika zapatu arratsaldea girotzeko

Zapatu arratsalde goibel eta umela alaitu zuen Arrasate Musikaleko Big Band taldearen kalejirak. Ibai-Arte merkatari elkarteak antolatutako Azaro Musikala ekimenaren baitan irten ziren kalera. Euria egin arren, aterpez aterpe ibili ziren eta musika erritmo alaiekin giroa berpiztea lortu zuten Big Bandekoek.

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Jokin Zaitegiren "ekarri aberatsa" laburtzen duen lana aurkeztu dute

- Jon Diazen liburuak Arrasateko seme kuttunaren obra hezkuntza arlotik lantzen du
- Paulo Iztueta editorearen arabera "hutsune handi bat betetzera" dator Diazen obra

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Jokin Zaitegiren lana eta lanarekin batera bere erbeste-ibilbide luzean emandako bizitza hobeto ulertzen lagunduko digula ziur nago. Batez ere zein testuinguru sozio-politikoan bizitzea eta lan egitea tokatu zitzaion ikasiko dugu, eta ez da gutxi". Hitz horiek izan zituen Paulo Iztueta (Berastegi, 1941) Utriusque Vasconiae argitaletxeko zuzendariak Jokin Zaitegiren inguruan egin den azken liburuaren aurkezpenan: *Jokin Zaitegiren ekarpenak euskal curriculumean*. Joan den eguenean aurkeztu zuten Jon Diazen (Legorreta, 1973) liburua; Jokin Zaitegiren bizitza eta "ekarri aberatsa" laburtzera datozen ia 300 orri. Ez zen jende larregi egon baina gerturatu zirenek adi jarraitu zituzten hizlarien azalpenak.

Iztuetak maila pertsonalean ezagutu zuen Arrasateko seme kuttuna: "Ezagutu nuenean 20 bat urteko mutiko bat baino ez nintzen eta esan dezaket berebiziko zirrara eragin zidala haren ezagutzak ondoko urteetan zehar". Besteak beste, Jokin Zaitegik euskaraz idazteko egindako ahalegina goraipatu zuen euskaltzale ezagunak: "Euskal gaiez erdaraz idazten zuten euskal intelektualak salatu zituen 1951eko idatzi baten". Joan Diazen lana "hutsune handi bat" betetzera datorrela esan zuen: "Jon Diazen lan hau hutsune handi bat betetzera etorri da, izan ere, hari buruzko lan gehienek ez dute agerian jarri izan Zaitegiren bizitza intelektualean ardatz izan zen lanbide akademiko berria; ez da aipatu izan haren ekarria irakaskuntzaren alorrean, ikastetxe mailan zein maila unibertsitarioan".

Jon Diaz eta Paulo Iztueta eguenean Kulturaten egindako aurkezpenean. | JOKIN BEREZIARTUA

Jokin Zaitegi Rosell artzapezpikuarekin. | ITURRIA: UTRIUSQUE VASCONIAE


Jokin Zaitegi. | ITURRIA: UTRIUSQUE VASCONIAE

Zaitegi, hezkuntza alorretik

Liburuaren egileak azaldu zizkigun liburuaren nondik norakoak: "Hezkuntzaren alorretik hartzen dugu Jokin Zaitegiren bizitza, obra eta ibilbidea. Zaitegiren bizitza aztertzen dugu sakonean, urratsez urrats. Profesionalki zer egin zuen aztertzen du liburuak". Tesi formatuan egina dago eta tesi horren muinetik sortzen da eguenean aurkeztu zen liburua.

Tesia 2011rako gertu zuen Diazek baina argitalpenerako arazoak direla-eta 2013ko maiatzera arte ez du argia ikusi: "Azkenean lortu dugu ateratzea eta horregatik oso pozik gaude. Argi genuen aurkezpena Arrasaten izan behar zela, Jokinek duen protagonismoa ikusita bere herrian aurkeztu beharrekoa zelako. Udalaren laguntzari esker lortu dugu Arrasaten aurkeztea".

ESANAK

"Zaitegiren obra aztertzen du liburuak sakonean, profesionalki egin zuena"

JON DIAZ | LIBURUAREN EGILEA

"Ezagutu nuenean 20 urte nituen; zirrara handia eragin zidan"

PAULO IZTUETA | UTRIUSQUE VASCONIAE ARGITALETXEKO ZUZENDARIA

NIRE USTEZ

ENEKO BARBERENA

Moderniaren seme-alabei

Posmodernook gupidagabe egurtzen ditugu gurasoak, hots, moderniaren seme-alabak. Jon Sarasuak hiztunpolisean "belaunaldi nerabe" deitzen die. Edota gaineratzen du: "Modernitateko egia handien fededunez osatutako belaunaldi progresistak euskal kulturgintza osoa betetzen du garai honetan". Kantautoreak ere: "Belaunaldi moduan, nahi ez genuen guztia lortu dugu". Badirudi euskal moderniaren sinboloen erorketa (aro aldaketa) ez dela kasualitatea. Borroka armatuaren amaierak, Fagorren krisiak... ebidentziatu dute "modernoen" asmoen arrakalak uste baino sakonagoak zirela. Baina zer nahi zuten modernoek? Berriki Koldo Izagirrek dio: "Esperantza handia zegoen 1970eko hamarraldian. Galdera unibertsalak planteatzen genizkion gure buruari eta erantzun unibertsalak ematen saiatu ginen". Hezkuntzari, euskalgintzako materiala sortu eta banatzeari, telebista-egunkariei, lanari... erantzun nahi zieten. Posmodernook modernoen arrakalak ondo identifikatu ditugu. Zinikoak, ironikoak eta pittin bat krudelak izan gara eurekin. Erantzun partzialak emateko egitasmo konprometituak sortu ditugu, ideologikoki purutasun punttuaz, moderniaren "munstroekin" alderatuz.

"Iritsiko zaigu guri ere erantzun unibertsalak aurkitzea..."

Akaso moderniaren krisiari erantzuna partziala izan behar da, txikia, horrenbeste anbiziogabea. Baina goiz ala berandu, iritsiko zaigu guri ere erantzun unibertsalak aurkitzea...

Eta asmatuko dugun ala ez, hurrengo belaunaldikoek esango digute.

Urretxuko arte ikasleen lanak ikusgai Harresi aretoan

Urretxuko arte tailerreko ikasleen lanak ikusgai daude Harresi aretoan, hilaren 17ra arte. Egubakoitzean inauguratu zuten erakusketa. Astelehenetik zapatura 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara. Arrasate Margo Taldeak antolatu du, Urretxuko arte tailerreko kideekin eta hori gidatzen duen Aitor Etxeberria margolariarekin duten harremanari esker. Elkartrukean oinarritutako ekimen moduan planteatzen dute erakusketa eta beraz, aurrerago Arrasateko ikasleen lanak Urretxun jarriko dituzte ikusgai.

Hilaren 18an hasiko da Arte Tailaginen Elkartearen ikastaroa

Arte Arrasateko Tailaginen Elkarteak hastapenerako taila ikastaroa antolatu du. Hilaren 18an hasiko da eta 30 ordu iraungo du. Elkarteak Debagoieneko ospitalearen aurrean –Nafarroa etorbidea, 33– duen egoitzan elkartuko dira. Izena emateko 620 17 42 55 telefono zenbakira deitu behar da. Tailagintza ezagutarazi gura dute herrian; Jose Mari Etxabe elkarteko presidenteak honela definitzen du zaletasun hori:"*Slow* mugimenduarekin harreman estua du. Azkar eta prisarekin bizi den gizarte honetarako lasaitasuna da tailagintza, pazientziaz jarduteko zaletasun bikaina".

Kulturaten egin zuten mugikortasunaren eta irisgarritasunaren gaineko saioa. | TXATXILIPURDI

Haurrasate egitasmoaren gogoeta faseak ondorio interesgarriak utzi ditu

Lehen fasea amaitu eta ondorioak azaltzeko jaialdia egingo dute abenduan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Txatxilipurdik, Bagarak eta Huheziko Heldu ikerketa taldeak sustatutako Haurrasate ekimena forma hartzen dabil. Haurrak ardatz hartuta, Arrasate hobe baterako oinarriak finkatu gura dute egitasmo horrekin. Egin dituzte lehen gogoeta faseko hiru saio irekiak: espazio publikoak eta pertsonen ongizatea, irisgarritasuna eta pertsonen autonomia, eta haurren saioetan irtendako ondorioak eta esperientzia ezberdinen ezagutza.

Lehen saioa Monterron parkean egin zuten: "Espazio publikoez hitz egin nahi genuenez, aproposa iruditu zitzaigun betiko eskemetatik atera eta bestelako saio bat egitea", esan digu Txatxilipurdiko Gari Iturbek. Arrasaten espazio publikoak nola erabili izan diren hausnartu zuten: haurrek non jolasten zuten, kalea nola erabiltzen zen... Era berean lehen saio horrek balio izan zuen ongizateaz berba egiterakoan lehentasunak zeintzuk diren identifikatzeko.

Bigarren saioan mugikortasunaren eta irisgarritasunaren gainean gogoeta bat burutzea zuten helburu: "Urteekin oinezkoek lehentasuna galdu dute autoen mesedetan. Kaleak autoetan pentsatuta egin dira eta oinezkoek hainbat oztopo gainditu behar izaten dituzte mugitzeko". Iturberen arabera, irisgarritasunaren arloan ere bada zertan hobetu: "Zebra-bideen ikusgarritasuna, autoek espaloiak okupatzen dituztela... asko dago hobetzeko".

ESANAK

"Oinezkoek lehentasuna galdu dute autoen aurrean"

GARI ITURBE | TXATXILIPURDI

Ez da jolaserako herri aproposa

Joan den eguazteneko saioan ondorioztatu zuten, besteak beste, egun haurrek leku zehatz batzuetan bakarrik jolasten dutela, eta leku horiek ere hobetu behar direla. Ondorioztatu zutenez, Arrasate ez da jolaserako aproposa. Abenduan ezagutaraziko dituzte lehen fase honetako ondorioak, jaialdi batekin.

JOKIN BEREZIARTUA

Justizia soziala aldarrikatzeko elkarretaratzea Portaloian

Hileko lehen eguenetako ohiturari eutsiz, joan den eguenean ere justizia soziala aldarrikatzeko elkarretaratzea egin zuten Portaloian. 25 bat lagun elkartu ziren eta, besteak beste, honako mezuak erakutsi zituzten: *Fagor eta Edesa ez itxi!*, *Murrizketarik ez! Denon artean lortuko dugu!*, *Murrizketarik ez! Osasun publikoaren alde* eta *Arriba los de la cuchara, abajo los del tenedor... Berdintasuna!*.

Kooltur-en eskutik, Santa Rita taldearen zuzeneko "ukaezina"

J.B. | ARRASATE

Bartzelonako Santa Rita taldeak girotuko du eguenean gaztetxea (22:00), Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan. Cecilia Diazek –ahotsa–, Natalia Brovedanik –gitarra–, Martha Woodek –baxua– eta Laura Oliverasek –bateria– osatze dute taldea eta gurera datoz *High on the seas* disko berria aurkeztera. "Rock urgentea, dinamikoa eta zorrotza" eskainiko dute, zuzeneko "ukaezin" batekin.

Kooltur Ekintza taldeko Iker Barandiaranek Arrasate Irratian esandakoaren arabera, ez da oso talde ezaguna: "Ez da definitzeko talde erraza. 1990eko hamarkadako doinuak lantzen dituzte, Nirvanarekin batera irten ziren talde grunge haiek gogoratzen dituzte. Intentsitate handiko abestiak dira, oihuekin lagunduta. Adituek diote emango dutela zeresana". Zuzenekoan estudioan baino gusturago sentitzen den taldea da.

Guztiak emakumezkoak

Taldekide guztiak dira emakumezkoak eta hori ezaugarri berezia da, baita Kooltur-en dako ere: "Oso gutxitan izaten ditugu emakumezkoak agertoki gainean. Azaroan, baina, talde guztiak atzerrikoak izateaz aparte, hiru taldetan emakumeren batek jotzen du". Kanpotik datozen taldeak eta emakumeak protagonismo berezia izango du, beraz, hil honetan.

Santa Rita taldearen promoziorako argazkia. | ARGAZKILARIAXXX

Sare sozialek adingabeengan izan ditzaketen arriskuen berri ematen

J.B. | ARRASATE

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak 12 eta 18 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzendutako hitzaldia antolatu du etzirako. Prebentzio Zerbitzuak familia testuinguruak hobetzeko eta gurasoen lanari babesa emateko antolatzen dituen hitzaldien barruan kokatzen da saioa. Oraingoan sare sozialak izango dituzte hizpide, *Adingabekoak eta sare sozialak* izenburu izango duen saioan. Etorkintza fundazioko ordezkariak izango dira hizlariak; Kulturateko areto nagusian izango da, 18:00etan. Udalaren arabera, "oso interesgarria" izango da.

Seme-alabak gero eta gazteago hasten dira teknologia berriak erabiltzen baina gehienetan ez haiek eta ez gurasoek ez dute jakiten zelan egin aurre sor daitezkeen arriskuei. *Sexting*-a, *grooming*-a edo *ziberbullying*-a dira arrisku horien adibide garbi batzuk.

Jorratuko diren edukiak

Hainbat gai jorratuko dituzte: zeintzuk diren gazteek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak, sare sozialetan zein den gazteen perfila eta haien nortasuna, sare sozialen alde onak eta txarrak, jarraibideak eta baliabide praktikoak, kontuen pribatutasun mailaren diseinua, sare sozialetan harremanak izateko moduen inguruko hausnarketa eta *ziberbullying*-aren definizioa, besteak beste. Hitzaldia euskaraz izango da.

OHARRAK

1954AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 16an egingo dute bazkaria. Gaur da izena emateko azken eguna; 55 euro sartu behar dira 3035 0001 57 0011136855 kontu zenbakian. Honako bi telefono zenbakiak utzi dituzte antolatzaileek: 943 79 28 72 eta 650 06 00 23 (Itziar).

SUKALDARITZA TAILERRA

Debagoieneko Jardunaldi Gastronomikoen barruan sukaldaritza ikastaroa antolatu dute etzi, azaroak 13, Eroski supermerkatuan –barruan egongo dira, sarreran–. 18:00etatik 20:00etara izango da eta edonork har dezake parte.

Berria erosi baino gehiago, zergatik ez zaharra konpondu?

Kafekonpon-en bigarren topagunea asteazkenean izango da San Joxepe nagusien egoitzan, 16:00etan

Konponketei esker, etxetresna askok beste aukera bat izan dezakete. | GOIENA

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Udalak aurreko hilean martxan jarri zuen Kafekonpon izeneko egitasmoa, Europako beste hainbat lekutan *Cafe Repair* bezala ezagutzen dena oinarri hartuta. Proiektuaren helburua da berrerabilpenaren filosofia zabaltzea. Egitasmo horrekin, etxean baztertuta dauzkagun traste zaharrak konpontzeko eta erabiltzeko dei egiten du Udalak.

Udalak eta herritarrek sustatutako ekimena da. | TXOMIN MADINA

Hilean behin elkartuko dira San Joxepeko egoitzan, hileko bigarren martitzenetan (aspaldi ganadu feriak egiten ziren egun berbera). Bertan, konponketetan trebeak diren hainbat herritar batzeko asmoa dago, eta, herritarrekin batera, etxe guztietan dauden traste zaharrei edo hondatuta dauden etxetresnei irteera ematea da asmoa.

"Hau ikasteko ekimen bat da, bertaratzen garenok dakiguna partekatzen dugu eta honela lortzen dugu aparailua konpontzea", dio Iñaki Alberdik, Kafekonpon ekimeneko sustatzaileak. Hala ere, konponketen arloan ezer ez dakitenek ere ekimen horren ateak zabalik aurkituko dituzte: "Aditu edo pertsona trebeen arteko bilera bat baino gehiago, filosofia kontu bat da".

Txip aldaketa

Askotan, etxean dauzkagun tresna txikiak (plantxa, ile-lehorgailua, erlojua...) hondatu egiten zaizkigu eta berehala botatzen ditugu. Ez dugu segundo erdi ere ematen horiek konpontzen ahalegintzen. Berria erosi eta zaharra bota.

Horri buelta ematera dator Kafekonpon. "Iñakik ekimena aurkeztu eta gero herritarrentzako zerbitzu praktikoa zela iruditu zitzaigunez, aurrera egitea erabaki genuen", aipatu digu Maren Belastegi zinegotziak.

Lehen hitzordua aurreko hilean egin ostean, pozik daude ekimenaren sustatzaileak: "Guztia ez konpondu arren, parte hartzaileek etxetresna asko konpon daitezkeela ulertu dute". Izan ere, askotan, trasteek "oso konponketa erraza besterik ez dute behar izaten".

Bada, bigarren Kafekonpon hau ere, lehena bezala, ekimen irekia izango da, eta, mahai baten bueltan kafetxo baten laguntzarekin, matxuratutako bizikletak, plantxak... konpontzeko aukera egongo da.

ESANAK

"Jakintza gutxienekoa da, hemen garrantzitsuena asmoa da"

IÑAKI ALBERDI | BULTZATZAILEA

"Herritar orori zuzendatuko ekimen erabilgarria dela uste dugu"

MAREN BELASTEGI | ZINEGOTZIA

Bi egunez luzatuko dute kuboak jasotzeko epea, azaroaren 15era arte

Kuboak batzera joan ziren herritarren jarrera ona azpimarratu dute Udaletik

M.B. | BERGARA

Udaletik jakinarazi dutenez, bi egunez luzatuko dute hondakinak gaika batzeko kuboak jasotzeko epea. Azaroaren 13an, eguaztenean, amaitzekoa bazen ere, hilaren 15era arte, egubakoitzera arte, luzatzea erabaki du Udalak, "oraindik jasotzeko aukerarik izan ez dutenendako", Leire Iruin Ingurumen zinegotziak azaldu duenez. Horrekin batera, orain arte kuboak batzera joan diren herritarren "jarrera ona" azpimarratu du.

Herritarrak kuboak batzen. | TXOMIN MADINA

Osintxu eta Angiozar, bertan

Urriaren 29an hasi zen Udala Oxirondo azokan hondakinak gaika batzeko kuboak banatzen, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:0etara. Auzoka antolatutako egutegiaren arabera, gaur, astelehena, Bidekurutzeta, San Pedro, Zabalotegi eta Basarte kaleetako bizilagunak joango dira materiala jasotzera. Bihar, martitzena, Barrenkalea, Irala eta Simon Arrieta kaleetako bizilagunen txanda izango da eta eguaztenean, berriz, Angiozarko eta Osintxuko herritarrei banatuko diete. Angiozarren kasuan, bertako pilotalekuan egingo dute banaketa, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:0etara. Osintxukoen kasuan ere, auzoko pilotalekuan egingo dute banaketa, ordutegi berean.

NIRE USTEZ

YON SUINAGA

Gaindituko dugu!

1941. urtean Markina-Xemeinetik Arrasatera apaiz ezezagun bat heldu zen. Bere sotanarekin, handik hona ibiltzen zen bizikleta gainean 26 urteko On Jose Maria Arizmendiarrieta. Poliki-poliki, herriko gazteengana hurbildu zen bere pentsamendu eta balore berriekin. Haren sermoiak eskandalagarriak izaten ziren; demokrazia eta justizia sozial faltari buruz hitz egiten zuen.

Enpresaren antolakuntzak parte-hartzailea eta solidarioa izan behar zuela aldarrikatzen zuen eta sortzea beharrezkoa zela. Gazte haien geldiezintasuna eta sentikortasuna esnatu zen, kooperatiben hazia sortzen aitzindari haietan. 1956. urtean Ulgor, sortzaileen inizialekin izena, lehengo fruitua izan zen, Fagor taldearen eta Mondragon Korporazioaren enbrioia. Gaur egun 80.000 enplegu zuzen baino gehiago baldintza egokietan.

Kooperatiben arteko elkartasuna hasieratik landu zen. Adibidez, Fagor Arrasatek, orain 700 bazkide baino gehiagorekin, ni barne, taldearen laguntzari esker 80ko hamarkadako krisia gainditu zuen. Gaur, taldeko Bandera-Ontzia, Fagor Etxetresnak, hilzorian dago. Zoritxarrez, hartutako neurriak eta taldetik jasotako laguntzek ez dute berriz flotarazi.

Garai zailak eta gogorrak tokatu zaizkigu bizitzea; gogor eta bat eginez lan egin behar dugu. Zutabe hau idazterakoan ez dira ezagutzen azken erabakiak, baina... ahal da!

"Gogor eta bat eginez lan egin behar dugu"

Amaia Arriaranek emango du ahozko komunikazioa lantzeko ikastaroa. | GOIENA

Askotariko ikastaroak azarorako eta abendurako

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udalak eta Bizikasi zerbitzuak antolatuta, askotariko ikastaroak egongo dira datozen asteetan. Argazkilaritza izango da horietako bat, bi arlotan banatuta: batetik, oinarrizko argazkilaritza ikastaroa egongo da gaur hasi eta abenduaren 4ra arte, eta, Udaletik aurreratu dutenez, oraindik eman daiteke izena, kultura etxean (943 77 91 59). 24 orduko ikastaroa izango da, 19:15etik 21:15era, Pol-Pol argazki taldearen egoitzan, eta prezioa 50 euro da –30 ikasle, erretiratu eta langabeendako–. Bestetik, Photoshop bidezko argazkilaritza ikastaroa egongo da. Hastapen maila abenduaren 2tik urtarrilaren 2ra izango da, 19:00etatik 21:00etara, astelehenetik eguenera, Miguel Altunan. Sakontze maila, berriz, urtarrilaren 13tik 23ra izango da, 19:00etatik 21:00etara, astelehenetik eguenera, Miguel Altunan. Bietan ala bietan prezioa 40 euro da, –30 euro ikasle, erretiratu eta langabeendako– eta izena kultura etxean eman daiteke.

Bi ikastaroetan izena emanez gero, prezioa 60 euro izango da –50 euro ikasle, erretiratu eta langabeendako–. Plaza mugatuak izango dira eta lehentasuna izango dute herrikoek.

Elikagaiak nola manipulatu
Elikagaien manipulatzaile agiria eskuratzeko ikastaroa ere antolatu dute, zazpi ordukoa. Hil bukaeran egingo dute –egunak zehazteko daude–, bi egunean. Langileek eman dezakete izena, doan, Bizikasin (943 76 93 94).

Kustomizazio ikastaroa
Anezka dendan kustomizazio ikastaroa egiteko aukera ere egongo da. Eskolak azaroaren 19an eta 26an eta abenduaren 3an, 10ean eta 17an izango dira, 18:00etatik 20:00etara. Interesa duen edonork eman dezake izena Bizikasin (943 76 93 94) –plaza mugatuak daude– eta prezioa 15 euro da.

Ahozko komunikazioa lantzen
Ahozko komunikazioan hastapenak delako ikastaroa ere egongo da, eta, besteak beste, ipuin kontaketa eta jendaurreko aurkezpenak nola egin landuko dute. Eskolak Miguel Altunan izango dira azaroaren 20an eta 27an eta abenduaren 4an eta 11n, 18:00etatik 20:00etara. Irakaslea Amaia Arriaran izango da. Prezioa 10 euro da eta izena Bizikasin eman daiteke (943 76 93 94).

Oinarrizko informatika
Windows, Word eta Internet nola erabili ere irakatsiko dute. Eskolak azaroaren 18tik abenduaren 12ra izango dira. 40 orduko ikastaroa izango da eta izena Bizikasin eman daiteke (943 76 93 94).

OHARRAK

1970EKOEN BAZKARIA
Etxagi jatetxean egingo dute, azaroaren 23an. Arriznoa tabernan batuko dira, 13:00etan. Izen-ematea Sugoi dendan 943 76 59 54 telefono zenbakian, hain zuzen.

1935EKOEN BAZKARIA
1935ean jaiotakoek abenduaren 1ean egingo dute urteroko bazkaria. 14:30ean izango da, Azpeitxin. Izena emateko 12 euro aurreratu behar dira Laboral Kutxan, hilaren 16a aurretik.

1933KOEN BAZKARIA
Azaroaren 17an egingo dute bazkaria, Azpeitxi jatetxean. 12:00etan meza izango dute Santa Marina parrokian eta bazkaria 14:00etan izango da. Izena emateko 6 euro aurreratu behar dira Intxorta tabernan.

1942KOEN BAZKARIA
1963ko kintoek hilaren 23an egingo dute urteroko bazkaria, 14:30ean, Azpeitxin. Ohi bezala, bazkaldu aurretik talde argazkia egingo dute. Izena emateko 20 euro aurreratu behar dira, Laboral Kutxan, azaroaren 20a baino lehen, kontu honetan: 30350009130091144713.

Jon Olivares | Osintxuko auzo alkatea

"Aurten ere saiatu gara ekitaldi anitzeko egitaraua osatzen"

Abenduaren hasiera bitartean, dokumentala, afaria, pailazoak, sorpresa eta gehiago izango dira Osintxun, 'Gaztañatan Azaroa' ekimenaren barruan

Jon Olivares. | ARRITXU BARRUSO

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Urtero moduan, ekitaldiz beteta etorri da *Gaztañatan Azaroa* ekimena Osintxura. "Klasiko bat bihurtu da dagoeneko, eta eutsi egin gura diogu", adierazi du Jon Olivares auzo alkateak.

Hitzaldia, pailazoak, ikus-entzunezkoa, afaria ... Denetarik dator udazkeneko egitarauan.
Saiatu gara, behintzat. Adin ezberdinetako herritarrendako ekitaldiak antolatzea izan da asmoa aurten ere. Urriaren 20an hasi genuen, Bergarako Musika Bandaren kontzertuarekin eta erretiratuen bazkariarekin. Egubakoitzean Kepa Aceroren hitzaldia izan genuen, eta abenduaren hasiera bitartean egingo ditugu gainerako ekitaldi denak. Egubakoitz honetan, esaterako, Azkaiter Pelox musikariak joko du Txuringon.

Nork batuko ditu gaztaina-janerako gaztainak?
Azaroaren 18an izango da hori, Animen Egunean. Herritar taldetxo batek du horren ardura. Eurak joaten dira gaztainak batzera. Sagardoa Herri Batzarrak jartzen du. Giro polita sortzen da benetan. Gauean, auzo afaria egongo da. Udazkenekok produktuek osatuko dute menua eta joan gura duenak Txuringo edo Euskalduna tabernan eman behar du izena.

Gerra zibil garaiko dokumentala ere egitarauan dator.
Bai. 1936 urtean fusilatu zituzten lagunetako sei osintxuarrak ziren. Dokumental hori udaberrian grabatu genuen, Intxorta 1937 kultur elkartearekin batera, eta osintxuar haiek antzezten hartu genuen parte hainbat bizilagunek. Auzoko familia askok dute lotura gai horrekin, eta jendea erakarriko duela uste dugu.

Poxpolo eta Konpainia pailazoek ez dute hutsik egingo aurten ere.
Ez, eta agian horixe da aurtengo

"Azaroaren 29ko ekitaldia sorpresa da, ezin da ezer aurreratu"

egitarauan sartzea gehien kostatu zaiguna, diruagatik. Iker Galartza eta gainerako aktoreak ere Osintxura etortzeko gogoz zeuden eta euren partea jarri dute eta asko eskertzen diegu.

Zer da 'Osintxuko artistak' dioen hitzordu hori?
Sorpresa da. Azaroaren 29rako antolatu dugu, baina ezin dugu gauza handirik aurreratu, sorpresa izango da-eta. Antzerkia, behintzat, egongo dela da esan dezakedan gauza bakarra.

Horixe izango da azken ekitaldia?
Ez. Abenduaren 3an Euskararen Eguna da eta horren bueltan ere antolatuko dugu ekitaldiren bat. Joan den urtean, esaterako, kantu-afaria egin genuen. Aurten, akaso, beste zerbait egingo dugu.

Azaroko kultur agendaz gain, beste zer du eskuartean Osintxuko Herri Batzarrak?
Hondakinak batzeko atez ateko sistemari lotuta, aurreko astean egin zuten ikastaroa auzo-konposta egingo duten herritarrek. Frontoi ostean dago egokituta horretarako tokia. Bestalde, eguaztenean jasoko ditugu hondakinak gaika biltzeko kuboak.

Etorkinekin lana egiteko proiekturen bat ere ba omen duzue.
Bai. Bergarako Udalarekin batera ari gara lantzen. Kanpotik

"Etorkinekin, elkar-bizitza proiektua lantzea da gure asmoa"

Osintxura bizitzera etorri direnekin elkar-bizitza proiektu bat lantzea da gure asmoa. Errekagarbiketa egunean 30 bat lagun elkartu ginen, bertakoak eta kanpotik hona bizitzera etorritakoak eta giro polita izan genuen. Oraintxe hasi gara aipatutako proiektu hori lantzen eta urtarrilean hartuko du forma.

Gabonetan ere pentsatu duzue?
Bai. Apaingarriak birziklatutako materialarekin egitea pentsatu dugu aurten, eta horiek nola egin ikasteko, tailerrak antolatuko ditugu.

Oñatiko Antixena gaztetxea. | I.G.

'Gaztetxean zer?' topaketa azaroko egitarau barruan

Eguaztenean ikas tailerra egingo dute Antixenako gaztetxean, 18:30ean

IRATI GOITIA | OÑATI

Oñatiko Antixena gaztetxean egitarau zabala antolatu dute azarorako: kontzertuak, ikas tailerra eta topaketa, besteak beste. "Pozik gaude azarorako antolatu dugunaz, oso egitarau betea gelditu da-eta", adierazi digu Oier Fernandezek, Asanbladako kideak.

Ikas tailerra eguaztenean

Eguazten honetan, hilak 13, ikas tailerra egingo dute. 1200eko EAEren konkistaren gainekoa izango da. "Testu bat irakurri eta ondoren guztion artean hori aztertu eta eztabaidatuko dugu", azaldu digu Fernandezek.

'Gaztetxian zer?'

Bestalde, hilaren 23rako, zapatua, topaketa antolatu dute *Gaztetxian zer?* izenburupean, 16:30ean. "Talde txikitan banatu eta gaztetxearen izaera, orain arte eginiko lana eta etorkizuna izango ditugu hizpide", esan digu Fernandezek. Gaineratu digu topaketekin jende berria ere erakarri nahi dutela, eta euren nahiak zeintzuk diren aztertu. Horrela, Kopla Eskolaz eta Irakurle Taldeaz gain, beste zein ideia berri dauden edo beste zein ekintza egin daitezkeen ere aztertuko dute. "Ez da oso luzea izango, 18:00 inguruan bukatuko da eta ondoren merienda izango dugu".

Batzarrak zapatuetan

Gaztetxeko jarduna antolatzeko zapaturo elkartzen dira, 11:30ean. "Jendea animatu nahi dugu parte hartzera".

EGITARAUA

AZAROAK 13

18:30: *1200eko EAEko konkista* ikasteko tailerra

AZAROAK 16

22:00: Dirty Brothers eta Papalagi taldeen kontzertua.

AZAROAK 23

16:30: *Gaztetxian zer?* topaketa.

AZAROAK 24

19:30: Napoka Iria taldearen kontzertua.

Udalak lizitaziora atera du haurrei zuzendutako hiru zerbitzuren kudeaketa

Txaloka ludoteka, udaleku irekiak eta haur eta nerabe etorkinen bertakotze programa, hain zuzen

I.G. | OÑATI

Haurrei zuzendutako hiru zerbitzuren kudeaketa lizitaziora atera ditu Udalak: Txaloka ludoteka, haur eta nerabe etorkinen bertakotze programa eta udaleku irekiak. Udalak urtebeterako kontratatuko ditu zerbitzuak, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin. Egun, AHT enpresak kudeatzen ditu hiru zerbitzuak.

Baldintzak

Lizitaziora aurkezten diren enpresek hiru gutun-azaletan aurkeztu beharko dute euren proposamena: lehenean, enpresariaren nortasun juridikoa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da; bigarrenean, egingo dituzten lanen azalpen memoria; eta hirugarrenean, eskaintza ekonomikoa. Azken puntu horri dagokionez, Udalak 97.200 eurotan ezarri du muga. Hala ere, eskaintza ekonomikoa ez da erabakigarria izango kontratua esleitzeko orduan, gehienez hogei puntu eskuratzeko aukera emango du-eta atal horrek. Eman beharreko zerbitzuaren proiektuak, berriz, 80 puntu.

Enpresak gizarte hezkuntza, pedagogia, psikologia, psikopedagogia edo irakaskuntza ikasketak dituzten langileak jarri beharko ditu. Ludotekan eta udalekuetan aritzeko aisialdi begirale titulua ere beharko dute. Eta horretaz gain, guztiek EGA edo hirugarren hizkuntza eskakizunaren mailako euskara ezagutza izan beharko dute.

Bada, interesa duten enpresek hilaren 19ra dute eskaintzak udal bulegoetan aurkezteko.

Berdintasunaren aldeko hitzaldia eguenean

Emakumeen erantzukizunen errealitatea zein den erakutsi nahi du Zaintza Kanpainak

ANDER LARRAÑAGA | OÑATI

Oñatiko Udaleko Berdintasun Sailak, parekidetasunaren aldeko urrats sendo eta trinkoak egiten ari den honetan, beste pauso bat eman nahi izan du, eta, horretarako, Zaintza Kanpaina izeneko sentsibilizazio kanpaina jarri du abian. Herritarrak zaintza lanetan berdintasun ezaren hausnarketa egitera bultzatzea da kanpainaren helburu nagusia (haurren eta aitaita-amamen zaintza lanak, etxeko lanak...); izan ere, lan horiek emakumearen esku daude kasuen %75ean.

Lekueren hitzaldia

Emakumeek lan horiek egiteagatik jasaten dituzten ondorioak aztertzeko hitzaldia antolatu du Berdintasun Sailak: eguenean, hilaren 14an, izango da hitzaldia Bidebarrieta kaleko 18. zenbakian, 16:15ean, berdintasun eta terapietan aditu Idoia Lekue hizlari dela.

'Bertsozale on baten manuala' izeneko hitzaldi didaktikoa eguaztenean, 19:00etan, kultura etxean

Oñatiko Bertso Eskolak antolatuta hitzaldi didaktikoa egingo dute hilak 13an, eguaztenena, kultura etxeko zinema aretoan. *Bertsozale on baten manuala* izango dute hizpide. Hala, ondorengo gaiak landuko dituzte, besteak beste: bertso bat egitearen prozesua, bertsolariaren eta bertsozalearen arteko konexioa nola lortu eta gai-jartzaileren lana. Antolatzaileen helburua da hitzaldira joaten direnen parte hartzea lortzea.

Lope de Agirreren hamabostaldiari amaiera emango diote bihar, Ambrose Goikoetxearen hitzaldiarekin

Oñatiko ARTaso taldeak antolatu duen Lope de Agirreren hamabostaldiaren azken ekitaldia egingo dute hilaren 12an, martitzena, kultura etxean. Ambrose Goikoetxeak hitzaldia egingo du. Lope de Agirreren historiarekin hasi eta gaur egunera arteko hainbat gai jorratuko ditu Goikoetxeak. Hala, orduko egoera gaur egungoaz alderatuko du, eta aholkuak emango ditu.

NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

Aurpegi hiztunak

Nahitaez gure izaera eta bizipenak aurpegian finkatuta geratzen zaizkigu. Badira beti haserrea erakusten duten aurpegiak, Autoestimu gutxi edo asko dutenak. Jenio bizikoak edo mantsokoak. Arduragabeak edo arduratsuak. Egoistak edo bihotz-zabalak. Barrukoa egiaz bizi dutenak edo itxura hutsean geratzen direnak... Badira tristuraren forma hartu duten aurpegiak, nekez, nahigabez eta etsipenez beteak. Gaitzaren presentzia bistaratzen dute. Ondoez eta bizi-ezinaz hitz egiten diguten aurpegi minduak dira. Badauzkagu luzaz begiratzea merezi duten aurpegi ederrak ere. Itxuraz zahartuak, mila arrastoz markatuak, desitxuratuak, baina alaitasun barea erakusten dute; zauriak maitasunean oratuak eta bakez jantziak dauzkate, eta konfiantzan oinarritutako begirada bizia dute. Sarritan, horietako batzuek zerbaiten edo norbaiten testigu diren susmoa uzten digute. Ez dira ezagunak, ez dute aparteko bizitzarik, ezta gizartearen begien aurrean arrakastarik ere. Sakontasun zabalez begiratu ezkero, beharbada, harriduraz eta esker onez zaharren egoitzako gurpildun aulkian aurkituko dugu bat, sukalde bazterreko lan isila egiten beste bat, baztertuen pauso berean lagun beste bat, lantegiko zalapartaren erdian beste bat... Ez dira asko, baina, zorionez, badira eta izango dira.

"Ez dira asko, baina, zorionez, izango dira"

ESKORIATZA

Eguenero elkartuko dira atez atekoaren kontra txistu egiteko

Eskoriatza Garbiak 'pintxo-pito' ekimena sortu du atez atekoaren aurka

ZURIÑE V.D.M. | ESKORIATZA

Eskoriatza Garbia plataformak deituta agerraldi zaratatsua egin zuten eguen arratsaldean herritik zehar. Kiroldegi ondoan elkartu ziren eta bertatik plazara abiatu ziren, txistuak ahoan eta poltsak eskuan. Udaletxearen parean bost minutuz txistuka eta oihuka aritu ziren. "Ea orain udalak entzuten digun", adierazi zuten Eskoriatza Garbitik. Ondoren, Dorletara joan ziren poltsatan zituzten kartoia eta plastikoa edukiontzietan sailkatzeko. Manifestazioari plazan eman zioten amaiera minutu bateko txistualdiaz.

Desobedientziarako deia

Eguenero elkartuko dira *pintxo-pito* deiturikoa egiteko. Desobedientziarako deia egin dute modu horretan Eskoriatza Garbia plataformako kideek.

Euren asmoa, etxean dituzten paper eta ontziak hartuta kalera irtetea eta protesta egitea izango dela eman du aditzera Josu Ezkurdia Eskoriatza Garbia plataformako kideak: "Atez atekoari ez esaten dugun bitartean, material horiek orain arte bezala birziklatuko ditugu".

Manifestazio zaratatsua egin zuten eguenean. | IRATI GOITIA

Etxeko zaborra beste auzoetako edukiontzietan botatzen. | IRATI GOITIA

Martxan daude Berbalagun taldeak eta berriak sortu gura dituzte

Z.V.D.M. | ESKORIATZA

Euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak; guztiek batera, une atsegin bat euskaraz igarotzeko elkartzen dira Eskoriatzan Berbalagunak ekimenaren baitan zenbait herritar. Aurreko urteetako taldetxoak hasi dira elkartzen berriro ere.

"Eguenetan elkartzen da talde bat, hain zuzen ere, pintxopotea elkarrekin egiteko". Hala eman du aditzera Miriam Isasmendi programaren arduradunak. Paseatzera irten eta kafea hartzen duten bi talde sortu dira, bata martitzenetan elkartzen da, eta bestea egubakoitzetan.

Talde berriak sortzeko asmoz

Eta nahiz eta dagoeneko hasi diren mintzapraktika saioetarako elkartzen, "talde berriak sortzea primeran egongo litzateke", dio Isasmendik.

Hori horrela, dei egiten diete euskaraz berba egiteko ohitura duten edo ohitura hori indartu gura duten guztiei. "Egunero euskaraz bizi direnak eta egunerokotasunean erabiltzeko aukerarik ez dutenak elkartu eta harreman berriak sortzea da asmoa, euskarazko harremanak sortu daitezen".

Taldeak txikiak izaten direla eta horrek jendeari euskaraz berba egiteko erraztasuna ematen diola gaineratu du. "Lotsak gainditzeko modu bat da".

Hala, interesa duten guztiek aukera daukate oraindik ere izena emateko. "Kultur etxetik pasatu daitezke, gura izanez gero. Bestela, *berbalagunak@gmail.com* idatzi dezakete edo do 661 746 376 zenbakira deitu".

ARETXABALETA

Malabarismoa, oreka eta beste landuko dituzte zapatuan Arkupen zirko tailerraren saio berri batetan

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Zirko tailerraren saio berri bat egingo dute zapatu honetan, hilak 16, Arkupen. Xabi Larreak gidatutako saioan herriko zortzi bat gaztetxok hartzen dute parte 2012ko abendua ezkero: "Jolasteko eta ongi pasatzeko gunea sortzen dugu. Eta neska-mutilek akrobaziak egiten ikasten dute, edo bestela malabarismoan barneratzen dira, esate baterako".

Gabonetan ikuskizuna

Abendurako erakustaldi bat prestatu guran dabiltzala aurreratu digu Larreak. Bitartean, teknika hobetzen, eta garrantzitsuagoa dena, ondo pasatzen segituko dute ikastaroko partaideek.

Malabareak egiten. | KOBLAKARI ELKARTEA

Herriari buruzko gazteen iritzia jakiteko bilera egubakoitzean udaletxe zaharrean

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Egubakoitz honetan Bagarak gazteei zuzenduko die *Jar Gaitezen* ekimena. Hala, Gazte Ekimeneko lokalean –udaletxe zaharrean– batzartuko dira, 18:30ean hasita, herriari buruzko alor ezberdinen gainean gazteek duten iritzia ezagutzeko asmoz. "Herriaren diagnosia egiteko gazteek Aretxabaletaz duten ikuspegia lehenengo eskutik ezagutzea funtsezkoa da gauzak aldatu gura badira", diote Bagaratik.

Horrela, azaroaren 15ean egingo duten batzarrera deitu dituzte gazteak.

Hilaren 18an aurkeztuko dute 'Gamazada 1893-1894 etengabeko konkista' liburua

Z.V.D.M. | ARRASATE

Azaroaren 18an, 1512-2022 Nafarroa Bizirik taldeak argitaratutako *Gamazada 1893-1894 etengabeko konkista* liburua aurkeztuko dute Zaraian.

Sergio Iribarren Galbete lanaren egileak berbaldia eskainiko du. "Gure herriaren egoera sozio-politikoa ulertzeko ezinbestekoa den gertaeraeraren inguruko dibulgazio lana da". Hain zuzen ere, XIX.mendean bukaeran, foruen inguruko eztabaidak eztanda egin eta gaurko mugimendu politikoen aitzindaria den matxinadaren zergatietan sakontzen da liburuan.

Aurkezpena Zaraian izango da, 19:30ean hasita.

NIRE USTEZ

NESTOR ARANA

Herria saretzen

Zaborren jasotzearen inguruan badirudi bi planteamendu kontrajarri agertzen ari direla. Batetik indibiduoaren libertatea errespetatu nahi duena, eta bestetik, gizarteraren mesedetan indibiduoari mugak jarri nahi duena. Borroka horretan, indibiduoaren eta gizartearen arteko borroka dagoela ematen du.

Errenazimenduan hasi eta neoliberalismoarekin indibiduoaren garrantzia indartu egin dela jakina da. Ausartu zaitezte ezagun bati zakarrak lurrera ez botatzeko esaten... indibiduoaren libertatea urratzeagatik erantzun gordina izango duzu, egizu froga! Gainera badirudi garbitzearen erantzukizuna herriak edo komunitateak duela.

Nire ustetan indibiduoa edo gizakia eta gizartea uztartuta dauden antolamendu bakarrak dira. Arrantzarako sarea adibide ona izan daiteke. Gizartea arrantzarako sare bat balitz, gizakia sare horretako korapilo bat izango litzatekeela deritzot. Ikuspegi horren arabera, gutako bakoitza indibiduo bat izateaz gain, gizartearen parte ere bagara; gizakia alegia.

Ondorioz, gizakia eta gizartea uztartzen dituen eredu batetan sakondu beharra dagoela deritzot. Korapilo eta lotura sendo asko dituen sarea garatu beharra dugu.

Gure seme alabentzako mundu txukun bat utzi nahi badugu, gutako bakoitzak eragin beharra dauka.

"Ausartu zaitezte ezagun bati zakarrak lurrera ez botatzeko esaten"

'Paraíso: amor' filma emango dute egueneko zine klubaren baitan

Azaroan zinea bueltatu da Zaraiara eta berarekin, zine kluba. Hala, egueneko filmari dagokionez, *Paraíso: amor*. Keniako hondartzetan kokatutako filma da, hain zuzen ere, bertara maitasun bila joan baina aurkitzen ez dutenen istorioak kontatzen dira. Filma 19:30ean hasiko da.

ARAMAIO

Ibilgailuen gaineko zerga %1,9 igotzea onartu zuen udalbatzak aho batez

KPIaren araberako igoera horrez gain, beste zenbait zerga izoztu egingo dituzte; herritarrari gehien eragiten dioten tasak ez ziren gai zerrendan sartu

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Ordenantza fiskalak izan ziren joan den egueneko osoko bilkuran mahai gainean izan ziren gai garrantzitsuenak. Oraindik ez da herritarrari gehien eragiten dioten zergen gainean –ura eta estolderia, zaborra, zirkulazioa...– eztabaidarik eman, ez delako gai zerrendan sartu. Besteak beste, ibilgailuen gaineko zergaren gainean %1,9ko igoera aplikatzea erabaki zuten aho batez. KPIaren araberakoa da igoera hori. Horrez gain, beste zenbait zerga izoztea erabaki zuten: ondasun higiezinen gaineko zerga, jarduera ekonomikoaren gainekoa eta eraikuntza zein obren gainekoa, besteak beste.

Fagor Etxetresnei babesa

Fagor Etxetresnen porrota ere izan zuten hizpide osoko bilkuran. EAJko Iñaki Nafarrate eta Bilduko izan Andoni Solupe ezik, gainerako zinegotzi guztiak egon ziren osokoan eta horiek guztiek aldeko botoa eman zioten adierazpen instituzionalari. Hala, Udalak bat egiten du ofizialki kooperatibismoaren oinarrian egon diren elkartasun printzipioekin: "Udalak konfiantza osoa du oraingoan ere printzipio horiek aplikatuko direla, egoera larri honi irteera emateko eta ahalik eta lanpostu gehien bermatzeko". Ramon Ajuria alkateak eguenean adierazi zuen Etxetresnen auziari "ikuspegi orokor" batetik egin behar zaiola aurre.

ELGETA

Urrian gutxienez 475 erosketa Elgetan tuperrak erabilita

Udalak jakinarazi duenez, bestalde, beste 16 familiak eman dute izena auzo-konposta egiteko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Goikoetxe harategian, Amagoia arrandegian eta Ugari dendan sariak banatzen jarraitzen dute erosketak modu jasangarrian egiten dituzten herritarren artean. Beste modu batean esanda, plastikozko ontziak erabiltzen dituzten erosleen artean. Egin dute urriko zozketa, eta honakoak dira denda bakoitzean sarituak izan diren zenbakiak: Amagoia arrandegian, 736; Goikoetxe harategian, 518; eta Ugari dendan, 62.

Ekogunerekin elkarlanean Elgetako Udalak uztailean ipini zuen martxan *Ontziratu zaitez!* kanpaina. Aditzera eman dutenez, urrian gutxienez 475 lagunek erabili dituzte Elgetan plastikozko ontziak erosketak egiteko. "Udaletik zorionak eman gura dizkiegu erosketa modu jasangarrian egiten diharduten elgetarrei", adierazi dute. "Gogoratu gura dugu tuperrak dendetan eta udaletxean bertan eska daitezkeela, eta etxekoak ere erabil daitezkeela".

Auzo-konposta

Udaletik aditzera eman dute, bestalde, herriko beste 16 familiak eman dutela izena etxean sortzen duten hondakin organikoa konpostatze-guneen bitartez kudeatzeko. Hilaren 6an jaso zuten ikastaroa, eta hurrengo egunetik dute aukera konposta egiteko.

Erosketak Elgetan. | L.Z.

ALAIAK ERRETIRATU ELKARTEA

Alaiakekoak EITBn izan ziren, "bisita interesgarrian"

Alaiak erretiratu elkarteko bazkideak Bilboko EITBren egoitzan egon ziren urriaren 24an. Eusko Jaurlaritzaren Kontsumobide ekimenaren eskutik urriaren 21, 22, 23 eta 24rako antolatutako hitzaldi sortaren barruan kokatutako bisita izan zen. Adierazi digutenez, bisitan parte hartu zuten guztiei "oso interesgarria" iruditu zitzaien irteera: "Hainbat kontu berri ikasi genituen".

LEINTZ-GATZAGA

Autodefentsa tailerrean izena emateko epea luzatu egin dute

Egubakoitzean zen azkeneko eguna, baina lau lagunek bakarri eman zuten izena ordurako

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

"*Sorgin*ekin egon naiz berbetan, eta asmoa da domekako azoka aprobetxatzea emakume gehiago animatzeko autodefentsa tailerrean parte hartzera. Ze momentuz lau lagunek bakarrik eman dute izena, eta horrekin ezin dugu talderik osatu", jakinarazi du Ainara Gabilondok, Leintz Gatzagako Udaleko gizarte langileak.

"Helburua da zazpi-zortzi lagun lortzea. Gaur eta bihar ikusiko dugu zenbatek eman duten izena azkenean, eta horren arabera erabakiko dugu tailerrarekin aurrera egin edo ez", zehaztu du Gabilondok. Hori horrela, beraz, parte hartzeko interesa duten emakumeek gaur edo bihar jo beharko dute Udalera izena ematera (943 71 47 46).

Aldez aurretik ez da ezer behar

Oraingo asteko zapaturako antolatu gura dute autodefentsa tailerra. Egitekotan, kultura etxean egingo da, eta bertan parte hartzeko ez da aldez aurretik ezelako baldintzarik behar. Hau da, adibidez, edozein adinetako emakumek parte hartu ahalko dute; ez da beharrezkoa sasoian egotea edo kirola egiteko ohitura izaterik; eta ikastarorako bertarako ere ez da ezer berezirik eraman behar. Gainera, ez da ezer ordaindu behar parte hartzearren.

ANTZUOLA

Ramirez de Okarizek tesia aurkeztu die herritarrei

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Iñigo Ramirez de Okariz irakasleak uztailean defendatu zuen Huhezin *Gertuko kultura ondarearen transmisioa eta hezkuntza eragileak Lehen Hezkuntzan* doktore tesia. Ohikoa ez bada ere, joan den eguenean herritarren aurrean aurkeztu zuen bere lana. Olaran etxean izan zen aurkezpena eta 40 herritar inguru elkartu ziren inguruko ikastetxeetan kultura ondarea nola lantzen den jakiteko asmoz.

Ramirez de Okarizek bere tesiaren hipotesiak eta ideia nagusiak aurkeztu zituen. Hain zuzen ere, tesia hiru galderatan oinarritzen da: nola transmititzen den ikastetxeetan gertuko kultura, hezkuntza ez formaleko eragileen eragina eta hezkuntza eragileen elkarlanarekin nola hobe daitekeen kultura ondarea.

Iñigo Ramirez de Okariz, aurkezpenean. | IURE EIZAGIRRE

Goiena Klubeko azaroko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!

EROSKI

32 hazbeteko telebista

32 hazbeteko OKI Telebista
Parte hartzeko sariaren izena:
Telebista

Debagoiena BASERRI SAREA Auzolanean Zurekin

Otarrak
DEBAGOIENEKO BASERRI SAREAri esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar.
Parte hartzeko sariaren izena:
Baserrisarea

ARRIKRUTZ oñatiko kobak

Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.
Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikrutz

Otarrak
HARREMAN DENDAri esker bidezko merkataritzako produktuez osaturiko 2 otar zozketatuko ditugu.
Parte hartzeko sariaren izena:
Harreman

argia

Jokoa
Badakit 2 joko
Parte hartzeko sariaren izena:
Badakit

PARTE HARTZEKO:
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
SMS: KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.
WhatsApp: KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

ATLETISMOA

Haizeari aurre egiteko, talde lanean hobeto

Milaka istorio gorde ditu aurtengo Behobia-Donostiak ere, eta bailarako protagonista gehienek gauza bera azpimarratu dute, lasterketan izandako haize gogorra. Horrek eragotzi egin du beste urte batzuetako marka onak errepikatzea, baina kontrara, talde-lana saritu du. Roller gainean garbi izan zuten hori Hanka Labanka taldeko Jose Luisek eta Jon Anderrek. | 22-25



Hanka Labankako ordezkariak, batera helmugaratzen rollerrean.

JOSETXO ARANTZABAL

Behobia-Donostiako debagoiendarrek denborak

ANTZUOLA

819	Gurutz Larrea Soraluze	01:18:36
2550	Ion Aranguren Fernandez	01:20:05
5714	Luis Franco Fernandez	01:27:24
2638	Ion Legorburu	01:27:27
2622	Iker Irizar Izagirre	01:29:06
5742	Oscar Velarde Bernal	01:30:08
5718	Jon Kortabarria Arando	01:30:16
5725	Gorka Garitano Arregi	01:30:16
5882	Iban Herzog Rodriguez	01:30:20
18387	Aitor Elkoro Sarasua	01:31:42
5741	Idoia Aranguren Fernandez	01:31:59
2558	Luis Mari Larrea Gabilondo	01:35:16
24298	Gurutz Zabalo	01:36:37
11336	Iosu Errasti Jauregi	01:36:44
11364	Izar Urteaga Mendizabal	01:36:44
2619	Asier Aranguren Ezkurra	01:38:10
5727	Cesar Miota Peña	01:39:27
10280	Iñaki Linzoain Aranguren	01:39:59
5724	Josu Toledo Aranguran	01:40:10
11361	Modesto Cáceres Martín	01:41:47
24450	Mikel Lizarazu Arbulu	01:42:34
11627	Unai Kortabarria Berasategi	01:42:47
25038	Aritz Kortabarria Loidi	01:42:47
24294	Leire Larrea Soraluze	01:47:57
24442	Bittor Arbulu Olabarria	01:50:19
24436	David Martín Lucena	01:54:41
2010	Ion Arregi Retolaza	01:56:27
18012	Uxue Arregi Retolaza	01:56:27
24325	Ana Peñalba Cáceres	01:57:54
24368	Gorka Etxezarreta Aranburu	01:59:46
24366	Itsaso Garmendia Egaña	01:59:47
24440	Ainhoa Berecibar Gomez	01:59:47
24441	Iñigo Alonso Gut. De La Torre	01:59:48
25039	Beñar Kortabarria Olabarria	02:00:41
24402	Bego Oncala Delgado	02:03:47
18957	Asensio Aramburu Larrañaga	02:07:26
24474	Alberto Cáceres Guillen	02:08:41

ARAMAIO

2642	Aitor Arana Arexolaleiba	01:18:23
896	Aitor Kortazar Alkoz	01:20:55
5891	Jonathan Unzalu Rincon	01:27:40
11119	Cesar Azkarate Beitia	01:32:13

ARETXABALETA

111	Garikoitz Garcia	01:12:31
11633	Kepa Urra Guridi	01:24:20
11605	Igor Olalde Berasaluze	01:24:53
2628	Igor Aguirre Gabilondo	01:25:03
906	Unai Kerejeta Lopez	01:26:35
11619	Peio Caballero Pozo	01:29:39
5938	Zuhaitz Errasti	01:30:44
24414	Markel Familiar Baena	01:31:03
11573	Jonás Núñez	01:31:18
11548	Urko Nuñez Segovia	01:32:05
11643	Jabi Garcia San Martin	01:35:25
5944	Fran Miguel Quintero	01:37:13
5945	Andoni Miguel Quintero	01:37:13
11664	Jon Zubillaga Urcelay	01:37:38
11649	Rober Azkarate Zabalo	01:37:50
11648	Maite Arkauz Arenaza	01:37:50
11655	Ander Hernandez Akizu	01:38:11
11592	Fernando Uribesalgo	01:38:59
2656	Ion Urtaza Agirrezabal	01:39:11
23878	Javier Urtubi	01:39:41
24403	Julen Galiano Aguirre	01:39:43
18788	Jorge Olivenza Martin	01:41:17
11569	Aitor Azkunaga Guerrero	01:42:05
11626	Xabier Biain Ormazabal	01:44:04
24376	Jorge Santiago Arroyo	01:44:44
11644	Anabel Aranzadi Martin	01:44:46
24420	Zorione Herrasti Sainz	01:46:02
24418	Mikel Prat Bengoa	01:46:03
24097	Paqui Hernandez Majadas	01:46:39
18817	Jose Maria Etxebarrieta Lopez	01:46:40
11594	Ainhoa Murgoitio Luelmo	01:46:42
11543	Ane Josu Guede Navaridas	01:47:03
11628	Amaia G. Balza De Vallejo	01:49:07
24392	Naiara Altube Garcia	01:51:25
18779	Oier Sarasua	01:51:41
5899	Andoni Arkauz Lazkano	01:52:15
24437	Javier Vallina Fuentes	01:56:10
24300	Igor Gorosarri Badiola	01:56:47
24432	Ibon Viteri Zubia	01:56:48
24419	Rebeca Bowen Delgado	01:57:08
5878	Aitor Uribe Etxebarria Gorost.	01:57:08
18780	Pedro Mari Azkargorta Bel.	02:00:28
24467	Arantza Atienza Baldezate	02:00:37
24314	Ainhoa Calleja Andonegi	02:00:49
23881	Jasone Belategi Barbero	02:00:51
24407	Nerea Etxeberria Urrutia	02:01:54
24380	Naiara Uriarte Remedios	02:02:39
18754	Oihana Arejolaleiba Gabilondo	02:02:39
24343	Elisabeth Flores	02:03:19
24323	Amaia Berezibar Gomez	02:03:47
24445	Irantzu Zufiria Oianguren	02:09:51
24475	Iñigo Kortabarria Urain	02:15:03

ARRASATE

110	Jose Gabriel Urizar Murgoitio	01:11:10
109	Endika Donnay Otegui	01:12:44
888	Javier Arconada Martinez	01:15:51
878	Txus Goikoetxea Garralde	01:15:58
907	Patxi Garcia Oyarzabal	01:17:57
892	Juanma Martinez Remedios	01:18:38
2649	Ganix Lasa Erle	01:19:05
889	Eneko Urrizalki Jauregi	01:19:10
877	Josu Aldea	01:20:28
2615	Mario Iglesias Lobato	01:20:40
5941	Edu Zabala Bilbao	01:20:46
2640	Iñaki Vàzquez Jausoro	01:21:17
905	Luis Usatorre Aranzabal	01:21:21
2633	Ander Bereziartua	01:21:36
2661	Ander Ansoategi Oruna	01:22:15
9376	Mikel Lasa Erle	01:22:19
2618	Rober Gil	01:22:44
2659	Jon Osinaga Astigarraga	01:23:02
2657	Josu Arkauz Arana	01:24:04
2652	Aratz Gomez Larrañaga	01:24:25
24390	Xabier Otxandiano Sasiain	01:24:31
5892	Aitor Arnaiz De Paz	01:24:42
2635	Jurgi Lopez De Arkaute Guridi	01:24:51
887	Iñigo Labayen Iraeta	01:25:02
5928	Yon Tena Baena	01:25:44
11601	Xabi Altuna Gutierrez	01:25:55
5942	Premin Sampedro Larrañaga	01:26:09
2639	Xabier Bergaretxe Zubizarreta	01:26:48
5906	Ander Arejolaleiba Iria	01:26:52
18816	Araitz Etxabe Zubizarreta	01:27:26
2621	Iñaki Juez Marina	01:27:29
5920	Kepa Mercader	01:27:30
5880	Mikel Zubillaga Acha	01:29:06
2631	Iban Labayen Iraeta	01:29:28
24335	Argoitz Ugalde Ferrero	01:29:39
5939	Ramon Goñi Farrás	01:30:14
24464	Unai Parot Nabarro	01:30:29
5931	Javi Viguera Vazquez	01:30:49
11632	Luis Mari Azkargorta Belategi	01:31:00
24346	Markel Arkauz Gabilondo	01:31:17
24345	Ion Arkauz Gabilondo	01:31:18
24316	Unai Hernandez Cuevas	01:31:47
5890	Mikel Alkorta Olalde	01:32:19
11565	Borja Hernandez Jurado	01:32:26
24310	Markel San Miguel Merino	01:32:48
24374	Juan Modino Fernandez	01:33:15
24457	Julen Mendizabal Elezkano	01:33:26
24463	Joxe Migel Gaztelu Otxan.	01:33:27
11559	Mikel Arenaza Ocaranza	01:33:57
5913	Aitor Arregi Elorza	01:34:03
5930	Mikel Viguera Vazquez	01:34:07
5879	Jose Luis Borbolla Jimenez	01:34:18
24358	Luar Etxeberria Aguirrezabala	01:34:33
11599	Kepa Azpitarte Gabilondo	01:34:49
5936	Oxel Azkarate Iturbe	01:35:12
18777	Ikeia Iborra Heriz	01:35:20
24332	Mikel Navarro Aranzadi	01:36:10
11663	Laureano Gallardo Bolaños	01:36:41
24417	Markel Juaristi Mendarozketa	01:36:45
24425	Iker Agirre Aginalde	01:36:45
23046	Ivan Romaña Rodriguez	01:37:11
5948	Idoia Velez De Mendizabal Azur.	01:37:13
8085	Josemi Bastardo Juarez	01:37:19
11587	Igor Beitialarringoitia Arana	01:37:31
2644	Joxemari Gallastegi Etxebarria	01:37:32
2653	Jesus Mari Zabarte	01:38:15
24410	Paula Heriz Uribesalgo	01:38:44
11553	Itziar Sanpedro Olalde	01:38:58
901	Kristina Goirizelaia Gonzalez	01:39:00
11652	Asier Agirregomezkorta Vieira	01:39:15
24355	Andoni Fernandez Garfias	01:39:16
11556	Leire Ezpeleta Iturbe	01:39:21
108	David Amuchastegui Gonzalez	01:39:23
2641	Txomin Gallastegi Etxebarria	01:39:25
11576	Angel Moraleja Alcocer	01:39:53
11658	Iñaki Mondragon Azpiazu	01:40:14
5924	Mikel Azkargorta Viguera	01:40:15
11539	Juan Luis Lasa Sagasta	01:40:28
11662	Ion Ansoategui Mascariano	01:40:37
11650	Andoni Murga Zenarruzabeitia	01:40:40
11640	Alex Martiarena Arregui	01:40:50
11641	Yolanda Ezkurra Mayor	01:40:50
24456	Miren Apraiz Romero	01:41:10
11611	Ibai Zabaleta	01:41:10
7633	Jose Negreira Rodriguez	01:41:19
11593	Unai Ibabe Ruiz De Azua	01:41:30
18770	Gorka Bergaretxe Muguruza	01:41:53
24455	Luis Heriz Vitoria	01:41:59
11585	Kepa Aranbarri Arregi	01:42:00
5946	Andoni Ozaeta Mendiaratx	01:42:12
11657	Iñaki Viteri Garay	01:42:23
11645	Iñigo Xabier Azkarate Morras	01:42:24
24375	Iban Delgado Iglesias	01:42:40
882	Angel Delgado Iglesias	01:42:41
5925	Luis Maria Heriz Arcauz	01:43:13
24461	Andoni Uribarren Arrue	01:43:19
11549	Mikel San Argimiro	01:43:31
24406	Luken Azkarragaurizar Jauregi	01:44:22
11608	Aitor Unamuno Garai	01:44:43
11651	Jesus Albistur Marin	01:44:47
11612	Iban Luarizaristi Ayastuy	01:44:49
24408	Jon Loiti Orue	01:45:01
24439	Markel Aranzabal Merchán	01:45:04
11656	Ignacio Beltrán De Guevara B.	01:45:39
11637	Luis Ruiz De Austri Otadui	01:45:43
11636	Ane Miren Arexolaleiba Biteri	01:45:44
18776	Nekane Irala Reyes	01:46:01
24383	Sergio De Sousa Rodrigues	01:46:27
24386	Jon Barandiaran Altuna	01:46:27
24385	Andoni Ezkurra Zubizarreta	01:46:27
18795	Edorta Moreno Aranburu	01:46:41
11622	Arkaitz Gómez Rubio	01:47:18
11614	Aitor Laskurain	01:47:25
18799	Aitor Igarza Garro	01:47:39
11606	Gorka Otxoa Aranzabal	01:47:46
18814	Miren Bengoa Azkoaga	01:48:23
11613	Elena Mendi Valgañon	01:48:27
18800	Iker Aguirrezabal Mateo	01:48:40
12846	Olaia Velasco Ugarte	01:48:43
11567	Rafa Aranzabal Gisasola	01:48:53
24405	Andoni Aranzabal Leibar	01:49:04
24413	Ainitze Anzola Uriarte	01:49:08
18793	Aitor Arostegui Gallastegui	01:49:10
11610	Imanol Diaz De Zerio Saiz	01:49:31
11531	Imanol Ibarra Aranzeta	01:49:31
11634	Francisco Aguilar Casas	01:50:12
24458	Kepa Arkauz Zubillaga	01:50:15
24400	Eneko Urkia Guridi	01:50:15
11623	Asier Albistur Perez	01:50:26
27939	Bittor Manjon Hernandez	01:50:40
24312	Juan Jose Valgañon Arconada	01:50:40
11557	Alexander Barañano Asti.	01:50:40
18813	Karmel Uribarren Munitxa	01:50:47
11642	Juan Andres Gallardo Bolaños	01:51:16
18796	Salvador Delgado Saraiva	01:51:16
5949	Javier Ansoategi Etxebarria	01:51:20
11464	Xabier Mendialdua Axpe	01:51:59
11568	Iker Arostegi Gallastegi	01:52:07
18758	Maitane Landa Aperribai	01:52:08
28486	Miren Sagasta Olalde	01:52:14
24423	Itsasne Landa Aperribay	01:52:20
16722	Iker Blazquez Zuloaga	01:52:44
24430	Inazio Olaizola Garay	01:52:46
24326	Ana Azkarraga Mendizabal	01:52:57
18783	Igor Gordobil Amozarrain	01:52:59
24384	Mikel Atxa Uli	01:55:25
24446	Jon Racionero Zabalo	01:56:29
24394	Nerea Berecibar Arabaolaza	01:56:31
18759	Alicia Carrasco Amado	01:56:37
18757	Jon Iregi	01:56:38
24438	Adrián Alonso García	01:56:43
24353	Marilu Riviere	01:56:48
24424	Maitane Diaz Alcelay	02:01:55
18792	Egoitz Garcia Ceciaga	02:03:07
24344	Yolanda De La Cruz Ortiz	02:03:19
24342	Arantza Pagoaga Mondragón	02:03:19
24347	Francisco Javie Arkauz Arana	02:04:32
24470	Juan Maria Amilburu Oxinaga	02:04:33
24465	Dorleta Heriz Iria	02:06:14
11604	Mikel Del Palacio Martin	02:06:46
24477	Ainhoa Aristimuño Dominguez	02:06:50
24091	Igor Azurmendi Aramburu	02:14:21
24476	Esther Trabalon Alarcon	02:15:03
24473	Josefina Mugica Elorza	02:16:20

BERGARA

38	Kepa Varela Arregi	01:12:24
97	Ricardo De Goñi Ripa	01:12:49
879	Mikel Mugica Bikuña	01:13:15
24341	Iker Leston Jauregui	01:14:19
884	Aitor Larrea Soraluze	01:15:17
897	Iñaki Mujika Goikoetxea	01:16:04
893	Iban Agirrebeña Oteo	01:18:31
2627	Ibon Aristimuño Martin	01:19:31
5723	Eñaut Uriarte Palacio	01:19:47
821	Jabi Ibarra Moñux	01:21:38
2645	Iñigo Pagaldai Urresti	01:22:14
2553	Josu Lete Aramburu	01:22:33
2634	Igor Lopez Muniozguren	01:22:42
2637	Aitor Eraña Arroiabe	01:23:05
11583	Iker Sanchez Gantxegi	01:23:25
2636	Aritz Beistegui Ugarte	01:24:35
3696	Alberto Urriolabeitia Milikua	01:24:52
5731	Eneko Lazkano Bikendi	01:24:55
5716	Igor Unamuno Eraña	01:26:05
11337	Igor Urisabel Aseginolaza	01:26:42
5726	Manolo Varela Fernández	01:27:01
5732	Igor Oyarbide Zubillaga	01:27:54
2556	Martin Egaña Villar	01:28:22
24448	Jon Ormazabal Gorria	01:29:06
24398	Jose Javier Cenitagoya Pildain	01:29:07
5730	Rafael Prieto Hernandez	01:29:16
2560	Aitor Gartzia Arkauz	01:29:46
817	Andoni Gomez Gutierrez	01:30:07
11360	Beñat Iñarra Lasa	01:30:32
11591	Julen Jorge Gabilondo	01:30:39
5737	Manu Gorospe Urizarbarrena	01:30:48
820	Joxu Arana Oregi	01:31:16
5735	Asier Gartzia Beristain	01:31:17
5720	Itziar Aldekoa Urbieta	01:31:19
5721	Jesus M. Labaka Arando	01:31:19
2557	Jose Mari Anduaga Elias	01:32:41
5717	Juantxo Aranes Usandizaga	01:32:55
23057	Xabier Lijo Perez	01:33:01
5738	Jose Ramon Bardeci Urra	01:33:36
11356	Rafael Moral Murillo	01:33:44
11620	Xabier Sabalza Laskurain	01:33:56
5722	Anselmo Gomez Rodriguez	01:34:04
7932	Maria Rosa Aguirre Igartua	01:34:43
2616	Ruben Sanchez Vicente	01:35:03
5929	Aitor Lete Larrañaga	01:36:14
11563	Laura Iturbe Valverde	01:36:43
24435	Gorka Rodriguez Salazar	01:37:26
5894	Igor Basauri	01:37:43
11582	Ander Berraondo Lascurain	01:37:43
11561	Agurtzane Lete Larrañaga	01:38:00
9297	Imanol Elkoroberezibar Azk.	01:38:32
11584	Jose Ignacio Albisua Iraol.	01:38:48
5734	Fernando Muruamendiaraz Iñ.	01:39:03
5739	Juan Luis Arriola Lazkano	01:39:03
9703	Nerea Mendizabal Urreta	01:39:04
5733	Ignacio Puertas Sebal	01:39:04
11355	Josean Larrion Lopez Ded.	01:39:17
11602	Iosu Diaz Arizmendi	01:39:24
5736	Carmelo San Torcuato Perez	01:39:46
30692	Arantxi De La Fuente Hilario	01:40:20
816	Javier Borobia Martinez	01:40:38
11347	Patxi Arriola Lazkano	01:40:38
11340	Jose Luis Salazar Caballero	01:40:40
11577	Miguel Angel Outeiriñi Vazquez	01:40:47
5927	Patricio Osinaga Ibarrola	01:40:48
24340	Hugo Montalvo Garcia	01:40:51
5912	Jose Angel Munoz Gonzalez	01:41:01
5910	Saturnino Lopez Moreno	01:41:03
11350	Eugenio Barquero Murillo	01:41:37
11348	Juan De Borja Rodriguez	01:41:38
11341	Sebas Etxeberria Olasolo	01:42:00
11546	Maria Sanchez Casado	01:42:16
3586	Ion Ander Garitano Askazibar	01:42:20
2549	Jesús Mari Iglesias Fernandez	01:42:20
11338	Sabino Azcarate Leturia	01:43:01
24349	Lidia Peña Fernandez	01:43:11
5740	Mikel Etxaniz Alberdi	01:43:21
5728	Ainhoa Arbelaitz Gantxegi	01:43:21
18755	Eneko Azula Uribesalgo	01:43:45
11346	Asier Calleja Etxaniz	01:44:07
11236	Eneko Igartua Berenguer	01:44:18
11618	Igor Rodrigo Ecenarro	01:44:44
24320	Vega Martin Rodriguez	01:44:54
18810	Pablo Laskurain Areitioaurtena	01:45:03
24317	Jose Mari Aristimuño Osoro	01:45:45
11343	Ion Alberdi Garaiondo	01:45:50
11345	Ekaitz Alkorta Zabalo	01:45:51
24396	Unai Irizar Gantxegi	01:45:57
30701	Javier Gonzalez Sevillano	01:46:16
11351	Javier Orbea Ascaso	01:46:57
18677	Antonio Verguizas Nieto	01:47:15
11363	Jaio Manzanedo Gabilondo	01:47:21
22206	Olatz Fernandez Arregui	01:47:28
18801	Luis Javier Martinez	01:47:30
18802	Diego Ardohain Mignaburu	01:47:30
24098	Alberto Samaniego Etxeberria	01:47:32
24096	Amaia Samaniego Etxeberria	01:47:32
24354	Ane Morillas Igartua	01:48:01
18794	Xabier Martinez Saez	01:48:34
11349	Aitor Salaberria Agirreola	01:48:40
24105	Iñaki Alberdi Araiztegi	01:48:40
24104	Jose Antonio Dorronsoro Agirr.	01:48:41
23058	Ion Ayastuy Arozena	01:49:08
24447	Jon Arriaran Beistegi	01:49:13
24422	Andoni Iturbe Aguirre	01:52:01
11596	Eduardo Bilbao Beraza	01:52:15
24674	Sebastián Imaz Vicente	01:52:27
24297	Javier Arrondo Sanchez	01:53:44
18684	Mikel Irizar Igarzabal	01:53:47
18683	Roman Laskurain Aiastui	01:54:25
11344	Jon Zabala Puy	01:56:20
18760	Nerea Gabilondo Etxaniz	01:56:29
24393	Ane Altuna Mongelos	01:57:24
24099	Ignacio Maria Arriola Irizar	01:57:37
24102	Karmen Urrutia	01:57:40
24103	Jesus Mari Valgañon Gomez	01:57:40
18678	Manu Curado Rodriguez	02:01:56
18753	Amaia Cerdeira Las Heras	02:01:57
2561	Aitor Curado Rodriguez	02:01:58
24397	Ane Sagasta Zubiaga	02:03:29
25158	Mikel Elkoroberezibar Umerez	02:04:41
25157	Monika Belastegi Aranzabal	02:04:41
18043	Itziar Alberdi Araiztegi	02:05:50
18680	Ana Arrizabalaga Kortazar	02:05:50
18681	Manu Diaz	02:05:50
25119	Julen Otaegi Inurrieta	02:07:19
24101	Fernando Arrillaga Garate	02:15:44

ELGETA

822	Iker Herran Hernandez	01:16:40
880	Haritz Barrutia Sarasua	01:20:03
23055	Odei Zenitagoia Sousa	01:25:48
5856	Daniel Guillegui Etxebarria	01:26:32
5922	Iñaki Beristain Askasibar	01:26:36
5883	Saioa Ugidos Damboriena	01:31:57
2559	Jesus Mari Beristain Elezgarai	01:32:43

ESKORIATZA

80	Igor Lazkano Arana	01:14:14
2625	Oscar Ortueta Arando	01:18:37
18798	Gorka Arrese Iñarra	01:27:13
5881	Jorge Gil Labrado	01:30:15
11536	Ekaitz Aramendi Kortazar	01:34:35
11572	Aitor Bañares Bengoa	01:36:59
11564	Fernando Joaquin Jorge	01:37:22
11537	Mikel Aramendi Kortazar	01:38:50
11607	Igor Larrañaga	01:43:18
11533	Juncal Zubizarreta Elizburu	01:47:03
18790	Eneritz Zubia Altuna	01:51:01
18791	Ioseba Azkune Aiastui	01:51:01
11550	Oier Garai Ibabe	01:52:03
21102	Maialen Iñurrategi Iglesias	01:55:33
8323	Ione Uriarte Iñurrategi	01:55:33
23389	Ander Agiriano Errasti	01:56:43
24373	Pablo Crespo	01:56:48
5904	Rafael Muñoz Apraiz	01:58:31
24313	Imanol Calzón Miguel	02:01:20
24444	Aitziber Zufiria Oianguren	02:09:51

OÑATI

276	Yeray Varela Amor	01:09:44
883	Igor Esparza Lertxundi	01:15:35
895	Fernando Rezabal Guridi	01:15:53
24381	Iñaki Pelayo Alonso	01:15:57
902	Alberto Guerreiro Uri.	01:21:00
885	Axier Larral Barrena	01:21:09
2620	Beñat Madariaga Egaña	01:21:26
2624	Arkaitz Sasiain Dz. M.	01:22:45
881	Ibon Jausoro Murgiondo	01:22:53
2629	David Vernaza Colobon	01:23:14
2643	Xabier Galdos	01:23:41
900	Iñaki Bikuña Zubizarreta	01:25:02
2660	Gaizka Palacin Aztiria	01:25:18
2546	Jesus Odriozola Agirrezabal	01:25:25
5926	Joseba Andoni Azkarate L.	01:25:51
2611	Igor Arrese Murguzur	01:27:24
2632	Jose Antonio Biain Bikuña	01:28:23
5908	Jorge Vazquez	01:28:29
24415	Jose Antonio Erostarbe Arcauz	01:28:46
24359	Gorka Zelaia	01:29:02
5914	Aitor Lukas Etxarri	01:30:25
5678	Jose Mª Gómez Fraga	01:31:07
24336	Mikel Molina Borgas	01:31:28
3084	Ander Pardo Cortés	01:31:36
5889	Ander Jausoro Arregi	01:31:42
823	Josu Odriozola Zabaleta	01:31:42
5909	Mikel Perez De Arenaza Unanue	01:32:52
5893	Jon Mikel Larrañaga Irizar	01:33:21
5902	Amaia Bernal Arregi	01:33:34
24360	Ismael Malbadi Guridi	01:34:35
11558	Felix Sancho Orueta	01:34:47
2623	Iker Jimenez Bastarrika	01:35:12
5935	Luis Mari Ugarte Alzelai	01:35:20
5934	Aitor Markuleta Belategi	01:35:20
5905	Julen Arabaolaza Otxoa	01:35:41
24363	Unai Carmona Igartua	01:36:02
11544	Unai Etxebeste Larrañaga	01:36:12
11545	Iñaki Zabarte Elkorobarrutia	01:37:16
11581	Gorka Alzelai Zubia	01:37:29
18766	Iker Arregi Markiegi	01:38:03
11615	Ana Isabel Urmeneta M.	01:38:07
10316	Ainhoa Bardón Elgezabal	01:38:50
18769	Rafael Altuna Erle	01:38:52
11069	Miren Josune Bikuña Zubia	01:39:01
2664	Aitor Urtaza Agirrezabal	01:39:12
11534	Jose Antonio Ugarte Inza	01:39:23
11659	Gorka Ortiz De Mendibil Agirre	01:39:36
5626	Aitor Urzelai Inza	01:40:41
11574	Trini Blázquez Díaz	01:41:29
11616	Jose Zulueta Bareño	01:41:54
11654	Joaquin Arroyo Vigo	01:43:12
2662	Jon Ander Aramendi Otamendi	01:43:31
18782	Iokin Astigarraga B. De Vallejo	01:44:25
11638	Pili Azkarateazkazua	01:44:33
11532	German Aginagalde Elexpuru	01:44:37
11538	Imanol Lukas	01:44:37
11570	Ion Murguzur Orueta	01:44:49
5886	Asier Murguzur Orueta	01:44:49
10130	Unai Urquia Echeverria	01:45:21
18765	Miren Arregi Uriarte	01:45:21
28026	Jon Ander Arregi U.	01:45:56
24387	Juan Luis Maiztegi	01:45:57
5900	Ander Zabarte Elkorobarrutia	01:46:32
11560	Mitxel Montero Lorenzo	01:47:50
19529	Tania Gómez Bueno	01:48:20
24318	Ainhoa Zumalde Madina	01:50:13
24321	Ainhoa Fdz. Arroiabe Aramburu	01:50:13
24309	Sergio Gomez Sanchez	01:50:27
24337	Jose Antonio Giraldo Miron	01:50:42
18789	Iokin Azkune Aiastui	01:50:45
27613	Jose Ramon Viana Erle	01:51:19
11639	Jokin Moyua Reinstadler	01:51:28
11575	Juan Antonio Sagasta Gonzalez	01:51:36
11566	Ander Moyua Yarza	01:52:37
22214	Susana Arrese Murguzur	01:53:05
24327	Maria Peralta Ariza	01:55:17
24322	Luis Carlos De Miguel Junto	01:55:17
18785	Maria Jose Ibarrondo Uriarte	01:55:23
18764	Xabier Arregi Aranburu	01:55:58
24377	Iban Rodriguez Agra	01:57:03
11590	Lorea Biain	01:57:06
18763	Txomin Gutierrez Velez	01:57:41
11542	Iñigo Garcia De Kortazar Elorza	01:57:52
11540	Nekane Maiztegi Ugarte	01:57:53
24296	Jasone Elorza Biain	02:00:55
18806	Itziar Igartua Moyua	02:03:13
24429	Amaia San Miguel Ugarte	02:06:47
18805	Jose Carmona Moyano	02:07:09
24304	Guillermo Caballero Pozo	02:08:24
24428	Juan Cruz G. De Cortazar Elorza	02:13:47
24302	Nagore Egiguren Dominguez	02:17:37
24471	Angel Maiztegui Otermin	02:25:59
18809	Axier Lopez Kortabarria	02:39:23
24469	Asier Osinaga Beitia	02:41:59
24382	Maider Osinaga Unzalu	02:41:59

ITURRIA: BEHPBIA-DONOSTIA

athlon
bizimodu osasungarrien sustapena

ZORIONAK PARTE-HARTZAILE GUZTIOI!

Zure osasuna da gure helburua!

ATHLON KOOP. E.
Kirol Medikuntza Zerbitzua
Loramendi, 3 Arrasate
Tel.: 943 712 604
kirolmedikuntza@athlon.es
www.athlon.es

Urtero parte-hartze errekorrak gainditzen dabilen lasterketak erabat harrapatu ditu ibarreko atletak, guretik ere jende uholdea joan zelako atzo Donostiara. Ez dakigu zenbatek hasi zuten lasterketa, baina bai 506 lagunek lortu zutela helmugara iristea.

Ibarrekoen artean azkarrenak izan ziren Yerai Varela oñatiarra (1:09:44) eta Araitz Etxabe arrasatearra (1:27:26). Oñatiko Asier eta Maider Osinagaren (2:41:59) meritua, baina, ez da txikiagoa. Biba zuek!

Atleta azkarrenak

Sailkapen orokorrari begiratuta, Pedro Nimo izan zen lasterketako gizonik onena (1:04:30), eta emakumezkotan Gipuzkoan geratu zen txapela, Claudia Behobide izan zelako onena (1:16:20). Eguneko albiste txarra, baina, emakumezko atleta nafar batek eman zuen. Izan ere, kirol hitzordu eder horrek tarteka modu gordinenean erakusten digu, bizitzak berak moduan, Behobia -Donostia esfortzu handia exigitzen duen kirol proba dela.

Argazkiak ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

Pedro Nimok ikuskizun ederra eman zuen helmugan. | J.A.

Iker Sarabia, errekuperatzen. | J.A.

DATUA

506

LASTERKARI

Horiek dira atzo Bulebarreko helmugara heldu ziren atleta debagoiendarrak, iaz baino 28 lagun gehiago.

Jendetza lasterketako azken metroetan. Eta, horien artean debagoiendarren bila ibili

Fagorrekin elkartasuna adierazteko aprobetxatu zuten batzuek | J.A.

Javier Irazabal elgetarra. | J.A.

Joxean Iñarra erori egin zen Boulevardeko esprintean. | J.A. | J.A.

Eserita, baina zelako esfortzua. | J.A.

Atleta guztiendako izan diren dominak, behin helmuga gurutzatuta. | J.A.

Iñakik eta Juantxok batera egin zituzten 21 kilometroak. | J.A.

AITOR AROSTEGI
ARRASATE

"Euri apur bat izan dogu, eta baita haizea kontran ere, baina tenperatura ederra egin du, eta ondo ibili gara. Orain babak jateko asmoz elkartuko gara lagunak bertako Arranoan, horrenbestez, ederto".

JOXEAN IÑARRA
BERGARA

"Donostia Roller taldeko batzuekin lehian ibili gara lasterketa osoan, eta zelako pena, helmugako zuzengunean lurrera joan naiz. Bizkarrean hartu dut min apur bat, baina beste barik. Taldeko bederatzi lagun etorri gara".

ANE GUEDE ETA JUNKAL ZUBIZARRETA
ESKORIATZA ETA ARETXABALETA

"Abixaran taldetik bederatzi lagun inguru etorri gara, eta egun pasa on bat egitea zen asmoa, orain elkarrekin bazkalduko dugu denok. Probari dagokionez, oso pozik amaitu dugu, egia da haizea zegoela, baina beno, dagoena dago, eta azaroan gaude. Eta, datorren urtean ere inguruan ibiliko gara seguruenik".

JON ANDER GARITANO ETA TXUS IGLESIAS
BERGARA

"Datorren urtean 100 kilometroko lasterketa egin guran gabiltza, eta lasterketa horretarako prestakuntza moduan baliatu dugu aurtengo Behobia. Bestalde, lasterketa egiteko oso giro ona egon da, aukeran haizea zakarregi, baina lasai egiteko asmoz etorri garenok ez dugu aparteko arazorik izan. Orain, marka hobetzea nahi zuenak, seguru larri ibili dela. ".

ziren Goienako lankideak. | JOSETXO ARANTZABAL

Aragoitik etorritako Javier, karroaz. | J.A.

Diego erizain disfrazaz. | J.A.

Yerai Varelak poztasun handiagoa erakutsi zuen iaz helmugan. | J.A.

YERAI VARELA | ATLETA

"Ahalegindu gara, baina egin duen haize zakarrak traba egin digu"



Yerai Varela | J.A.

Yerai Varela izan da aurten ere bailarako atleta azkarrena, baina Oñatikoa urrun ibili da iazko marka ikusgarritik (1.04.58).

Helburuak beteta, ala ez?

Egia esan ez naiz geratu oso gustura. Haize zakarra ibili da eta hasieratik ibili gara taldean tira eginez. Baina, ezinezkoa zela ikusi dugu, tarte batzuetan bazirudien aurreraka beharrean atzeraka gindoazela; ez da egun aproposena izan. Baina ez daukagu inongo aitzakiarik, e! Izan ere, bestela ere ez naiz ongi ibili.

Zein zen zure helburua?

Iazko markatik gertu ibili nahi nuen, baina ez nuen helburu konkreturik. Baina, lasterketa amaitu dugu, hortan, horren gaizki ere ez. Bestalde, baliteke bestetan baino ikusle gutxiago egotea, hor ere eguraldia igarriko zen.

JOSERRA BARRENA | GURUTZE GORRIKO ARDURADUNA

"Guztira 250 lagun ibiliko gara gaur lanean, hiru ospitale mugikorretan"

Joserra Barrena. | J.B.

Helmugatik bi kilometrora hil zen atleta nafarraren albisteak gogor kolpatuko zuen Joserra Barrena oñatiarra, seguru. Goizeko lehen orduan izan ginen Oñatikoarekin.

Zenbat lagun ari zarete gaur lanean?

Guztira 3 ospitale mugikor ditugu, eta denera Gurutze Gorriko 250 lagun ibiliko gara lanean.

Horrenbestez, zuendako ere luze joaten da eguna.

Beno, 06:00etan hasi gara eta arratsaldean, 18:00ak aldera amaituko dugu.

Zuendako, zer da halako lasterketa bateko gauzarik txarrena?

Atletek izan ditzaketen arazoen aurrean laguntzeko gaude gu hemen, eta txarrena izaten dira ezbeharrak. Esaterako, duela hiru urte atleta bat hil zen lasterketan, eta horrelakoak izaten dira txarrenak.

IKUSPUNTUA

JOKIN BEREZIARTUA
KAZETARIA

Behobia, barrutik eta lanetik

Egun ona edo txarra izan, helburua bete edo ez, ahazten ez den esperientzia da Behobia. Are gehiago iaz parte hartu eta aurten helmugan bertan irabazleen –aurten 23.637 izan zarete, zorionak guztiei!– artean atleta debagoiendarren inpresioak hartzeko aukera izan duenarendako. Lehen aldia izan nuen iaz barrutik, eta lehen aldia izan da aurten lanetik. Oroitzapen ugari, *flashback*-ak nonahi. Helmuga –publizitate barik aurten, iaz haizeak bota eta argazkilari bat harrapatu ostean–, antolatzaileak geldi ez geratzeko esaten, txipa kentzeko postua... Baina bereziki janaria ematen duten uneaz akordatu nintzen. Iaz irten baino lehen ez nuela nahikoa jan, eta oso erritmo lasaian joan arren, izugarri luzea egin zitzaidala proba. Hustuta, indar barik heldu nintzela Boulevardera. Bai, ikasi genuen lezioa. Merezi izan zuen, hala ere; Sariak lagundu zuen, sagardotegira joan nintzen-eta koadrilakoekin. Txuletarekin ahaztu genuen txakalaldia.

Aurten bestelakoa izan da plana. Gureen bizipenak jasotzea tokatu zait, eta Mikroa sartu aurretik arnasa hartzeko minutua eskatu ostean, haizea eta ikusleen babesa aipatzen zuten gehienek. Pozik, dena eman izanaren eta ordura arteko esfortzuek merezi izan dutenaren sentsazioarekin. Horrek inbidia ematen du, inbidia sanoa. Hurrengoa 50. edizioa izango dela aitzakia ederra da berriz ere helmugako emozio dosi hori berriz ere probatzeko.

GANIX LASA
ARRASATE

"Ez da lehenengo aldia Behobia egiten dudana, eta nahiz eta eguraldia kili-kolo egon den, jendea berdin ibili da animatzen. Lasterketari dagokionez, berez gogorra den proba izugarri gogortu du haize zakarrak".

JORGE GIL
ARRASATE

"Garrantzitsuena ez da marka jakin bat egitea, eta bai lasterketa hasi eta amaitzea, hortan, gustura. 19. kilometroan geratu egin naiz apur bat, baina bestela ondo ibili naiz. Hori bai, benetako gozamena orain dator".

JON ALBERDI
BERGARA

"Hirugarren urtez etorri naiz Behobia egitera, eta aurten polikiago ibili gara, baina bazkaria irabazi dugu. Haizeak gogor jo du, aldapa gora ez zen igartzen, baina aldapa behera gehiago igartzen zen, baina, ez dugu kexurik".

IKER SARABIA
ARRASATE

"Giroa aparta izan da, egindako marka ez horren ona [Barre]. Berez maratoia da nire helburua, eta hona lasterketa hori prestatzera etorri naiz, baina hemen betikoa gertatzen da, berotu egiten garela eta dena ematen dugula azkenean".

IBAI GRACIA
ESKORIATZA

"Lehenengoz hartu dut parte Behobia-Donostian, eta egia esan luzea egin zait, baina pozik amaitu dut. Berriro errepikatzeko moduko esperientzia izan da. Ikustekoa da jendeak zelan animatzen duen, hasieratik amaierara arte, gainera.

Eneko Agirre helmugara heltzen. | JAGOBA DOMINGO

Karlos Ortega bere txakurrarekin. | J.D.

TXAKUR LASTERKETA

Txapelketa ikusgarriaz gozatu zuten euripean, Gorlara gerturatu ziren atletek zein txakurrek

- Euskadiko Mushing Txapelketa eta Canicross-a jokatu da asteburuan Gorlan lehenengoz
- Parte-hartzaileek eta antolatzaileek oso pozik amaitu zuten, datorren urterako gogotsu

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Pertsonak baino, txakurrak izan dira protagonista asteburuan zehar, Gorlan jokatu den Euskadiko Mushing txapelketan eta Canicross lasterketan. Aurten lehenengoz antolatu dute Bergaran, eta ikusitakoa ikusita, datorren urtean berriz errepikatuko dute ziurrenik.

Euskadiko Mushing Txapelketa

Zapatuan ekin zioten Mushing txapelketari; hau da, bizikleta zein patinetean txakurrarekin batera korritzea. Bizikleta gainean azkarrena, Iskander Rodriguez izan zen; bai zapatuko lehenengo txanpan baita domekakoan ere. Patinetearen gainean Eneko Agirre izan zen irabazlea; Gipuzkoako txapelketarako puntuagarria den proban.

Canicross lasterketa

Canicross lasterketa izan zen beste hitzordu entzutetsua. Mushing txapelketan 15 bat pertsonek hartu bazuten parte, canicrossean 60 kirolarik korritu zituzten ibilbideak zituen 8,3 kilometroak.

Helmugara heltzen azkarrena 40 urtetik gora dituen Jose Felipe Larrazabal [24:59] izan zen. "Lasterketa gogorra" izan zela esan zuen, hala ere, "hasieratik 20-30 segundoko aldea lortu dut, eta eroso xamar sentitu naiz".

Eguraldi paregabea

Gezurra badirudi ere, kirolariak pozik zeuden eguraldiarekin; txakurrentzako tenperatura egokia egin zuelako. Ikusleentzako ordea, ez horrenbeste.

Fernando Cobos bergararra domekako canicrossean. | JAGOBA DOMINGO

Unai Alberdi bizikleta gainean txakurrarekin korrika. | JAGOBA DOMINGO

Parte hartzaileak proba aurretik hitz egiten. | JAGOBA DOMINGO

ENEKO AGIRRE | ANTOLATZAILEA

"Txakurrentzako eguraldi paregabea egin du, ikusleentzako ez hainbeste"

JAGOBA DOMINGO

Patinetean irabazlea izateaz gain, antolatzailea da Eneko Agirre tolosarra.

Zelan joan da asteburua?

Oso ondo, orain arte Gipuzkoan ez genuen Mushing Txapelketarik, eta pixkanaka txakur probek indarra hartu dutela ikusita, oso polita izan da bertan antolatzea.

Hiru taldek batera antolatutako proba izan da

Bai, Pasaiako Euskanikros, Donostiako Jokirol taldea eta Tolosako Uau. Hala ere, Maribi eta Fernando bergararren laguntza ezinbestekoa izan da, hemendik eskerrak eman nahi dizkiet.

Helburua beteta?

Bai, helburua jendeak kirol proba hauen inguruan egiten diren gauzak ikustea zen, eta lortu dugula uste dut.

Zelako ibilbidea da Gorlakoa?

Pertsonalki asko gustatu zait, hasieran errepidea gogor xamarra da txakurrentzako. Baina ibilbide ona dela pentsatzen dut, gaurko eguraldiak gainera ikusgarriagoa egiten du.

FUTBOLA

5-1 Estalan, errepaso ona Antzuolak Real Union taldeari

Antzuola izan da asteburuko talderik onena, Real Union 5-1 gaindituz Estala futbol zelaian. UDAk ere, badirudi bidea zuzentzeari ekin diola, oraingoan ere garaipena lortu zuen-eta; Getariakoren aurka 1-2 irabaziz. Bergarak 2-2 amaitu zuen etxean jokaturiko partidua Hernaniren aurka. Aloña ostera, Tolosatik puntu barik etorri zen bueltan, 4-2 galduta. Mondrak ere, garaipena lortu zuen Mojategin, Elgoibarren aurka 4-2 irabazi ondoren.

ESKUBALOIA

Ford Mugarrik eta Bergara KE taldeek garaipena lortu dute

Sailkapeneko bigarren postuan dago Ford Mugarri taldea. Zaragozan, Casablancaren aurka 29-31 irabazi zuten norgehiagoka; Eibarren aurka izango da hurrena. Bergara KE taldeak ere garaipena ekarri zuen [24-31], horiek, baina, Zarautzetik. Partidu oso txukuna jokatu zuten Muniategiren mutilek, hasieratik gogor eta buruaz jokatuz. Partiduko 20. minutuan zortzi goleko aldea lortu eta hori ondo kudeatu zuten.

SASKIBALOIA

Taldearen jokoarekin "oso pozik" amaitu zuen Larreategik

Denboraldiko bosgarren garaipena lortu zuten MUko mutilek zapatuan, Araberriren aurka. Gasteizko taldea mendean hartu zuten, 75-57 emaitzarekin. Hasieratik, partidu oso txukuna egin zuten Larreategiren mutilek, "astean zehar entrenamendu gogorrak egin ditugu, eta kantxan ikusi da". Jokalariek ondo baino hobeto erabili zituzten ikasitakoak eta Araberrikoek ez zuten irabazteko aukerarik izan. Sailkapenean hirugarren daude arrasatearrak, eta datorren astean Baskoniaren aurka jokatuko dute.

MENDIA

Gaur hasita, mendiaren bueltan hitzaldiak eta ikus-entzunezkoak

Gaur hasiko da Bergaran, Pol-Pol Mendi Taldeak antolatu duen Mendi Astea. Alex Txikon zinegilearen *Bajo Cero* eta *The Nomad Sibergeier obe and Ashiwa y Autana* dokumentalak proiektatuko dituzte osoko bilkuren aretoan 19:00etan. Hitzaldiei dagokienez, eguaztenean eta egubakoitzean izango dira, lehena osoko bilkuran eta bigarrena Pol-Polen egoitzan. Mendi Astearekin amaitzeko, beteranoek urteko azken irteera egingo dute; Irunetik Erlainera eta buelta.

PATINAK

Ainhoa Oianguren | Hanka Labanka taldeko patinatzailea

"Abiadurazko patinek sortzen duten sentsazioa ikaragarria da, itzela"

- Ainhoa Oianguren aramaioarrak Soraluze-Bergara krosarekin bukatu du denboraldia
- 6 urterekin ikasi zuen patinatzen, baina duela urtebete hasi zen abiadurazko patinekin

MIREIA BIKUÑA | ARAMAIO

Ainhoa Oianguren (Aramaio, 1996) aramaioarra duela urtebete hasi zen abiadurazko patinekin. Txikitan patinatzen ikasi zuen, baina abiadurarako saltoa aitarekin eman zuen. Agustin Oianguren Bergarako Hanka Labanka taldeko kide da, eta duela urtebetetik, alaba ere bai. Soraluze-Bergara egin ostean denboraldia bukatutzat eman du gazte aramaioarrak.

Soraluze-Bergara krosean parte hartuta bukatu duzu denboraldia. Ez duzu Behobia-Donostia egin. Zergatik?

Aitak esan dit nahiko gogorra dela patinetan egiteko. Aldapa gogorrak dituela badakit. Akaso, datorren urtean.

Urtebete daramazu abiadurazko patinekin, eta oso gaztea zara.

2012ko udan hasi nintzen abiadurazkoekin. 6 urterekin ikasi nuen patinetan ibiltzen, baina txapelketetan parte hartzen iaz hasi nintzen.

Aita eta osaba Bergarako Hanka Labankako kideak dira. Ezagutzen nuen haien lana, eta aitak animatuta hasi nintzen lehiatzen.

Dena den, abiadurazko patinetara heldu aurretik, beste hainbat kirol egin ditut: gimnasia erritmikoa, atletismoa eta hockeya. Hanka Labankak ere lan polita egiten du hockeyarekin.

Ohiko patinetatik abiadurazko patinetara. Oso ezberdinak dira?

Bai. Itxuraz oso ezberdinak dira. Erruberak askoz handiagoak dira, eta lerrokatuago daude. Baina esanguratsuena patinetan ibiltzeko modua da. Abiadurazko patinekin teknika ona izatea ezinbestekoa da. Teknika hobetzen duenak emaitzak eta errendimendua hobetzen ditu.

Abiadurazko patinetan hasi zinenean, zer egin zenuen aurrena?

Hasteko, beldurra gainditu behar izan nuen. Abiadura handia hartzen da, eta zalantzak baztertu egin behar izan nituen. Ondoren, patinekin ibiltzen zekien batengana jo nuen. Nire kasuan, aitarengana. Patinak dituen trikimailuak ikasi eta entrenatzen hasi nintzen. Aitak Gasteizen ikasi zuen, marianistekin, eta nik harekin ikasi dut. Hobe esanda, ikasten ari naiz. [Barre]

Zein da abiadurazko patinetan ibiltzeko modu egokiena?

Bizkarrak lurrarekin paralelo egon behar du. Ipurdia asko jaitsi eta hankak oso tolestuta eraman behar dira. Entrenamendu asko behar dira postura egokiena topatzeko. Postura onarekin oinkada askoz luzeagoa da.

Ze daukate abiadurazko patinek erakargarriak izateko?

Abiadura sentsazioa. Beldurra gainditu eta teknika apur bat hobetzen den unean, abiadurazko patinekin sentitzen dena ikaragarria da. Konfiantzarekin, kirol ikusgarria da.

Gainera, behin maila bat lortuta, lehiatzen hasteko unea heltzen da: txapelketetan parte hartzeko eta lagunekin eta aitarekin lehiak izateko ere bai. [Barre]

Ainhoa Oianguren, eskumakoa, Aramaioko kiroldegian patinatzen. | AGUSTIN OYANGUREN

"Abantaila da aita nire entrenatzailea izatea; errazagoa da horrela..."

"Probak dituzunean entrenamendu arinagoak egiten ditugu"

Abiadurak poztasun handia ematen dit niri.

Zenbat buruko min eman dizu abiadurak?

Hasi nintzenean, beldurra gainditzea izan zen erronka handiena. Ostean, teknika lantzen hasi ginen, eta hor ere buruko min galantak izan nituen. Bestalde, erorketak ere badaude. Modu batera edo bestera erori, min handiagoa edo txikiagoa har daiteke.

Eroriko batzuk izan ditut, baina ezer larririk ez.

Aita duzu entrenatzaile. Abantaila da hori?

Bai. Entrenamenduak gure kontura antolatzen ditugu. Biok tarte bat dugunean patinak jantzi eta bagoaz...

Nolako entrenamenduak egiten dituzue?

Oro har, teknika eta erresistentzia lantzen ditugu. Azken hiru asteetan hainbat probatan parte hartu dut, eta, hankak askorik ez nekatzeko, entrenamendu arinagoak egin ditut. Txapelketa garaian, teknikari ematen diogu garrantzi handiagoa.

Zenbat probatan parte hartu duzu urtebetean?

Bost probatan. Geroz eta lasterketa gehiago egiten dituzte abiadurazko patinendako. Lehenengo proba Donostiako Lilatoia izan zen. Bost kilometroko lasterketa denboraldia hasteko. Nahiko nekatuta bukatu nuen. Esperientzia polita izan zen. Donostiako 15 kilometroko proba ere egin nuen. Horixe bera izan da orain arteko luzeena.

Hanka Labanka 1997a ezkero

Bergarako Hanka Labanka taldea 1997an sortu zuten hiru lagunek. Patinetan ibiltzen ziren, eta talde moduan eratzea erabaki zuten. Ordutik hona, han-hemenka ikusten ditugu, batez ere, adiadurazko patinekin. Astean bitan elkartzen dira Labegaraietan: astelehenetan hockeyan jokatzen dute eta egubakoitzetan abiadurazko patinekin ibiltzen dira. 38 lagun daude taldean, gehienak bergararrak. Horietako 14 egon ziren atzo Behobia-Donostian.

Arrasate-Oñatin bigarren heldu zinen. Zer moduzkoa zen bidegorriko ibilbidea?

Ona. Polita izan zen. Oñatira heldu aurreko azken tunelean, paretaren kontra jo eta urratu batzuk egin nituen.

Soraluze-Bergaran ere ondo pasatu nuen. Gustura.

Txapelketa denboraldia bukatuta, entrenatzen jarraituko duzu?

Bai, baina lasaiago entrenatuko naiz. Akaso, hockeya eta atletismoa egingo ditut, baina patinak baztertu barik. Kirol barik ezin naiz egon, hortaz... Txapelketa garaia iristeaz bat, entrenamenduak gogortuko ditugu.

Abiadurazko patinekin profesionala izatea erraza da?

Ez. Oso zaila da. Nik gustuko dudalako egiten dut kirol hau, baina honekin ezin da bizi. Gaztea naizela esan didate, eta hobetzeko tarte handia daukadala. Ahal dudan guztia hobetzeko lan egingo dut aurrerantzean.

Hanka Labankako kide zaitugu, aita eta osaba bezala.

Hockeyaren bidez heldu nintzen Hanka Labankara. Ostean hasi nintzen patinekin. Askotariko adinetako kideak gaude. Ni naiz gazteena, eta oso pozik nago elkarteko kide izateaz.

Nahia Alkorta | 'Sabeletik mundura' atari digitaleko sortzailea

"Informazio bila hasi eta konturatu ginen euskaraz ez zegoela ia ezer"

Astebete pasatxo da Nahia Alkortak 'Sabeletik mundura' izeneko atari digitala aurkeztu zuela; gurasook badugu euskarazko informazio iturri berria

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Ama da Nahia Alkorta, eta *Sabeletik mundura* atari digitala sortu berri du. Duela astebete aurkeztu zuen.

Ze ibilbide du *Sabeletik mundura* atari berriak?

Bi urteko ibilbidea du. Guraso izatea erabaki genuenean informazio bila hasi eta konturatu ginen euskaraz ez zegoela ia ezer, eta zegoena oso sakabanatuta zegoela eta oso zehatza zela; ez zegoela gai guztiak batzen zituen ezer. Haurdunaldian zehar liburu piloa irakurri nuen, eta joan nintzen markatzen garrantzitsua iruditu zitzaidana. Orain, haurrak 15 hilabete ditu eta markatutako horiek guztiak euskarara ekartzen eta osatzen hasi naiz.

Zer da bertan aurkituko duguna?

Haurdunaldiaren kontakizuna egin genuen blog batean. Orain, informazioa da eskaini nahi duguna. Haurdunaldi-aurrea, haurdunaldia, erditzea, erditze-ostea, edoskitzea eta atxikimenduzko haziera landuko ditugu. Autore ezberdinetan oinarrituko gara: Carlos Gonzalez, Rosa Jové, Michel Odent, Ibone Olga, Laura Gutman... Horien liburuetatik atera dugun informazioarekin eta bestelako ikerketekin osatuko ditugu gure artikuluak. Gaiaren inguruan korronte oso ezberdinak daude, eta gehienetan kontrajarriak dira. Nik, topatu dut nire-

Nahia Alkorta haurrarekin. | NAHIA ALKORTA

Carlos Gonzalez, Laura Gutman... autore ezberdinen lanak jasoko dituzte

Profesionalei dei berezia egiten diete proiektuan parte har dezaten

tzat egokiena zena, eta uste dudana ugaztun izate horretatik hurbilen dagoena. Gure asmoa ez da inor kritikatzea. Errespetua izango du oinarri webguneak. Helburua da guk dugun informazioa ematea.

***Nora jo* atala berezia da.**

Bai. Atal horretan batu nahi ditugu sektore ezberdinetako profesionalak. Fisioterapeutak, emaginak, edoskitze-aholkulariak, doulak... Gai horietan lan egiten duten profesionalei zein elkarteei dei berezia egin nahi diet proiektuan parte har dezaten.

Arrautzarekiko alergia gainditzen ez dutenen kopurua handituz doa

L.Z. | ARRASATE

Pediatra alergologoen SEICAP erakundeak jakitera eman duenez handitzen doa arrautzarekiko alergia gainditu ezin duten umeen kopurua. Ez dira gutxi arrautzari alergia dioten umeak. Umeen %2,5-ak bi urte bete aurretik garatzen du intolerantzia hori. Kasuen %76 bost urte bete aurretik agertzen dira; %12 bost eta hamar urte bitartean, eta beste %12 hamar-hamabost urte bitartean.

Emaitza positiboek atzera

SEICAP erakundeko pediatra alergologoen esanetan intolerantzia hori gainditzeko modua haurrari modu progresibo eta jarraitu batean arrautza kantitate txikiak eskaintzea da. "Teknika bat da eta aditu batek gainbegiratuta egin behar da beti", zehazten du SEICAP-eko pediatra alergologo Luis Etxeberriak.

Etxeberriak azaldu du teknika horrek emaitza onak eman izan dituela orain arte. Tratatutako umeen %80ak arrautzarekiko intolerantzia gainditzea lortu du, eta helduaroan ez du arazorik agertu. Azken urteetan, ordea, pediatra alergologoak ohartu dira emaitza positibo horiek atzera egin dutela. "Handitu egin da intolerantzia gainditzen ez duten umeen kopurua", esan du Etxeberriak. Hala, alergia horrek presentzia gero eta handiagoa duela ohartarazten dute. Datua ere eman dute: etorkizunean arrautzarekiko alergia duen bost umetik batek ez du helduarorako intolerantzia hori gainditukо horrek dakartzan ondorio guztiekin.

Umea arrautza jaten. | EDUO

"Gordin eta zintzo" esplikatu beharko genizkieke haur txikiei ere heriotzarekikoak

L.Z. | ARRASATE

Argia astekarian landu dute gaia berriki, eta bertan jasotakoak ekarri ditugu *Guraso.com* atarira. Idoia Sara nafarrak iaz argitaratutako *Heriotzaren trataera eskolan (herioaz mintzo)* lana aipatzen du Unai Break bere artikuluan. Idoia Sararen esanetan formazioa da bidea.

Ipuina, lantresna egokia

"Ongizatearen jendartean heriotza ekar dezakeen guztia —gaixotasuna, zahartzaroa...— ezkutuan mantentzen dugu", dio Idoia Sarak. Babestu nahi horrek aurkako efektua izaten du, ordea. Idoia Sarak dio bizpahiru urte dutenetik umeek badutela heriotzaren berri, haren esanahia erabat ez ulertu arren gutxienez hamar urte bete arte. Eta proposamen zehatza egiten du heriotzaz jarduteko: ipuinak erabiltzea, alegia.

Aztertu duen bibliografian aitonaren edo amonaren heriotzaz dihardutenak dira gehien —*Aitona joan egin da*, *Zaintxo*, *Amona bizikletan*...— baina badira gurasoen —*Ama!*, *Hamabi galdera pianoari*...— edo, kasuren batean, ume baten —*Adio, adio!*— heriotza ardatz duten narrazioak. Sararen esanetan "gordin baina zintzo" esplikatu behar zaizkie gauzak txikiei, eta zenbait gauza argi utzi behar zaizkiela uste du. "Esate baterako, hil berri den pertsona ez dugula berriro ikusiko, edo ez dakigula non dagoen (...) garbi esan behar zaie zer gertatu zaion pertsona horri, eta orain gure oroitzapenetan dagoela".

Eman daiteke jazarpen egoera anaia-arreben artean?

L.Z. | ARRASATE

Ohikoak dira anaia-arreben arteko liskarrak, eta normaltzat jotzen ditugu gehienok. Zenbait adituk, ordea, atentzioa jarri nahi dute gaiaren inguruan eta hausnarketa egitera bultzatu nahi gaituzte.

Osagai asko ditu anaia-arreben arteko harremanak, eta lehia da horietako bat. Gurasoen maitasuna, denbora, baliabideak... partekatu behar dituzte, eta horrek jeloskortasuna eta indar neurketa areagotzen du. Kontuan hartuta gehienetan adin eta heldutasun desberdintasunak ematen direla anaia-arreben artean zenbait adituk ohartarazten dute jazarpenerako egoera egokiak eman daitezkeela familietan. Gaiaren inguruan ikerketa ezberdinak egin dituzte dagoeneko hainbat unibertsitatetan. Esatera baterako, AEBko New Hampshire unibertsitateko Corinna Tuckerren taldeak, Warwick unibertsitateko Dieter Wolkerren taldeak edo Jan Parker psikoterapeuta familiarrak.

Harremana zaindu

Noiz bihurtzen da liskarra jazarpen? Gurasook identifikatzen dugu muga?

Askotan pentsatu ohi dugu anaia-arreben arteko liskarrak osasungarriak direla, eta Dieter Wolker, esaterako, bat dator baieztapen horrekin. Uste du borroka horietan jarrera onargarrien eta ez onargarrien arteko mugak ezartzen direla. Kontua da horrelakoetan adi egon behar dugula gurasook jazarpenaren muga gainditua izan ez dadin. Identifikatu behar dugu haurrek zergatik gainditzen duten muga hori: ezagutzen ez dutelako edo ez errespetatzea erabakitzen dutelako.

Oso gutxi ikertu da anaia-arreben arteko jazarpenaren ondorioez. "Ez duzu soilik jazarpena eragiten dizun pertsonarekiko dezepzioa sentitzen, baizik eta egoera ikusi eta neurririk hartu ez dutenekiko ere bai", dio bere esperientzia partekatu duen biktima batek. Egoera horien inguruan jasotako testigantzetan arazoa larria izan daitekeela nabaritzen da.

Jan Parker espezialistak gomendatzen du gaiari buruz umeekin hitz egiteko egoera nola bizi duten jakiteko. Baloratu behar da baita ere arazoaren jatorria. Nola tratatzen dugu haur bakoitza? Ze tratu dute euren artean?

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**
guraso.com

Elkarrekin bizitzea erabaki duten antzezlaneko sei pertsonaiak. | IMANOL SORIANO

Nik ere nahi nuke etxe horretan bizi...

- 'Vivir en Villa Titiritaina' estreinatu du Ikusi Makusik
- Elkarrekin bizi diren sei lagun dira protagonistak

TXOMIN MADINA | OÑATI

"Egun batzuk oso urduri pasa ditugu, eta hona etorri garenean larri nengoen. Baina akats batzuk egin arren, oso gustura gaude", zioen egubakoitz iluntzean Axun Arzuagak, Ikusi Makusi talde oñatiarrak estreinatu berri zuten *Vivir en Villa Titiritaina* antzezlanaren egile eta zuzendariak.

Ez zen gutxiagorako. Oñatiko Santa Anan izan zen estreinaldia, Paske Lekuren Kultura Astearen barruan, eta aretoa ia guztiz bete zen. Ez bakarrik jendez, baita barre algaraz ere.

Komedia da obraren osagai nagusia; eta beti ere umorearekin, gaurkotasuneko kontuei ere egiten die erreferentzia gidoiak; pentsioen murrizketei, esaterako.

Gidoiaz gain, aktoreen lana ere aipatu behar da. Rosi Lukas, Angel Agirre, Josefina Martin, Ana Mari Lizeaga, Ana Mari Chacon, Tere Zubia, Karmen Goitia, Karmen Maiztegi eta Jabier Larrea dira aktoreak eta pertsonaiak sinesgarriak eta gertukoak egiteko profesionalak izan beharrik ez dagoela argi uzten dute.

Hainbat emanaldi aurretik

Aurreko antzezlanarekin, *¿Donde esta la pierna del alcalde?*-rekin, hamabi emanaldi egin zituzten Ikusi Makusikoek, eta badirudi honekin ere bide beretik doazela. Dagoeneko badakite Elgetan eta Gernikan egongo direla, eta Oñatin beste emanaldi batzuk ere egingo dituzte: herritar guztien aurrean eta Santa Anako mojendako, esaterako. Izan ere titiritaina etxean denendako dago lekua, eta bertan egonaldia egiten dutenak seguru ez direla damutuko.

Sei ezezagun elkarrekin

Lortutako arrakasta horretan zeresan handia du Arzuagaren gidoiak. Kasualitatez Arantzazun topo egin eta elkarrekin bizitzera joatea erabakitzen duten sei adineko pertsonaren istorioa kontatzen du antzezlanak.

Bost emakume eta gizonezko bat dira, guztiak ere asko bizitakoak eta elkarrengandik oso desberdinak: inoiz ezkondu ez den Richard, ohe saltzailea izandakoa; Parisen *vedette* bezala ibilitako Adriana; Consuelo margolaria; Alicia, ama eta amona elizkoia... Elkarrengandik hain desberdinak izanda ere, denborarekin elkar ezagutzen joango dira, nolabaiteko familia berezia sortuaz. Horren testigu egiten gaitu antzezlanak: elkarrekin bizitzen hasi eta egun gutxira hasten da, eta bi pertsonaiaren arteko harremana sendotzen denean amaitu.

MARITXU LARRAÑAGA
IKUSLEA

"Gustatu zait. Testu luzeak izan dituzte, buruan izateko gauza asko eta aktoreen lana meritu handikoa izan da".

JABIER GURIDI
IKUSLEA

"Emaztea izan da aktoreetako bat, eta oso polita iruditu zait. Barre asko egin dut gainera; oso ondo egon da".



JOSEFA SOMALO
IKUSLEA

"Oso dibertigarria iruditu zait, barre asko egin dut. Kontatzen duten istorioa, gainera, errealista dela uste dut".

ANA MARI CHACON
AKTOREA

"Lehenengo eguna izateko oso ondo egon da. Jendeari gustatu zaio, eta horrek asko betetzen gaitu".

Colas magoarekin eta bere lagunekin, opera neskatila-mutikoen gozamenerako

Opera Divertimentok 'Colas mago handia' ikuskizuna eskaini zuen Oñatin Musikegunen barruan

T.M. | OÑATI

Musika klasikoa publiko mota guztiei hurbiltzeko helburua duen Musikegunak programaren 35. edizioari hasiera emateko, etxeko txikienei zuzendutako opera saioa egon zen zapatuan Oñatiko Santa Ana aretoan: Opera Divertimento konpainiaren *Colas mago handia*, hain zuzen ere. Esan behar da obra hau ez zuela edonork idatzi; izan ere Wolfgang Amadeus Mozart da egilea, eta 1768an idatzi zuen, 12 urte besterik ez zituenean.

Opera, dibertigarria

Zapaturako Santa Ana aretoko beheko aulkiak bakarrik egokitu zituzten eta publiko aldetik saio arrakastatsua izan zen, ia aulki guztiak bete ziren-eta.

Ikuskizuna hasi zuten piano doinuen ostean, Pepita ezagutu zuten ikusleek, obra guztian zehar bidelagun izan zuten Colas magoaren ikaslea (eta bere magia trukoen emaitzak ikusita, ikasle ez oso fina, bide batez). Bere azalpen dibertigarriek eman zieten paso opera zatiei, eta berauetan, hiru pertsonaiaren istorioa jarraitu ahal izan zuten ikusleek: Bastian eta Bastiana maitaleak eta Colas bera.

Maitaleen arteko haserrea eta arazoak konpontzeko magoarengandik jasotzen duten laguntza kontatzen da operan. Askok genero seriotzat duten arren, aktore eta abeslariek publikoarekin izandako hartu-emanak barre algara bat baino gehiago eragin zuen eta neskatila-mutikoek adi jarraitu zituzten pertsonaien bizipenak.

Domekan gehiago

Atzo izan zen Musikegunen bigarren saioa, Xabier Lizaso Piano-jolearen eta Andoni Egañaren *Bi arreba* ikuskizuna, eta datorren asteburuan jarraituko du: domekan Emporako Ganbara orkestra egongo da Oñatin.

Piano doinuek eman zioten hasiera ikuskizunari. | IMANOL SORIANO

4. edizioa

Kantari

BERGARA 2013-11-09

Kantari heldu da ekuatorera; Bergaran bigarren saioa egin zuten Kzapatuan eta 160 gazte inguruk hartu zuten parte. Gogotsu eta ilusioz abestu eta dantzatu zuten Bergarako, Elgetako eta Antzuolako neska-mutilek. Denak, lagunez eta familiakoez lagunduta. ARGAZKIAK: I. SORIANO

Bergaran grabatutako saioak hilaren 26etik 28ra emitituko ditu Goiena telebistak martitzen eta eguenetan 19:30ean; biharamunetan, errepikapena 13:00ean; zapatuan, 12:30 eta 19:00ean asteko bi saioak batera; eta domekan, 12:30 eta 19:00ean ere bi saioak batera.

Kantariko hurrengo saioak abenduaren 14ean grabatuko dira, Oñatiko Gaztelekuan, 17:00ean.

Beste saioetako argazkiak ikusteko eta Kantari-ri buruzko informazioa jasotzeko:
blogak.goiena.net/kantari

Saio honetako argazki guztiak ikusteko:
http://goiena.net/argazkiak/kantariren-bigarrena/
EDO erabili aldamenko qr kodea.



nahi dut

ALTARIÑAK



KANTARIKO SAIOAK GOIENA TELEBISTAN

ARETXABALETAKO eta ESKORIATZAKO 3. eta 4. SAIOAK

GOIENA TELEBISTA | KANTARI | ARETXABALETAKO ETA ESKORIATZAKO SAIOEN EMANALDIA

AZAROAK 12, 19:30: 3. saioa
AZAROAK 13, 13:00: 3. saioa
AZAROAK 14, 19:30: 4. saioa
AZAROAK 15, 13:00: 4. saioa
AZAROAK 16: 10:00 eta 16:00: 3. saioa eta, jarraian, 4.a
AZAROAK 17: 13:00 eta 19:00: 3. saioa eta, jarraian, 4.a

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

GURE MUSIKA TALDEAK

JOSU ZUBIA

"Estudioa esperientzia gogorra izan da, baina merezi izan du"

- Egubakoitzean aurkeztuko du 'Argitzal' diskoa Josu Zubia oñatiarrak gaztelekuan
- Hamaika kantuz osaturiko diskoa, udan grabatu zuen Mutrikuko AME estudioan

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Josu Zubia oñatiar polifazetikoak lehenengo diskoa aurkeztuko du egubakoitzean etxean, Oñatiko gaztelekuan. *Argitzal* diskoa da Zubiaren estreinakoa, udan AME estudioan grabatutakoa, eta estudioko lehengo esperientziaz gehiago jakin nahian Oñatira jo dugu.

Duela urtebete txapelketak alde batera utzi eta zure karrera hasi zenuen; zelako urtea izan da?

Urte nahiko lasaia izan da; duela bi urte, oso urte gogorra izan zen, gauza larregi egin nituen. Aurten, diskoa prestatzen lasaiago ibili naiz, baina oso gogotsu.

Zergatik *Argitzal*?

Hasieran, nire asmoa diskoari *Argia* deitzea zen, proiektuaren izen berbera. Baina luze pentsatu ondoren, *Argia* izeneko hainbat gauza daude mundu honetan. Gainera, argi orok beti itzala dakar, lotuta dauden bi kontzeptu dira, eta hitz-joko horrek ematen dio titulua diskoari. Diskoan hitzaurre bat dago eta bertan azaltzen da argia zer izan daiteken; bere nortasunaren jabe den pertsona bat beste batzuentzako argia izan daiteke, baina argi horrek beti ekarriko du itzalen bat.

Estudioan lehenengoz, zelako esperientzia?

Uf... hasieran oso harrigarria izan zen; nolabait esateko, ez naiz musika aditua, eta klaketa jarri zidatenean...abesti guztiak klaketara moldatu behar izan nituen. Egia esan, oso zaila egin zitzaidan hasieran, hori izan zen gehien desmotibatu ninduena. Gainera, kantu guztiak bi aldiz grabatu behar izan nituen, soinu kontuengatik, Axular teknikaria ez zegoelako batere konbentzituta.

Zenbat denbora eman zenuen?

Uda hasieran, ekainean hasi nintzen, eta abuztuan amaitu nuen. Nire asmoa bi astean dena amaitzea zen, baina bai Axularren eta baita nire egutegiaren arazoengatik, luzatu egin zen.

Nondik nora diskoa?

Oso barruko diskoa da, oso gauza pertsonalak kontatzen ditu; ez bakarrik nireak, ingurukoenak ere bai. Sekula azaleratzea gura izan ez ditudan hainbat sentimendu daude bertan, ezkutuan, baina bertan. Lagun askok idatzi dudala bai, baina ez dela ulertzen esaten didate, baina apropos egindakoa da.

Egubakoitzean aurkeztuko duzu diskoa.

Bai, Oñatiko gaztelekuan aurkeztuko dut; oraingoan, talde eta guzti. Orain arte nik bakarrik ibili naiz, baina aurkezpenerako aldatzea erabaki nuen; horrek ez du esan nahi hemendik aurrera beti taldearekin joango naizenik. Taulara igoko diren lagunetako batzuek, gainera, diskoan parte hartu dute. Besteak beste, Izar Biainek akordeioa grabatu du, Ander Etxanizek baxua eta gitarra batzuk eta Naroa Zumaldek, Ganbara Txikiko abeslariak, ahotsa grabatu du eta Oñatiko Ganbara Abesbatzak ere bi kantutan hartu du parte.

Non egongo da salgai diskoa?

Hasiera baten, egubakoitzean gaztelekuan jarriko dut salgai, baina beste hainbat lekutan saltzeko lanean nabil.



Josu Zubia, *Argitzal* diskoaren promo argazkian. | JOSU ZUBIA

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Etxebizitza berria salgai Txarapea ibilbidean. 94 metro koadrokoa. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Guztiz jantzita. 260 metro koadroko terrazarekin. Bi garaje, marradunak, eta bi trasteleku. 270.000 euro. Deitu 661 57 81 71 telefonora.

Arrosa. Etxebizitza salgai Arrosan (Baxe-Nafarroa). Bi logela, bainera, komuna, sukaldea, berogailu elektrikoa, leiho dobleak, egongela beheko suarekin. Mila metro karratu lur etxe inguruan. Prezioa: 100.000 euro. Harremanetarako: xabilau@yahoo.es. Interesatuok deitu telefefono zenbaki honetara; 618-76 95 41

Atxondo. Atxondon familia bakarreko txaleta salgai. 4.000 m2-ko lursaila, 4 logela, 3 bainu, horma-armairuak, zoru bero-emaile bidezko berokuntza eta xurgapen zentrala. Guztiz hornitua. Bizitzera sartzeko gertu. Interesatuok deitu telefefono honetara: 615-70 12 25.

Berriz. Berrizen, Abeletxe auzoan, familia bakarreko txaleta salgai. Herri barruan, eskola eta kiroldegiaren aurrean. Oso eguzkitsua eta bista zoragarriak. Aukera oso ona. Deitu 660-28 20 47 telefonora.

Dima. Apartamentua salgai.57m2. Logela bat, bainugela, egongela, eta sukaldea balkoi txiki batekin. Guztiz hornitua eta eguzkitsua. Garaje plaza trasteleku itsatsiarekin. 7 urtekoa. 105.000 euro. Elvi. getxebarria@hotmail.com. Mugikorra 605-70 69 03. Posta: elvi.getxebarria@hotmail.com.

Duplexa salgai Oñatin. 90 metro koadroko duplexa salgai Atzekokalean. Sukaldea, egongela, bi komun, estudioa, bi logela eta trastelekua dauzka. Igogailudun eraikuntza berriko etxea. 625 70 54 44 edo 607 58 00 99

Elorrio. Atiko polita salgai Elorrion. 50 m2. Igogailua, komuna, logela, egongela eta sukaldea. Jantzita eta bizitzera sartzeko prest. Berria eta oso polita. 656-74 67 13 (20:00etatik 22:00etara). Posta: loitzate@hotmail.com.

Elorrio. Elorrio erdi-erdian estreinatu gabeko etxeabizitza salgai. Hiru logela, bainugela bi, beharrezko guztia daukan sukaldea eta trastelekua. Prezioa: 190.000 euro. Interesatuok deitu telefefono zenbaki honetara: 634-45 72 01.

Errenteria/ Orereta. Errenterian apartamentua salgai, 37 m2, logela, bainua, sukalde-egongela, eraberritua. Udaletik oso gertu. 85.000 euro. Interesatuok deitu telefefono honetara: 608-87 85 12.

Iurreta. Arriaundi auzoan etxea salgai. Prezioa: 50.000 euro. 685-72 80 42.

Oñati. Roke Azkunen 72 metroko etxebizitza salgai. Lau logela, sukaldea, egongela, bainugela. Dena kanpoaldera begira, balkoi batekin. Igogailua. Garajea aukeran. 656 00 84 92

Otxandio. 90 metro erabilgarri dituen etxebizitza salgai Otxandion. Bizitzera sartzeko prest, altzariz jantzia. Beharrezko guztia daukan sukaldea. Jangela-egongela, bainugela bi (batek leihoa dauka), 3 gela, 4 horma-armairu eta trastelekua. Garajea lortzeko aukerarekin. Igogailua garajetik trastelekuraino. 655-72 67 60 (arratsaldeko zazpietatik aurrera).

Otxandio. Otxandion apartamentua salgai. Altzariz jantzia. Trastelekuarekin eta igogailuarekin. 675-71 72 83.

103. ERRENTAN EMAN

Abadiño. Etxebizitza ematen da errentan, Muntsaratz auzoan. 85m2, 3 logela eta 2 komun ditu. Interesatuok deitu telefefono honetara: 662-55 40 77.

Aretxabaleta. Durana kalean etxebizitza ematen da errentan. 2 logela, komuna, sala eta sukaldea. Erdi jantzia. Interesatuok deitu telefefono honetara: 650 -93 96 93.

Bastida. Bastidan oporretako etxebizitza errentan ematen dut igerilekuarekin. Torre - otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazioak igerilekua eta saskibaloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Ezkaraitik hurbil. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabeteka errentan ematen da. Interesatuak deitu hona: 620-62 92 45. iarteaga_@hotmail.com.

Benidorm (Alikante). Etxebizitza errentan ematen da Benidorren. Deitu 602-21 20 36.

Berriz. Berrizen etxebizitza ematen da errentan. Hiru gela, bi komun, egongela eta sukaldea. Erdi-erdian. Autobus eta tren geltokitik 2 minutura. Oso eguzkitsua. 656-78 02 15.

Durango. Logela 1, bainugela 1, jantzigela, egongela handia, sukaldea eta balkoia. Guztiz jantzia. Igogailua. Herriaren erdialdean kokatua. Interesatuok deitu telefefono honetara: 627 -11 37 86.

Durango. Durangon etxebizitza ematen da errentan. 4 logela, sukaldea, komuna eta egongela. 657-79 54 95.

Durango. Durangoko Urkiagatorre kalean etxebizitza ematen da errentan. 3 logela, jan-egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. 680-94 92 05.

Elorrio. Elorrio erdi-erdian etxea ematen da errentan. Hiru logela, bainugela bi, beharrezko guztia daukan sukaldea. Estreinatu gabea. Prezioa: 600 euro. 634 -45 72 01.

Elorrio. Erdigunean etxea errentan ematen da 500 euroren truk. Logela 2, komun 2, sukalde berria eta trastelekua. Urtebetera salgai 180.000 euroren truk. Interesatuok deitu telefefono zenbaki honetara: 657-79 39 93.

Elorrio. Elorrio erdialdean etxebizitza ematen da errentan. 111 m2, 3 logela, sukaldea, sarrera, saloia eta 2 bainugela. San Juan kaleko, 1 zenbakian, igogailuarekin. Kontaktua: Argia (emailez bakarrik) argiaub@hotmail.com

Otxandio. Etxebizitza berria ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainua. Interesatuok deitu telefefono honetara: 605-77 37 21.

Tolosa. Lokal moduko etxebizitza bat errentan ematen dut Tolosan, persona bat edo bintzako egokitua,bi planta dauzka. Eguskitzua da eta lasaia. Prezio 450 euro. Interesatuok deitu telefefono zenbaki honetara: 644-47 51 69.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan. Logela bat edo bikoa. Gehienez 500 euro ordaintzeko. Interesatuok deitu telefefono zenbaki hauetara: 632 93 38 29 edo 602 88 84 80

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

Arrasate edo Bergara. Etxebizitza handia behar dugu errentan. Hiru logelakoa. Beheko solairua izan behar du. Lau pertsonako familia gara. Gloria. 697 96 45 10

Baserria edo etxea hartuko nuke errentan, lur-sailarekin. Telefonoa: 652 76 33 46

Baserria. Baserria hartuko nuke errentan Bergara, Soraluze edo Eibar inguruan. 680 36 22 41

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan, bi edo hiru logelakoa. 632 20 48 63

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Gutxienez bi logelakoa. Terraza badauka, hobeto. Interesatuok deitu telefefono zenbaki honetara: 603 77 58 82

Bergara. Familia batek etxea behar du errentan. 650 62 12 94 edo 943 76 19 52

Bergara. Hiru logelako etxebizitza behar dut errentan. Interesatuok deitu telefefono zenbaki honetara: 638 62 85 02

Durangaldea. Alokatzeko etxebizitza bila nabil. 602-10 73 14.

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 138.000 €.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekua. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekua. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €. Berrituta.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €. Berrituta.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 114.192 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegi 54 m². 2 logela. 96.000 €.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000 €.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 169.500 €.
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

ANTZUOLA:
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- **ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.**

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:
Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
Domingo Iturbe, adosatua 150 m2 + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.
San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

OSINTXU:
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 150.000 €. AUKERA BIKAINA.

105. ETXEAK OSATU

Abadiño. Logela ematen da errentan Muntsaratzen. Etxe berria toki lasaian. Deitu 679-61 71 54 telefonora.

Aretxabaleta. Erdialdean logela ematen da errentan. Sarrailarekin. Telebista gelan bertan. Josean. 603-14 28 89.

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Bikote batentzat egokia. Etxeko gainontzeko lekuak erabiltzeko aukerarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 722-45 33 59.

Arrasate. Pertsona bat behar dugu pisu bat osatzeko Arrasaten. Lau logela eta bi komun ditu, eta oso argitsua da. 230 euro hilabetean, gastuak barne. Animatu eta etorri ikustera! 608 57 97 70

Arrasate. Erdigunean logela ematen da errentan. Deitu 629 80 77 73 telefonora.

Bergara. Logela ematen da errentan erdigunean. Komun pribatuarekin. Sukalde eta egongela, partekatuta. Deitu 662-26 71 41 telefonora.

Bergara. Pertsona bat behar da pisu bat osatzeko bergara ingurunean. 95 metro koadro ditu: hiru logela, egongela handia, komun bat, despentsa eta balkoia. Oso zabala da. Leihoak PVC-zkoak dira, berogailua, aparkaleku amankomuna eta nahi izanez gero landatzeko lursail bat. Animatu eta etorri ikustera! 693-72 74 52.

Bergara. Logela ematen da errentan. Pertsona batendako edo bikotearendako aproposa. 699-09 46 26.

Durango. Pisukide bila nabil. Logela bat ematen da errentan, komun pribatuarekin. Baxu argitsua da, bi terrazarekin, tabira auzoan. Interesa deitu 637-29 24 65 telefonora.

Lasarte-Oria. Logela ematen da errentan Lasarte-Orian. Eskatzenden bakarralan-kontratudun pertsona izatea. Interesatuok deitu telefono zenbakira: 644 -23 91 52.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Matxiategi 30ean garajea salgai. 26 metro koadro ditu eta bi autorentzako lekua dago. Ibaiondo kalera irteera zuzena du. Ate motorizatua, argindarra eta ura. Aukera ona. Prezio onean. 650 60 26 55

Elorrio. Kiroldegian garaje irekia salgai. 699-48 17 68.

Elorrio. Berrio-otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Pintatu berria! berria bezala! interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! 658-75 92 64.

Otxandio. Bi garaje salgai, bietako bat itxia. Deitu 675-71 72 83 telefonora.

203. ERRENTAN EMAN

Durango. Garaje itxia ematen da errentan Durangoko Mendizabal auzoan (Alluitz kaletik dauka sarrera). Kotxe bi nahiko justu sartzen dira. Ezin hobea autoaz gainera, motorra, quada zein trasteak gordetzeko. 105 euro hilean. 645-73 22 66.

Durango. Garajea ematen da errentan Plateruen plazan, Durangon. 656-78 02 15.

204. ERRENTAN HARTU

Aramaio. Aramaion, garaje itxia errentan hartuko nuke. 690 83 98 53

3. LOKALAK

301. SALGAI

Atxondo. 43 m2-ko lokal-komertziala salgai Atxondon. Baldosak dauzka. Komun bat. 647-90 64 08.

303. ERRENTAN EMAN

Durango. Bulegoa ematen da errentan Plateruen plazan, Durangon. 656-78 02 15.

Elorrio. Aukera zoragarria, 170m ko lokala herriaren erdian alokatzeko pres,,berria, 5 eskaparate haundiak, autobus geltokiaren ondoan. 400 euro edozein negozio ipintzeko prest, primerako baldintzekin. 94-655 03 58. Etxelan 654-75 32 11.

4. LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Haur Hezkuntzan graduatua den neska euskalduna gertu haurrak zaintzeko. Esperientzia handia. Interesatuok deitu: 618 87 12 97

Arrasate. 13 urteko eskarmentua duen emakumea nagusi eta umeak zaintzeko edo garbitasun lanetan aritzeko gertu. Legezko paperak ditut. Etxean bertan ere bizi naiteke. 634 11 31 09

Arrasate. 55 urteko emakume euskalduna, arrasatearra, umeak edo nagusiak zaintzeko gertu. 943 79 60 89

Arrasate. Emakume arduratsua gertu hurrengo lanak egiteko: umeak eta nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta ospitalean gaixoak zaindu. Deitu 943 25 05 72 edo 658 70 56 94 telefono zenbakietara.

Arrasate. Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu 699 54 17 27 telefono zenbaki honetara.

Arrasate. Emakumea nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile aritzeko gertu. Deitu 608 05 33 53 telefonora.

Atariak garbitzeko. 45 urteko emakume bat prest dago atariak garbitu, umeak zaindu eta abar egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 83 84 13

Bergara, Antzuola edo Zumarraga. Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Erreferentzia onak ditut. Orduka, egun osoz edo ospitalean lan egingo nuke. Berehala hasteko moduan. 634 91 81 73

Bergara, Arrasate edo Oñati. Erizain laguntzaile ikasketak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. SanJuande Diosen lan egindakoa eta esperientzia handikoa. Egunez zein gauez lan egiteko gertu. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

Bergara. 49 urteko emakume arduratsua lan bila dabil. Edozein lan mota egiteko gertu. 943 76 52 39

Bergara. Emakume arduratsua, euskalduna, umeak zaintzeko gertu. Puerikultura tituluduna. Arantxa. 688 65 30 62

Bergara. Emakumea gertu nagusi eta umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. 610 34 97 88

Bergara. Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko, orduka. Maite. 638 62 85 02

Bergara. Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko, orduka. Maite. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 17 74 87

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Legezko paperak ditut eta 10 urteko esperientzia. Etxean bertan bizi izaten ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602-64 68 17.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetan jardunteko. Esperientziaduna eta lege agiriekin. Eraikuntzan ere lan egingo nuke. Dario. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631-00 42 63.

Debagoiena. 28 urteko neska gertu edadetu zein umeak zaintzeko edota garbitasun lanetan jarduteko. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda. Interesatuok deitu telefono honetara: 602-48 36 75.

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko lanak egin, atari eta eskailerak garbitu zein nagusi edota umeak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625-86 99 51.

Debagoiena. Mutil arduratsua, legezko agiriak eta pertsonen zaintzan eskarmentua duena, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile jarduteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631-00 42 63.

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen eskarmentua dut. Garbiketan ere lan egin dezaket. 618-04 15 45.

Debagoiena. Garbiketan edo pertsona nagusien edo umeen zaintzan orduka lan egiteko emakume esperientziaduna prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 650-62 12 94 / 943-76 19 52.

Debagoiena. Gizona etxean bertan bizi izaten nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko gertu. Esperientzia handikoa. 602-45 84 63.

Debagoiena. Neska arduratsua, klinika laguntzaile tituluduna, nagusiak zaintzeko, etxeko lanek egiteko edota tabernan lan egiteko prest. Nagusiak zaintzen esperientzia handikoa. 617-20 59 43.

Debagoiena. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko. Etxean bizi izateko ere gertu. 672-07 68 52.

Debagoiena. Edozein ordutegirekin garbiketa lanetarako edo pertsona helduak zaintzeko emakumea prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649-68 47 59.

Debagoiena. Edozein ordutegirekin garbiketa lanetarako edo pertsona helduak zaintzeko emakumea prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649-68 47 59.

Debagoiena. Emakumea etxean bertan bizi izaten lan egiteko gertu. Nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta abar. 602 -53 37 07.

Debagoiena. Emakumea prest edozein ordutegirekin garbiketa lanak egin edo umeak zein pertsona helduak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 664-12 43 25.

Debagoiena. 45 urteko emakume bat prest dago atariak garbitu, umeak zaindu eta abar egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 -83 84 13.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko edo sukalde laguntzaile lanetan jarduteko. Pertsonen zaintzan eskarmentua dut eta lege agiriak eguneratuta. 658-74 94 63.

Debagoiena. Nagusi edo umeak zaintzen zein garbitasunak egiten lan egingo nuke. Sukalde laguntaile ere bai. Geriatria ikasketak ditut. 691-03 25 02 / 943-54 09 41.

Debagoiena. Emakumea gertu edozein motako lanak egiteko: nagusiak zaindu, umeak, egun osorako,interna moduan; Sandra. Deitu telefono zenbaki honetara: 672-90 51 72.

Debagoiena. Neskalanerako gertu. Nagusi zein umeak zaintzen, garabitasun lanetan, tabernatan eta abar. Deitu telefono zenbaki honetara: 688-68 12 79.

Debagoiena. Tituludun erizain laguntzaileak gertu baserrietan, etxeetan eta ospitaletan lan egiteko orduka eta egun osoz. Erreferentzia onak ditugu eta esperientzia egoitzatan eta etxe partikularretan. 943-79 04 69, 662-02 33 29.

Debagoiena. Neska espainiarra gertu nagusiak zaindu zein etxeko garbitasunak egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientziaduna. 722-32 43 67.

Debagoiena. Nagusiak zaintzen zein garbitasunak egiten lan egingo nuke, astelehenetik egubakoitzera bitartean. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak eguneratuta dauzkat.Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603-22 53 66.

Debagoiena. Emakumea lan bila. Garbitasunak egiten, zaintzaile, kamioi gidari, banaketa lanetan, nagusiak zaintzen eta abar. Autoa eta gidabaimena dauzkat. 696-32 13 69.

Debagoiena. 23 urteko mutila gertu eraikuntzan, garbiketan edota tabernan lan egiteko. 602 -48 36 75.

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: garbiketan, tabernan zerbitzari zein sukalde laguntzaile, igeltsari, gidari... Mohamed. 636-60 48 51.

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, zaintza lanak egiten edota garbitasunean jardungo nuke, egunez zein gauez. Autoa daukat. 636-11 23 40.

Debagoiena. Mutila prest arratsaldez edozein lanetan aritzeko. 605-44 61 98.

Debagoiena. Lanerako gertu nago. Gidabaimena eta autoa dauzkat. 634-40 64 65.

Debagoiena. Mutil arduratsua, 43 urtekoa, baserrian lan egiteko gertu: nagusiak zaindu, ortuan eta abar. Autoa daukat. 631-59 40 66.

Debagoiena. Mutila nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin zein baserrian lan egiteko gertu. 699-09 46 26.

Debagoiena. Nikaraguako mutila gertu etxean bertan bizi izaten, egun osoz, orduka edota baserrietan lan egiteko. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 733 -28 81 24.

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, zaintza lanak egiten edota garbitasunean jardungo nuke, egunez zein gauez. Autoa daukat. 636-11 23 40.

Durangaldea. Lokalak zein garajeak garbitzeko lan bila. Baita bilketak egiteko ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603-49 00 02.

Durangaldea. Psikologo euskalduna. Haur eta gazteak: ikasketa arazoak, hiperaktibitatea, antsietatea. Helduak: bikote-arazoak, depresioak. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679-38 23 69.

Durangaldea. Emakumea lan bila dabil garbiketa lanak egiteko: tabernak, bulegoak, dendak, atariak. Zaintza lanak egiteko ere prest, bai nagusiak, bai umeak. Lanaldi erdira edo orduka. Paperekin. 670-67 46 41.

Durangaldea. Baserrietan eta traktoreekin esperientzia duen gizona lan bila dabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602-10 73 14.

Durangaldea. Emakume esperientziaduna garbiketan (tabernak, etxeak...) zein nagusien zaintzan aritzeko lan bila. 9:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. 620 -35 43 66.

Durangaldea. Emakumea lan bila, garbiketan zein pertsonen zaintzan aritzeko; ume zein nagusi. 24 orduz edo egunez. Asteburuetan ere bai. 697-12 64 38.

Durangaldea. Lan bila nabil, goizez 9:00etatik 14:00etara, edo orduka. Garbiketa lanetan edo nagusiak zein umeak zaintzen egin dezaket lan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665-54 96 28.

Durango. Neska gaztea goizetan, Durangon umeak eskolara eramateko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652-72 02 29.

Durango. Lanerako prest dagoen gizon euskaldun bat naiz. Edozer egiteko prest nago: nagusiak zaindu (esperientzia daukat),garbiketa lanak egin, denda edo tailerren batean lan egin... Mesedez, niretzako lantxoren bat badaukazu emaidazu aukera bat, eskertuko nizuke. Eskerrik asko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695-70 62 27.

Durangaldea. Neska arduratsua eta esperientziaduna, 24 orduz zein egunez, pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 -13 22 91.

Durangaldea. Neska arduratsua eta esperientziaduna, 24 orduz edo egunez, pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila dabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 -59 32 80.

Durangaldea. Garbiketan lan egiteko zein pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Aste bitartean 10:00 - 15:00 edota 21:00 - 08:00. Baita asteburuetan ere. Erreferentzia onekin. 632-99 23 83.

Durangaldea. Esperientziadun eta tituludun neska euskalduna umeak zaintzeko prest dago. Deituk 662-36 41 67 edo 94-681 39 40 zenbakietara.

Durangaldea. Nagusiak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egiteko prest. Asteburu, jaiegun eta gauetan ere bai. 690-68 73 95

Durangaldea. Etxeko lanak egiteko edo pertsonak zaintzeko, lan bila nabil. 24 orduz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632-43 56 59

Durangaldea. Neska euskalduna (Haur Hezkuntzan diplomatua eta Hezkuntza Berezian graduatua) goizez zein arratsaldez umeak zaintzeko prest. Lehen Hezkuntzako ikasleei etxeko lanak egiten laguntzeko ere prest. Urteetako esperientzia. 645-71 80 30.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil, zaintza zein garbiketa lanetan aritzeko. Paperak eguneratuta. Astelehenetik igandera. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 651-34 12 38.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila nabil. 24 orduz edo egunez bakarrik; baita asteburuetan ere. Erreferentziekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632-56 07 46.

Durangaldea. 43 urteko emakume durangarra, umeak zaintzeko prest stelehenetik ostiralera, goizetan. Ordutegi librea: 9:30-15:30. Esperientzia handia. 688-64 36 28.

Durangaldea. Pertsona arduratsua gauez pertsona nagusiak zaintzeko prest. Arratsaldeko 19:00etatik goizeko 7:00ak arte. Erreferentziekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 664 -73 38 75.

Durangaldea. Emakume arduratsua eta esperientziaduna, 24 orduz zein egunez, pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. 631-13 22 91.

Durangaldea. Emakume arduratsua eta esperientziaduna, 24 orduz edo egunez, pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632-59 32 80.

Durangaldea. Garbiketan edo zaintzan, orduka zein 24 orduz, lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 628-78 93 50.

Durangaldea. Neska gaztea 24 orduz pertsona nagusiak zaintzeko lan bila dabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara:602-11 06 10.

Durangaldea. 24 orduz nagusiak zaintzeko prest nago. 679 -53 01 60.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko, edo garbiketan aritzeko lan bila. 24 orduz edo egunez. Erreferentziarekin. 632-83 47 97.

Elorrio. Emakumea gertu nagusiak zaindu edo etxeko lanetarako. 636-25 12 15.

Elorrio. Haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte euskalduna, arratsaldez Elorrion haurrak zaindu eta eskolako lanekin laguntzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! Interesa baduzu, deitu: 688-64 06 04.

Gipuzkoa. Garbitasunean, nagusien zaintzan edota informatika eta webguneen programazioan lan egingo nuke. 628 -93 66 05.

Oñati. Erizain laguntzaile tituluduna, prest nagusiak zaintzeko eta baita etxeko lanak egiteko ere. Goizez. Maite. 677-05 39 06.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Aretxabaleta. 1.DBHko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Trukean, etxeko garbitasunak egin edo umeak zainduko nizkioke. 659 62 02 49

Bergara. "Ordenagailu bidezko diseinua" goi mailako zikloa ikasten ari den gazteak -laguntza eta orientzazio eskolak jasoko lituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 21:00etatik aurrera. 943 76 03 75

Durangaldea. Frantses eskola partikularrak jaso nahi ditut. 636-45 73 62.

Durangaldea. Ingeles eskola partikularrak jaso nahi ditut goizetan. 605-73 41 80.

502. EMAN

Atxondo, Elorrio, Durango (Bizkaia). Hezkuntza berezian eta haur hezkuntzan diplomatua dagoen 24 urteko neska bat naiz, momentuan psikomotrizitatea ikasten ari dena. Ega tituluduna eta ingeleseko B1.2. arekin. Lan experientziarekin. Egunean zehar, umeak zaintzeko prest eta baita hezkuntza arloan laguntza emateko posibilitatearekin. Mugikorra: 645-71 02 48 Garazi.

Arlo zientifiko-teknikoa. Ingeniaritza informatiko tituludun 27 urteko neska arrasateara naiz. Klase partikularrak eskaintzen ditut alor zientifiko -teknikoei dagozkien gaietan (matematika, fisika...). Ingelesa barne. Interesatuok deitu telefono zenbakira eta Olaiarengatik galdetu 635743250.

Durangaldea. Neska euskalduna batxilergoarekin eta administrazio tituluarekin, etxeetan eskolak emateko prest. 662-36 41 67 / 94-681 39 40.

Durangaldea. Zure seme edo alabak ikasteko zailtasunak ditu? Hitz egiteko arazoak? Hizkuntzarekin arazoak? Ikasle horiei laguntzeko, edota etxeko lanak egiten laguntzeko prest nago. Deitu arazorik barik. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615-73 53 85.

Durangaldea. Ekonomian lizentziatutako neska, eta DBH eta batxillergoan irakasle izateko masterduna, eskola partikularrak emateko prest, LH, DBH zein batxillergoan. EGA eta First tituluekin. 635-74 67 98.

Durangaldea. Ingeles eskola partikularrak ematen dira Durangon. Ordua 10 euro. Esperientzia handia. 688-64 36 28.

Durangaldea. Ulermena, adierazmena, ikas teknikak edota ikasgai zehatz batean trebetasunak hobetzeko laguntza eskaintzen da. Hezkuntza psikologian aditua. Bakarkako eskolak. 616-24 20 08.

Durangaldea. Haur Hezkuntzan, hezkuntza berezian eta psikopedagogian lizentziatua dagoen neska euskaldunak eskola partikularrak ematen ditu Durangaldean, astean edo asteburuetan. Ikas teknikak, idazketa-irakurketa errefortzuak zein premia bereziak dituzten ikasleei laguntza. Esperientziaduna. Tel: 665-71 37 11.

Durangaldea. Ingeniaritza lizentziatua LH, DBH edo batxilergoko ikasleei laguntza eskolak emateko prest. Euskaraz zein gaztelaniaz. EGA tituluduna. Edozein ikasgai emateko prest. 679-42 89 5.

Durango. Lehen Hezkuntza bukatzear dagoen neska euskalduna etxeetan eskolak emateko prest dago. Esperientziarekin. 628-83 27 10.

Durango. Eskola partikularrak ematen ditut astelehenetik larunbatera. Hizkuntzak: euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa eta latina. DBH-nesperientzia. Filologian lizentziatua eta EGA titulua daukat. 605-74 77 99.

Durango. Ingeniaritza lizenziatua LH, DBH edota batxilergoko ikasleei laguntza eskolak emateko prest. EGA tituluduna. Edozein ikasgai emateko prest. Telefonoa: 679-74 28 95.

Durango. Administrazio eta zuzendaritzan lizentziatutako neska euskaldunak eskola partikularrak ematen ditu. Esperientzia dauka eskolak ematen. Baita haur eta gazteekin ere. Ordua 6 euro izango litzateke. Interesa baldin baduzue, bidali mezu bat telefono honetara: 695-70 62 27.

Durango. Durangon ingeleseko eskola partikularrak eskaintzen ditut, dinamikoak eta entretenigarriak, taldetxikiak. Inglesez hitz egin eta idatzi nahi baduzu,637-29 24 65 telefonora deitu.

Durango. Ingeleseko eskola partikularrak eskaintzen ditut, dinamikoak eta entretenigarriak, talde txikiak. Inglesez hitz egin eta idatzi nahi baduzu, 637-29 24 65 telefonora deitu.

Eskola partikularrak. Zientzia arloko eskola partikularrak ematen dira (matematika, kimika, fisika) LH eta DBHko mailetarako. 675 01 09 95

Oñati. DBH eta Batxilergoko ikasleei eskola partikularrak emateko prest. Goi mailako ingeniaritzako ikasketak, EGA eta FCE tituluduna. Haur eta gazteekin lan egiten esperientziaduna. Deitu telefono zenbaki honetara: 627 29 22 35

Villabona. Klase partikularrak ematen dira matematika, fisika, kimika eta inglesa. Taldeka edo bakarka. Ingenieritzan tituluduna. 664-16 02 68 eta continental56@yahoo.es.

6. MOTORRRA

601. SALGAI

Honda Hornet CB 600 motorra salgai. Honda Hornet CB 600 motor horia salgai. 2008. urtekoa. 10.200 km. Bi jaka (Alpinestar L tamaina eta Levior M tamaina), hiru kasko (Hebo L tamaina, Lem S eta M tamainak) eta eskularru pare bat oparitzen ditut. Prezioa: 5.600 euro. Informazio gehiagorako, deitu konpromiso barik. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629-45 52 41.

Mercedes Marco Polo. Westfalia etxeko ekipazioa, motorra 2.2 CDI 122cv, eskuzko kanbioa, 2002. urtekoa, 206.000 km. Bi ohe bikoitz (4 helduentzat),Erabat ekipatua. Egoera onean. Beti garajean. Interesaduenak dei dezala ikusteko eta frogatzeko: 606-38 86 90 / 669-24 49 47.

Quad ibilgailua. Quad ibilgailua salgai, Adly ATV-300 4t markakoa. Egoera oso onean, 7.000 km, kolore gorria, plaza bi. Ikusi nahi izanez gero, konpromiso barik deitu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 609-56 75 37 (Jose).

Toyota rav4 autoa salgai. 2010. Urteko Toyota RAV4 (4x4) autoa salgai. 44.000 kilometro. Prezioa: 25.000 euro. 615-70 12 25.

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Txintxillak salgai. Emea zuria da eta arra bioleta kolorekoa. Emea haurdun dago. Umeekin egotera ohituta daude. 50 euro gehiagogatik, urtebeterako janaria emango nuke, dendan baino askoz merkeago. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634-77 84 58.

703. EMAN

Txakurkumeak. Arratoi txakurkume bi ematen dira opari. Emeak dira. 680 55 17 65

Txakurkumeak ematen dira opari. Bull terrier eta cocker arteko nahasketa diren txakurkumeak ematen dira opari. Hiru hilabete dute. 686-07 61 60.

704. BESTELAKOAK

Katu gazte bat aurkitu da Elgetan. Katu gazte bat aurkitu da Elgetan. Emea da eta kolore argikoa. Jaberik badu deitu hurrengo zenbakira. 615 74 28 46

Katua galdu Arrasaten. Musakolan katu emea galdu da. Bularraldea eta hankak zuriak dauzka eta bizkarraldea marroixka. Buztana beltza eta ezkerreko belarri erdi kolore bakoa. ikusi edo aurkitu baduzu deitu mesedez zenbaki hauetara: 943 79 59 34 edo 677 69 15 26

8. DENETARIK

801. SALGAI

Bizikleta eramateko barra salgai. Kotxearen bolari lotuta doan bizikleta eramateko barra salgai. Thule markakoa, erreferenztia: Sweden945. Dendan 660 euro, nik 450euro-an salduko dut. Behin erabilita. 686 -42 69 37 /94-620 11 42.

Mendiko bizikleta salgai. Felt q 120 gila modeloa. Deore kanbioak, esekidura urkila (horquilla de suspension), RSRdisko -balazta hidraulikoak (frenos de discos hidraulicos). Neurria: S. Kolorea: grisa. 5 urte ditu. Prezioa: 375 euro. Oso gutxi erabilia eta berri-berri dago. Interesatuek 665-71 47 83 telefonora deitu (arratsaldez).

Triziklo berria salgai. Triziklo berria salgai, 98 euro kostatu zitzaidan eta 65 euroan dago salgai. 634-77 84 58. Berri-berri dago.

Umeentzako bizikleta salgai. Umeentzako bizikleta salgai. 10 urtera arte erabiltzeko. Ondo zainduta dago, egoera onean. Merkea. 648-63 58 06.

802. EROSI

Klarinetea. Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. Mila esker. 619 63 94 87

Mendiko bizikleta. "Mountain bike" moduko bizikleta erosiko nuke, parrilla eta gurpil babesleduna. Kaskoa ere erosiko nuke. Deitu zenbaki honetara: 617 21 89 74

804. HARTU

Bidali zure ordenagailua Peru eta Boliviara. Zure ordenagailua hondatuta edo zahartu badago, edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu eta Kainabera GKEaren bitartez bidaliko dugu Peru eta Boliviako ospitale eta eskoletara. 655-71 76 66.

Bizikletak. Erabiltzen ez dituzun edo botatzeko dauzkazun bizikletak jasoko nituzke. Berdin da zein egoeratan dauden. Bila joango nintzateke. Iñaki. 699 06 23 95

Erradiadoreak. Etxetik kentzeko dituzun erradiadoreak hartuko genituzke. Deitu telefono honetara: 626 13 07 56

Etxetik kendu gura dituzuen liburuak batzen ditugu. Zuen etxeetako apal zein ganbaratik kendu gura dituzuen liburuak batzen ditugu. 645 72 00 52.

Sofak. Etxean dauzkazun sofak kendu gura badituzu, guk hartuko genituzke. Jasotzera joateko arazo barik. 646 36 68 02

805. TRUKATU

Elkarteko plaza. Bergara erdialdean dagoen elkarte bateko plaza trukatuko nuke Madura elkarteko beste batekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 667 66 12 40

806. GALDU

Betaurrekoak Arrasaten. Urriaren 18an, egubakoitza, betaurrekoak galdu nituen San Andresen. Aurkitu badituzu, deitu mesedez zenbaki honetara: 943 76 52 39

Eguzkitako betaurreko gorriak funda eta guzti galdu ditut Arrasaten. Adidas markakoak. Aurkituz gero, deitu zenbaki honetara: 606 24 79 09

Eskumuturreko bat galdu dut. Eskumuturreko bat galdu dut. Bertan honako hau dago idatzita: Jone 1971-06-24. Norbaitek aurkituko balu, bueltatzea eskertuko nioke, mesedez. Garrantzitsua da. Eskertu egingo da. 634-43 36 97 (Jone).

Jertse gorria galdu Aretxabaletan. Mayoral etxeko jertse gorria galdu genuen igande iluntzean aretxabaletan (urriak 20). 18 hilabete neurrikoa da. Bilatu duenak dei dezala mesedez telefono zenbaki honetara. Eskerrik asko! 636-83 62 00.

807. AURKITU

Betaurreko batzuk aurkitu dira. Mo markako betaurreko more batzuk agertu dira lurretako jaietan, plazan, kutxa marroi (Multiopticas) baten barruan. Iurretakoudaltzaingoan daude.

Gutunazala. Bergarako Artzamendi kalean, urriaren 27an, dirua aurkitu nuen gutunazal baten sartuta. Galdu duenak, dei dezala zenbaki honetara: 699 31 39 61

Larunbatean eskumuturreko bat aurkitu nuen. Larunbatean inizialak zituen eskumuturreko bat aurkitu nuen Garaiko pilotalekuan. Jabeak deitu dezala. 633-33 55 83.

808. BESTELAKOAK

Lursaila. Lursaila behar dut, Bergara edo Soraluze inguruan, bi zaldi denboraldi batez edukitzeko. 639 09 95 22 edo 680 36 22 41

Lursaila Azpeitia. Azpeiti inguruan lursail bat hartuko nuke errentan , 1,5 edo 2 hektarea, ardiak botatzeko eta baratza egiteko. Gutxienez 5 urterako hartu nahi nuke. Azpeitia inguruan (Errezil, Zestoa, Azkoitia, Urrestilla,....). Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 663-90 67 93.

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

75 urteko emakumea adiskidetasu bila. 75 urteko emakume alargunak, antzeko adineko Baiona, Biarritz, Donostia edo inguruko gizon nahiz emakumeekin adiskidetasun bat bilatzen du, pasieran ibiltzeko, museoetara joateko, hizketan aritzeko. Zerbait gehiago jakin nahi izanez gero deitu telefono zenbaki honetara: (0034) 697 -23 28 83 (Marisol).

Arabiera-Euskara. Hizkuntza trukea egiteko gertu: nik arabiera erakutsi eta trukean euskara jasoko nuke. Debagoienean. Interesatuok deitu telefono honetara: 631 46 56 98

Kuadrilla euskalduna osatu Bilbon. Ba bai, banandu naiz , beste askoren moduan ,eta asteburuko nire bizitza berrantolatzeko premian nago. Lagun euskaldunak aurkitzea gustoko nuke. Neskak zein mutilak 50-58 urte ingurukoak, txangoak egiteko, bazkaltzera joateko, pasieran eta kontu-kontari ibiltzeko, zinera edo eta hondartzara joateko. Hainbeste gauza daude lagunekin egin ahal direnak!. Momentuan pixkabat galduta sentitzen naiz, baina espero dut animatuko zaretela eta koadrila polita osatuko dugula. Deitu, zuen deiaren zain egongo naiz eta. Telefono zenbakia 606-25 05 84.

Mutil atsegin bat neska atsegin baten bila. Mutil atsegin bat naiz eta neska atsegin baten bila nabil,46 urte ditut,altua eta morenoa naiz,ez ditut kargarik. Alaia naiz eta bidaiatzea gustatzen zait. Deitu telefono honetara: 609-48 11 24.

Saskibaloian jolastu nahi duzu? Saskibaloian jolastu nahi duzu? astelehenetan, 19:00etan, Almenen saskibaloian jokatzeko taldekide bila gabiltzan 18 urtetik gorako neska talde bat gara. Anima zaitez! deitu edo idatzi helbide honetara: saskineski@gmail.com 653-74 86 26 / 670-35 79 13.

Etxebila higiezinak
943-44 61 66
SALGAI
AMARA Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Bistak. 189.000€.
AMARA Terrazarekin azkena. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. 15 m2ko terraza. 85 m2. Egoera oso onean. 199.000€.
AMARA Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berogailua. Berritua. 198.000€.
AMARA OSINAGA Bi logela, sukaldea, egongela handia, bi bainugela. Balkoia. 320.000€.
AMARA ZAHARRA Autonomia. Hiru logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 240.000€.
LOIOLAKO ERRIBERA Bartzelona etorb. Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 280.000€.
GROS Azkena. Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela. Oso polita. 199.000€.
INTXAURRONDO Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kalera. 125.000€.
INTXAURRONDO 80 m2. Bi logela, egongela bikoitza, sukaldea, bi bainugela. Trastelekua. Garajea. 166.000€.
EGIA Igogailua. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. Berokuntza sistema. Garajea. 155.000€.
LOIOLA Aralar. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Balkoiak. 156.000€.
PASAI DONIBANE Etxebizitza oso polita. Bi logela, sukalde-egongela handia, bainugela. Terraza. Bistak kaira. 170.000€.
TRINTXERPE Euskadi etorbidea. Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela. Bi balkoi. 130.000€.
LEZO Gaintxurizketan. Baserri-etxea. Terrenoa. Eguzkitsua. 180.000€.
LEZO Hiru solairuko baserria, bi solairuko etxea eta terrenoa. 290.000€.
ALOKAIRUAK
AMARA OSINAGA Hiru logela, sukaldea, egongela, bi bainugela. Dena kalera. 1000€.
EGIA Atotxako dorrea. Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela. Bistak itsasora. 850€.
PASAI DONIBANE. Bi solairuko etxe berria. Balkoia. Bistak kaira. 650€.
LOIOLA Hiru logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoiak. Igogailua. 600€.
USURBIL Hiru logela, egongela, sukaldea, bi bainugela. Berokuntza sistema. Berritua. 700€.
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

Udalak, UNEDek, Enpresa Digitalak eta Migel Altuna Institutua dira erakunde inplikatuak. | SERGIO CANO

Bergaran IKT-en astea gaur hasita, enpresei zuzendua

Udalak sustatutako Berelan foroaren ekimenetako bat da ikastaro sorta

JON BEREZIBAR | BERGARA

Bergaran, gaur, Komunikazio eta Informazio Teknologien astea hasiko dute. Enpresa, komertzio eta ostalariei teknologia berrietan trebatzeko ikastaroak eskainiko dizkiete, Enpresa Digitala egitasmoaren barruan. Euskalteleko autobusa industrialdeetara joango da ikastaroetarako eta herritarrek eta merkatariek KZgunean izango dituzte eskolak. Teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerei buruzko informazioa eta, baita, formazioa eskaintzea da helburua, enpresa eta komertzioetan bereziki pentsatuta. Saio irekiak dira, debagoiendar guztientzat.

Horrela, talde eta erakunde desberdinentzako moduko eskaintza izango da, eta doan izango da kasu guztietan.

Bergarako Udalaren ekimenez antolatu dira saioak. Izan ere, hutsune bat atzeman zuen gobernu-taldeak agintera iritsitakoan. Horrela, foro bat osatu zuten Bergarako eragile ezberdinekin. Egoera aztertu zuten eta eguenean aurkeztu zuten ikastaro sorta da emaitzetako bat. Antzuola eta Elgetako Udalek ere parte hartzen dute IKT-en sustapen egitasmo zabal honetan. Berelan dauka izena foro horrek. Oraingo honetan, Miramongo enpresa digitalak, erakundeekin batera antolatu du programa. Tolosan, arrakastarekin, 5 urte daramatza programak finko, eta esperientzia hori da Bergarara ekarri dutena. Azaroaren 11tik 15era izango dira saioak eta guneak bi: autobus ibiltari bat eta KZgunea. Izena lehenago eman beharra dago.

IKASTAROAK

ENPRESENTZAT

Webguneak nola sortu, marketin joerak eta mugikortasuna eta gailu mugikorrak. Lekua: autobus ibiltarian, industrialdeetan.

MERKATARIAK ETA OSTALARIAK

Saio bereziak: KZgunean: Eginez ikasi.

PUBLIKO OROKORRA

Sare sozialak, lan bilaketa eta salerosketan Interneten. Saio irekiak dira gizarte osoarentzat.

Tuenti sare sozialaren jabetza osoa eskuratu du Telefonicak

Telefonicak erosi du, osotasunean, Tuenti sare sozial espainiarra. Aurretik telefonia konpainia enpresaren %90aren jabe zen eta orain jabetza osoa eskuratu du. Horrek Tuentin eragingo dituen aldaketen berri ez dute eman. Tuentik nazioarteko zabalkunde fasean jarraitzen du, Latinoamerikan bereziki. Ekainean Mexikon ipini zuten erabilgarri sare soziala, esate baterako. Zerbitzu berria ere abiatu zuten orduan, mugikorretan saldorik izan gabe ere nabigatu ahal izateko. Tuentiren *app* bereziaren bitartez jarrai dezakete nabigazioa zerbitzu horrekin.

Spotify eta Deezer-ek erdibitu dute jada streaming-aren sektorea

Musika streaming-aren alorra egonkortuz joan ahala, bi dira nagusitza ia osoa lortu dutenak: Spotify eta Deezer. Musikariek sosik jasotzen ez dutela salatzen badute ere, finkatu egin da negozioa eta merkatua ia bitan legoke zatitua. Bi zerbitzuak 2008 urtearen bueltan abiarazitakoak dira eta doako publizitatedun harpidetzak eta ordainpekoak dauzkate biek. Sektorean liderra Spotify da eta mundu mailako hedapen zabalduena ere zerbitzu horrek dauka. Deezer-ek, bere aldetik, hileko 24 milioi erabiltzaile aktibo ditu, hala eta guztiz ere. Liderrak izanda ere, momentuz zerbitzu hauek ez dute irabazirik sortzen.

Google-en Helpouts zerbitzu berria martxan da dagoeneko

Urrutiko eskola eta azalpenak emateko zerbitzu berria abiatu du Google-ek Helpouts izenarekin. Hangouts-en txatean oinarritzen da zerbitzu berria eta helburua da erabiltzaileek elkarri, azalpenen bitartez, lagundu ahal izatea. Google Plus-en profila eta webcam bat besterik ez dira behar. Erabiltzaileek aukera dute euren laguntza zerbitzuak eskaini eta horiek trukean dirua eskaintzeko. Horretarako erabiltzaileek alta eskatu behar dute eta Google-ek baimendu egin beharra du zerbitzu berria direktorio baten sartzeko. Ordainketen itzulpenak onartzen ditu.

Domotikan du interesa Apple-ek patente berriekin

'Gauzen Internet' deritzon joeraren barruan, Apple-ek zenbait patente erregistratu ditu

J.B. | ARRASATE

Etxerako sistemen arloko zenbait patente erregistratu ditu Apple-ek azken boladan. Azkena, etxe barruko sistemak zentralizatzen dituen HUB bat da. Etxe barruko gailu, sistema eta tresna ezberdinak elkarren artean konektatzen ditu HUB horrek eta horrekin batera etxe barruko pertsonen mugimenduak jarraitu eta irakurtzeko gauza litzateke sistema berria. Sistema honekin, erabiltzailearen mugimenduarekin bakarrik, bestelako agindurik eman barik, HUB-a gauza ei da aginduak atzeman eta betetzeko. Akzioak aurreikus ditzake sistemak eta agindua eman barik argiak iziotu ala ateak zabalduko lituzke.

Gaur egun domotika moduan ezagutzen den teknologiatik harago joango litzateke Apple -en asmakizun berria. Teknologia prediktiboak, lokalizazioa, urrutiko kontrola, gauzen Internetarekin uztartzen ditu diseinuak patentearen arabera.

Lepoan tatuatutako mikroa patentatu du Motorolak

Tatuajeak zuzenean laringetik hartuko luke ahots-korden soinua gailuekin komunikatzeko

J.B. | ARRASATE

Teknologiaren muga berriak, gaur egun, *weareable*, ala jantzi daitezkeen gailuetan daude. Motorolaren azkena tatuaje bezala lepoan txerta daitekeen mikrofonoa da. Patentea erregistratu berri du eta ahotsaren soinua zuzenean hartuko luke laringetik, giro soinua saihestuko litzatekeelarik. Patentean ez da zehazten tatuaje hori benetan azalaren azpian marraztен den ala itsatsitako eranskin bat besterik ez den. Asmoa da mikrofono tatuatu hau zuzenean komunikatu ahal izatea gailuarekin.

Patentean oraindik

Zehaztasun gutxi ditu oraindik patenteak eta kargatu ere zelan egingo den ez da zehazten. Nokiak ere tatuajeetan oinarritutako sistema bat badauka, deien abisuak jasotzeko.

SCENTEE

Usaindun oharrak mugikorrean

Mugikorreko alertekin batera lurrin ezberdinak askatzeko gauza den gailutxoa, mugikorrari eransten zaiona, atera berri du Scentee enpresak. Ohar mota bakoitzari usain jakin bat eslei diezaioke erabiltzaileak: menda, mailuki, izpiliku, kanela, sagar, jasmin ala koko lurrinak aska ditzake gailutxoak, besteak beste.

TELE-BEGI

OIHAN VEGA

Urtero telefono berria

Vodafone telefono operadoreak martxan jarritako publizitate kanpainaren oinarria zera da: "urtero sakeleko telefono berria estreinatuko duzu".

Eta hori iragartzeko usaimenarekin jokatzen dute. Egia baita, zerbait berria eskuartean dugunean egiten dugun lehendabiziko gauza usaintzea dela. Nork ez du liburu berri bat usaindu, edo arropa berria janzterakoan usaimenaren bitartez plazerra sentitu…

Horraino, ados, berri usainak plazerra eragiten du, eta sakeleko telefonoaren pantaila babesteko jartzen duten plastikotxoa kentzea baino gauza gozagarriagorik ez dago munduan.

Baina benetan uste duzue abantaila dela urtero urtero sakeleko telefono berria edukitzea? Badakizue zenbat kostatzen den telefono bat konfiguratzea? Zure gustuko doinua jartzea, gustuko duzun pantaila aukeratzea... Behin eta berriz, urtero prozesu bera. Telefono berria hartu eta arratsalde osoa xahutu beharra aplikazio guztiak zuk nahi dituzun ordenean jartzen.

Eta behin gustora zaudela, zure sakeleko telefonoaren truko guztiak ezagutzen dituzunean, ZAS! Beste berri bat ematen dizute, eta berriz ere zerotik hasi behar!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 11

'Harmailatik'

Astebukaeran izan diren kirol ezberdinen inguruko errepasoa ikusteko aukera izango duzu. | **21:23**

12:00 Magazinea
13:00 Erreportajea
13:15 AsteON
13:40 Ekogune
14:10 Onein
14:43 Zorion Agurrak
14:47 Berriak
15:17 Eguraldia
15:20 Zorion Agurrak
15:25 Ur eta lur
15:50 Zorion Agurrak
15:57 Onein
16:29 Berriak
16:59 Eguraldia
17:02 Zorion Agurrak
17:07 Bideo klipak
17:43 Klaketa
18:25 Ekogune
18:55 Zorion Agurrak
19:00 Berriak
19:25 Eguraldia
19:28 Tolosako abesbatzen leihaketa
19:58 Zorion Agurrak
20:08 Magazinea
20:53 Berriak
21:18 Eguraldia
21:23 Harmailatik
22:08 Berriak
22:33 Eguraldia
22:36 Magazinea
23:21 Gurean gaur

MARTITZENA, 12

'Berriak'

Egunero, Debagoieneko azken orduko berri eta gertaeren inguruko albistegia eskainiko dizuegu. | **14:45**

12:00 Magazinea
12:45 Harmailatik
13:25 Klaketa
14:07 Zorion Agurrak
14:15 Tolosako abesbatzen leihaketa
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Harmailatik
15:53 Onein
16:25 Klaketa
17:07 Berriak
17:27 Eguraldia
17:30 Zorion Agurrak
17:35 Tolosako abesbatzen leihaketa
18:05 Harmailatik
18:50 Zorion Agurrak
19:00 Berriak
19:25 Eguraldia
19:28 Zorion Agurrak
19:33 Kantari
20:03 Zorion Agurrak
20:10 Magazinea
20:55 Berriak
21:20 Eguraldia
21:23 Bertso Txapelketa Nagusia
22:08 Berriak
22:33 Eguraldia
22:36 Magazinea
23:21 Gurean gaur

EGUAZTENA, 13

'Asmatu baietz!'

Hartu parte zuzenean Goiena telebistaren lehiaketan 943 25 05 03 telefonora deituta, eta jaso saria. | **19:40**

12:00 Magazinea
12:45 Onein
13:10 Kantari
13:40 AsteON
14:05 Ikusi irratia
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Tolosako abesbatzen leihaketa
15:43 Harmailatik
16:23 Berriak
16:48 Eguraldia
16:51 Harmailatik
17:31 Erreportajea
17:46 Aho bizarrik gabe
18:53 Zorion Agurrak
19:00 Berriak
19:20 Eguraldia
19:23 Bideo klipak
19:40 Asmatu baietz!
20:10 Magazinea
20:55 Berriak
21:20 Eguraldia
21:22 Ekogune
21:52 Magazinea
22:37 Berriak
23:22 Eguraldia
23:52 Gurean gaur

EGUENA, 14

'Planik bai?'

Astebururako planik bai? Mireia Bikuñak emango dizkizu izango diren kultura ekitaldien berri. | **17:52**

12:00 Magazinea
12:50 Onein
13:15 Tolosako abesbatzen leihaketa
13:40 Ekogune
14:10 Bideo klipak
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Ikusmira
15:30 Zorion Agurrak
15:35 Klaketa
16:17 Aho bizarrik gabe
17:24 Berriak
17:49 Eguraldia
17:52 Planik bai?
18:12 Ekogune
18:42 Bideo klipak
19:00 Berriak
19:20 Eguraldia
19:23 Planik bai?
19:43 Kantari
20:11 Magazinea
20:56 Berriak
21:21 Eguraldia
21:24 Planik bai?
21:44 Berriak
22:14 Eguraldia
22:17 Magazinea
23:02 Gurean gaur
23:32 Planik bai?

EGUBAKOITZA, 15

'AsteOn'

Astean zehar Debagoienean albiste izan diren berri esanguratsuenak emango dizkizugu. | **21:38**

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Kantari
13:30 Bideo klipak
14:00 Tolosako abesbatzen leihaketa
14:25 Planik bai?
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Tolosako abesbatzen leihaketa
15:38 Zorion Agurrak
15:44 Planik bai?
16:08 Berriak
16:33 Eguraldia
16:36 Ekogune
17:06 Bideo klipak
17:26 Erreportajea
17:41 Ikusmira
17:58 Klaketa
18:40 Planik bai?
19:00 Zorion Agurrak
19:05 Berriak
19:35 Eguraldia
19:40 Bideo klipak
19:50 Klaketa
20:20 Planik bai?
20:45 Zorion Agurrak
20:50 Berriak
21:15 Eguraldia
21:18 Planik bai?
21:38 AsteON
22:08 Ekogune
22:38 Planik bai?
22:58 Berriak
23:23 Eguraldia
23:26 AsteON
23:56 Planik bai?

ARRASATE IRRATIA

'Santa Rita' taldearen kontzerturako sarrerak zozketatuko ditugu

Kooltur egitasmoaren barruan, Kataluniako Santa Rita taldea izango da azaroak 14ean. Aloud records-eko errebelazio berriaren rock alternatiboaz gozatzea nahi duenarentzat sarrerak zozketatuko ditugu. 943 25 05 05era deitu edo irratia@goiena.com -era idazten dutenen artean banatuko ditugu.

Eñaut Elorrieta izango dugu 'Igo Autobusera!' irratsaioan

Astean zehar, Eñaut Elorrieta *Igo Autobusera!* irratsaiora gonbidatuko dugu 107.7an. Azaroaren 16an, Amaia antzokian eskainiko duen kontzertuaren nondik-norakoak kontatzeko. Era berean, egubakoitza, hilak 15 sarrerak zozketatuko ditugu bertaratu nahi dutenen artean.

Behobia-Donostia izango dugu berbagai Arrasate Irratian

Gaur, astelehena Behobia-Donostia maratoi erdiaren gaineko nondik-norakoak azalduko dizkigu Jokin Bereziartua kazetariak. Helmugan bertan jasotako korrikalari debagoiendarren lehen inpresioak kontatuko dizkigu, baita lasterketa herrikoiak eman zituen beste hainbat xehetasun ere.

TELE-ALBISTEAK

Behobia-Donostiako lasterketako errepasoa 'Harmailatik' saioan

Lasterketa entzutetsuan gureko ordezkariek bizi izandakoak jasoko ditu gaur kirol saioak

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Ia mende erdia bete zuen atzo Behobia-Donostia lasterketak, 49 edizio dagoeneko, eta azken urteotan moduan, Goiena Telebistak ibarreko ordezkarien ondoan bizi nahi izan zuen egun handia: irudiak batu, adierazpenak jaso, bizi izandako esperientzien testigu izan, azken batean. Hala, Jokin Bereziartua lankideak helmugan jasotako materiala erakutsiko dute gaurko *Harmailatik* saioan, 21:23an hasita.

Lasterketako irabazlea Pedro Nimo galiziarra izan zen, emakumezkoetan azkarrena, Claudia Behobide gipuzkoarra eta debagoiendarren artean, Yerai Varela oñatiarra. 21 kilometroko lasterketa amaitzean aurpegi zurbilak, alaiak eta pozez beterikoak ikusi genituen.

Canicrosaren erreportajea

Behobia-Donostia lasterketa ez da izan aste-bukaerako kirol ekintza bakarra. Gorlan ere lasterketa izan zen, baina bertan atletekin batera txakurrek hartu zuten protagonismo handiena. Izan ere, Euskadiko Mushing

Behobia-Donostia lasterketako korrikalariak Boulevard-eko helmugara heltzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Behobia-Donostiako lasterketa eta Canicrossa 'Harmailatik' en

txapelketa eta Canicrossa ospatu da Gorlan. Bertan ere, eguraldi kaxkarra izan zen nagusi, haize gogor eta hotza. Hau, ikusleen okerrerako, baina txakurren onerako izan zen. Zapatuan, bizikleta eta patinetako modalitatekoek jokatu zuten lehenengo txanpa eta Iskander Rodriguez eta Eneko Agirre izan ziren azkarrenak. Domekan aldiz, canicrossa izan zen eta helmugara heltzen lehena Joxe Felipe Larrazabal beteranoa izan zen.

ZORION AGURRAK

OÑATI
Ekain Galparsoro Galdos
Azaroaren 16an, 8 urte. Zorionak, maitte! Aitatxoren, Iratiren eta amatxoren partetik, muxu handi bat zure urtebetetzean.

BERGARA
Ane Mujika Agirre
Azaroaren 15ean, 8 urte. Zorionak, Ane! Etxeko guztion partetik muxu handi bat eta egun politxa euki dezazula!

ARRASATE
Goiatz eta Maddi Belategi Galdos
Azaroaren 15ean, 3 urte. Zorionak, *pitxintxos*! Heldu da eguna eta primeran pasatzea opa dizuegu etxeko guztiek. Jaso ezazue marrubizko muxu goxo bat aitatxoren partetik eta txoko-marrubizko beste bat amatxoren partetik.

OÑATI
Kepa Lopez Lasa
Azaroaren 15ean, 8 urte. Zorionak, *Tronko*! Disfrutatu eta ondo pasatu zure eguna etxeko guztien partetik.

BERGARA
Oier Aranes Albisua
Azaroaren 15ean, 8 urte. Zorionak, *guapo*! Ondo pasatu zure zortzigarren urtebetetzian. Patxo handi bat etxekoen partetik.

OÑATI
Kimetz Korta Iñarra
Azaroaren 15an, 4 urte. Zorionak, pottoko! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna etxeko danon partetik.



ARRASATE
Arrate Bergaretxe Astigarraga
Azaroaren 14an, 5 urte. Zorionak etxeko guztien eta, bereziki, zure ahizpa Saioaren eta lehengusina Alaitz, Maddi eta Malenen partetik. Ondo pasatu zure eguna.

BERGARA
Amets Urbina Olaso
Azaroaren 14an, 7 urte. Zorionak, Amets! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna lagun eta familiako danekin. Patxo bat.

ARRASATE
Naroa Kortabarria Maskariano
Azaroaren 13an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Egun zoragarria pasa dezazula laguntxo eta familiakoekin. Muxu bat. Uxue, aitatxo eta amatxo.

ESKORIATZA
Julene Otxoa-Aizpurua Hermosilla
Azaroaren 13an, urtebete. Zorionak eta besarkada handi bat aitonaren partetik!

ARRASATE
Tomas Sanchez
Azaroaren 13an, 91 urte. Etxekoen partetik zorionak eta oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean.

ARRASATE
Amalur Arizabaleta Rodriguez
Azaroaren 12an, 10 urte. Zorionak bihotz-bihotzez! Zoragarria zara, Amalur. Patxo erraldoia etxekoen partetik eta oso ondo pasatu zure egunean.

OÑATI
Naroa Moiua Bikuña
Azaroaren 11n, 8 urte. Zorionak, *guapisima*! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzia, etxeko danon partetik.

ARRASATE
Jessica Tena Garcia
Azaroaren 11n, 20 urte. Zorionak, Jessica! Oso ondo pasatu zure egunean. Muxu asko zure lagunen partetik! Julen, Jon Ander eta Maitane.

OÑATI
Keltse eta Kemen Malbadi
Azaroaren 11n, 4 urte. Zorionak, bikote! Azkenean heldu da zuen eguna! Ondo-ondo pasatu. Patxo handi bana etxeko danon partetik.

OÑATI
Irene Anduaga
Azaroaren 10ean, 18 urte. Zorionak eta urte askotarako *uni*ko bi lagunen partetik! Egun ona izan eta McDonaldsian ikusiko gara!



ARETXABALETA
Pello Jauregi Unzueta
Azaroaren 10ean, urtebete. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure lehen urtebetetze egunean eta muxu pilia etxeko guztien eta, bereziki, aitatxoren eta amatxoren partetik!

ARRASATE
Oier eta Iraia Berasaluze
Azaroaren 10ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik, bikote!

OÑATI
Izadi Garcia Aranburu
Azaroaren 9an, urtebete. Zorionak, *pittuki*! Ondo-ondo pasatu zure lehen urtebetetzian. Patxo potolo bat aitatxoren, amatxoren eta familixa danaren partetik.

BERGARA
Ian Merino Padilla
Azaroaren 9an, urtebete. Zorionak, *granuja*! Etxekuen partetik patxo mordo bat!



OÑATI
Iker Igartua Cortabarria
Azaroaren 8an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Urte askotarako! Ondo pasatu zure egunian. Patxo handi bat familixaren partetik.

OÑATI
Beñat Oleaga Mugarza
Azaroaren 8an, 4 urte. Zorionak, Beñat! Ondo ospatu eguna zure laguntxo eta familixiarekin. Muxu pila etxekuon eta, bereziki, Anttonen eta Marenen partetik.

ARETXABALETA
Nahia Aguirre
Azaroaren 8an, 6 urte. Zorionak, potxola, etxeko danon partetik! Mila muxu potolo.

ANTZUOLA
Ane Chaparro Dominguez
Azaroaren 8an, 3 urte. Zorionak, txiki! Ondo-ondo pasatu eguna laguntxuekin jolasten eta pa handi-handi bat etxekuen partetik!

BERGARA
Marene Kalboetxeaga Arriaran
Azaroaren 8an, 3 urte. Zorionak, politxoi! Hiru urtetxo, ze handi! Patxo handi bat etxekuen partetik.

BERGARA
June Dacosta
Azaroaren 7an, 9 urte. Zorionak, June! Muxu handi bat eta ondo pasatu eguna, potxola, Aitorren, Mirenen eta Andoniren partetik.

ESKORIATZA
Urtzi Diaz Rivas
Azaroaren 7an, 5 urte. Zorionak, txapeldun. Heldu da zure eguna. Aitatxo, amatxo eta Elaiaren partetik, egun on bat opa dizugu. Segi aurrera, pirata. Aupa Erreala!

ARRASATE
Jacqueline Huerta
Azaroaren 7an, 21 urte. Zure pisukideen partetik, zorionak! Egun ona pasatu! 21 patxo handi.



ARETXABALETA
Ane Aguilar eta Beñat Olabe
Azaroaren 5ean, 4 eta 20 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze eguna, besarkada asko etxekoen partetik! eta ia afaitxoren batera gonbidatzen gaittuzuen...

BERGARA
Naia Ibarzabal Aranzabal
Azaroaren 5ean, urtebete. Zorionak, politxori! Egun ona pasatu zuren lehen urtebetetzean, etxeko guztien partetik. Muxu bat, *prexioxa*.

ARETXABALETA
Oxel Artolazabal Martinez
Azaroaren 4an, 8 urte. Zorionak, Oxel! Honezkero zortzi urte! Oso ondo ospatu zure eguna eta opari asko jaso! Zortzi muxu handi zuretzat denon partetik!

ARETXABALETA
Ioritz Madinabeitia Calleja
Azaroaren 3an, 3 urte. Zorionak, bihotza! Txoko-marrubizko muxu pila bat zuretzako, bereziki Anartzen partetik.

OÑATI
Ane Alberdi Gil
Azaroaren 2an, 3 urte. Hiru urtetxo, sorgintxo. Zorionak etxekoen partetik eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea.

ARRASATE
Alex Gomez Garrido
Azaroaren 1ean, urtebete. Zorionak, txikitxo, zure aitatxoren eta amatxoren partetik! Muxu handi-handi bat!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.
Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

Iker eta Unax Olañeta Cueva

Bergara. 2,530 eta 2,420 Kilo. Urriaren 25a. Gurasoak: Lide eta Hasier. Argazkian, Iker eta Unax gustura sehaskan.

Xare Maguregi Olabe

Ziortza-Bolibar. 3.070 Kilo. Azaroaren 6a. Gurasoak: Maite eta Joseba. Argazkian, Xare jaioberria sehaskan lo.

Amets Ostolaza Isasa

2.700 Kilo. Azaroaren 6a. Gurasoak: Ion eta Amaia. Argazkian, Amets aitarekin eta amarekin.

Sheila Elkoroiribe Aguiar

3.280 Kilo. Azaroaren 4a. Gurasoak: Iban eta Llani. Argazkian, Sheila jaioberria sehaskan.

Jokin Elkoro Arrese

Bergara. 3.320 Kilo. Azaroaren 3a. Gurasoak: Nerea eta Andoni. Argazkian, Jokin jaioberria sehaskan, adi-adi.

Aiur Villar Etxezarreta

4.100 Kilo. Azaroaren 1a. Gurasoak: Miren eta Gorka. Argazkian, Aiur jaioberria sehaskan.

Ane Arregi Orueta

3.550 Kilo. Azaroaren 2a. Gurasoak: Nagore eta Iñaki. Argazkian, Ane jaioberria aitaren besoetan.

Mikel Vazquez Estrella

Arrasate. 4.300 Kilo. Azaroaren 1a. Gurasoak: Marijo eta Roberto. Argazkian, Mikel amaren besoetan.

Eroski hipermerkatuaren partetik,

zorionak

jaioberriei eta gurasoei

Eroskik, zuen lehen beharretarako,
10 euroko bonua* egingo dizue opari
Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI zurekin

* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Gauzatzea / Donostiako auzoa	▼	Mongoliako hiriburua / * Bergarako auzoa	▼	Irudi geometriko / Zalantza	▼		
▶			▼		▼			
	Bizitasunik gabe / Igarle	▶						
Giza multzo / Barazki mota	▼	Ate inguru / Gizon izena	▶ ▼					
▶		▼					Toka, nuen	
Musika tresna / Puska	▶					Nitrogenoa / Zintzoa	▶ ▼	
▶				Traidore / Europar Batasuna	▶	▼		
Musika nota / Birak eginez	▶		Izana / Bokala	▶ ▼				
▶			▼					

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SOLUZIOAK





Ezetz igarri!: Mikel atzerrian zen bitartean jaiotako alabatxoa zen ezezaguna.

SUDOKUA

			2	7				
	5				6	8		7
	7	6		8	9			3
1	6		8		5	3		4
3								2
7				3	4			
				6		2		5
			4					8
	4	2	3	5	8		9	

HIZKI SALDA

Topa itzazu Hego Amerikako bost hizkuntza

E	A	T	G	R	C	E	P	N
K	I	T	X	U	A	I	C	A
R	A	O	L	F	O	A	J	H
E	E	O	A	E	T	E	F	U
O	A	A	A	I	M	A	R	A
L	U	A	U	R	S	A	H	T
E	P	A	P	Y	D	G	S	L
R	C	K	I	T	X	E	A	A
A	Z	E	H	S	E	I	U	D

EZETZ IGARRI!

Laneko kontuak zirela-eta,
Mikel atzerrira joan eta
handik bi hilabetera
itzuli zen etxera.
Etxean sartzean,
emaztea ezezagun batekin
ikusi zuen ohean.
Benetan poztu zen Mikel.
Nola liteke?

AI, ENE!

Usainak usain, egin irribarre badaezpada

Hurrengoan komunean sartu eta argazki kamara hau aurkituz gero lasai: argazkia beharrean, komuneko papera aterako dizu.
www.nopuedocreer.com

AHOBERO

"Nire seme-alabak judutarrak Hitlerrekin moduan sentitzen dira"

SILVIO BERLUSCONI | ITALIA POLITIKARIA

Laster argitaratuko den liburu baten Italiako lehen ministro ohiak dioen esaldietako bat duzue albokoa. Berlusconirentzat, mundu guztia bere familiaren kontra ei dago. Pentsatu al du uneren baten akaso berak esan eta egindakoen ondorio izan daitekeenik?
www.elmundo.es

EGURALDIA

Max. 17º
Min. 8º

Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da. Zerua hodeitsu egongo da eta euria egingo du.
euskalmet.net

HAMARREKOA

Andoni Agirregomezkorta Joan den martitzenean estreinatu zuten 'Irrikitown' umorezko programaren bigarren denboraldia eta bertan agertzen den aktore sortaren barruan jarraitzen du donostiarrak | TXOMIN MADINA

"Nik ere pasa dut boladatxoa lan oso gutxirekin"

1. Astearte gauetan, *Irrikitown*. Zergatik ikusi beharko nuke?
Une on bat pasatzeko, barre pixka bat egiteko... Egungo egoerarekin gizartean tristura zabalduta dago; normalean irribarre egiteko beharra dugu eta garaiotan, gehiago.

2. Umorearekin , arazoak ez dira hain arazo?
Arazoak beti arazo, baina umorearekin beti ematen duzu urrats txiki bat arazoak gainditzeko, edo pixka bat suabeagoak izateko.

3. Bigarren denboraldia: gauzak dauden moduan, ez dago gaizki...
Ez; oso gogorra izaten ari da denontzat eta aktoreen bizitza ez da errazagoa, guztiz kontrara. Ezin gara kexatu; ez da egonkortasun handiko gauza, ikusleek eskatzen duten mailan egon behar dugu eta hor gabiltza borrokan.

4. Lan bat bestearen atzetik kateatzen ikusi zaitugu. Zertan nabaritu duzu krisia?
Nik ere pasa dut boladatxoa lan oso gutxirekin. Gaizki ohituta nengoen: baterako edo besterako, telefonoak beti jotzen zuen. Krisiak autogestionatzen erakutsi dit: lanak sortu, proiektuak martxan jarri...

5. Denborak ematen duen perspektibarekin, nola gogoratzen dituzu *Vaya Semanita*-ko garaiak?
Oso politak izan ziren, esperientzia mundiala izan zen. Badira urte batzuk utzi nuela, eta oraindik ere leku askotatik iristen zaizkit zorion mezuak.



AGM

6. *Esposados*-en audientzia kontuak ez ziren oso ondo joan...
Tristurarekin hartu nuen; Pepa Charrorekin gainera oso gustura nenbilen, baina... Kanpotik ez nuen hain gaizki ikusi. Ez nuen umore mota gogokoena, eta uste dut ikusleek ere hori ikusi zutela.

7. Aconcagua, *101 Gaztelu*... Abenturarako beti prest?
Aconcaguakoa oso polita izan zen: aurretik ikuslea nintzen, eta abentura moduan gustatu zitzaidan, baita profesional moduan ere: barrutik nola lan egiten den ikusi nuen. *101 Gaztelu*-ko partaidetza adiskidestasunagatik izan zen.

8. Zuk esana: ''Frikia naiz''.
Erradikala ez, baina banaiz frikia, batez ere zinemari dagokionez: pelikula batzutako esaldiak gogoan izaten ditut, pelikulekin lotutako bitxikeriak ere baditut etxean...

9. Sare sozialetan buru-belarri zabiltza. Zer ematen dizute?
Twitterren bereziki. Sarri ez dut astirik kaleko jendearekin hitz egiteko, eta uste baino lotsatiagoa ere banaiz. Laguntzen dit mezuak jasotzen eta nire lan, sentimendu eta usteen berri ematen. Gure ogibidean oso lagungarria deritzot.

10. Duzun zintzo aurpegiarekin, zein izan duzu azken gaiztakeria?
Gazteagoa nintzenean, tabernetako komunetan aire-gozagarriari pilak kendu eta lagunen artean banatzen genituen oroigarri gisa; duela gutxi berriz ere egin nuen.

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Klase politikoaren zati bat aldatu"

"Makilarekin klase politikoaren zati handi bat aldatuko nuke, batez ere agintariak. Iruditzen zait euren buruagan eta euren alderdian gehiago pentsatzen dutela gizartean baino eta ez dirudi krisiarekin asko ikasi dutenik. Berdinetan jarraitzen dute, eta euren kabuz ez dira aldatuko".

BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA

Fagor froga

Idazteko lehen lana edukia aukeratzea da, baina gaur ez dut aukerarik; nola saihestu gaia!. *Fagor* dugu egungoa. Eta esango nuke *Fagor*, *froga* bihurtu zaigula; barrukoei eta kanpotik begira gaudenoi. Ez naiz ni hasiko gauzak nola egin behar ziren edo diren esaten. Halere, harreta deitu dit *Fagor* Etxetresnak enpresaren itxiera, nolatan baliatu nahi izan duten, euskal kooperatibismo beraren "amaieraren hasera" dela baieztatzeko. Desiatzeko?. Lojika berdina aplikatzea balego Lehman Brothers erori zenekoari, finantza sistemak berea egina zukeen orduan!. baina tira, itzul gaitezen geurera. Fagor Etxetresnak enpresa bat izan da; bere zikloa bete duena agian; mundializazioak ekarri digun konpetentzia basatiaren ondorioz, hutsegite estratejikoen erruz edo denon ardura gehiagoren faltaz, hondoa jo duena. Baina ez da hori bakarrik izan; bere sektorean egun arte bizirik iraun duen bertako enpresa bakarra ere izan da. Debagoienako eta EHko langileek, elkarlanaren bidez bizirik mantendu duten proiektua eta bizibidea. Kooperatiba berrien iturburu eta EHan daukagun jarduera ekonomiko garrantzitsuenaren aintzindari eta euskarri. Ez ote du merezi, egindakotik ikasiz aukera berriak lantzen hasteak?. Baietz esango nuke. Gaitasuna badago eta beharra ere bai. *Fagor* bedi *froga*.

IKER
SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR